“Azken arau-aldaketa: 2024/02/01”

# 1624/1992 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga onetsi eta honako xedapenak aldarazi dituena: 1041/1990 ED, uztailaren 27koa, zentsu-aitorpenei buruzkoa; 338/1990 ED, martxoaren 9koa, identifikazio fiskaleko zenbakiari buruzkoa; 2402/1985 ED, abenduaren 18koa, (enpresari eta profesionalek) faktura luzatu eta eman beharrari buruzkoa; eta 1326/1987 ED, irailaren 11koa, Elkartearen zuzentarauen aplikazioari buruzkoa (EAO Abenduaren 31koa)

## ZIOEN AZALPENA

1. Abenduaren 28ko 37/1992 Legeak gure zerga-antolamenduari erantsi dizkio Elkarteko arau hauek: 91/680/EEE Zuzentaraua, 1991ko abenduaren 16koa, Elkarte barruko eragiketei dagokien Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide juridikoa ezarri duena, Elkarte barruko merkatuko jardunerako; eta 92/77/EEE Zuzentaraua, 1992ko urriaren 19koa, zerga-tasak harmonizatu dituena eta lehengo arautegian zenbait aldarazpen egin dituena Zergaren kudeaketa errazte aldera.

   Lege horren aplikazioa dela-eta, alderdi batzuk zehaztu egin behar dira arau bidez, bertan ezarritako prozedurak garatzeko, erazko betebeharrak arautzeko eta Legearen arauen interpretazioa erraztuko duten irizpideak ezartzeko.

   Horrexetarako egin da errege dekretu hau. Sei artikulu ditu eta horietan jaso dira Zergari buruzko Lege berriak eraginda arauzko xedapenetan egin beharreko aldarazpenak.

2. Lehen artikuluak Balio Erantsiaren gaineko Araudia onetsi du. Sistematikaren aldetik, abenduaren 30eko 1.841/1991 Errege Dekretuaren bidez onetsi den Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren ildo berari jarraitzen dio, hau da, lege-manuak garatu edo osatu besterik ez du egiten, haien edukia alferrik errepikatu gabe baina. Horrela Araudiaren testua ulerterraza da, aplikatzen ere erraza, eta hobeto zaintzen du eragile ekonomikoen segurtasun juridikoa.

   Araudiak hamar titulu ditu. Legeak beren beregi jasotako gaiak jorratu dira tituluotan, Legeak ezarritako hurrenkera berean jorratu ere: zerga egitatearen mugaketa, salbuespenak, eragiketaren lekua, zerga oinarria, Zergaren jasanarazpena, zerga tasak, kenketak eta itzulketak, araubide bereziak, kontabilitateko betebeharrak eta Zergaren kudeaketa.

   Bereziki interesgarriak dira salbuespenez eta erazko betebeharrez diharduten tituluak.

   Lehenengoan zenbait kontzeptu sartu dira, salbuespen jakin batzuen mugak zehazten dituztenak; higiezinen arloko salbuespenei uko egiteko prozedura arautu da; eta prozedurak ezarri dira gainontzeko herriekiko eragiketetan salbuespenak aplikatzeko. Prozedura horiek lehengoak baino hobeto egokitzen zaizkio halako zerga onurei buruzko Elkarteko arautegiari.

   Erazko betebeharrak direla-eta, Zergari buruzko Arauditik kendu egin dira beste xedapen zehatz batzuen xede diren gaiak, hala nola, fakturen luzapena, zentsu-aitorpenak edo zergadunen zerga-identifikazioa, gai horiek guztiak errege dekretu honetako hurrengo

artikuluetan aipatuko diren xedapenetan arautu dira eta. Horrenbestez, kontabilitateko betebeharrak, Zergaren kudeaketa eta Zergaren likidazioa baino ez dira geratzen Araudian. Horien araupeketan BEZari buruzko Seigarren Zuzentarauak, 91/680/EEE Zuzentarauaren bidez aldaraziak, emandako xedapenei eutsi zaie.

Araudiaren 2, 3 eta 4. artikuluetan aldarazi egin dira, hurrenez hurren, uztailaren 27ko 1.041/1990 Errege Dekretua, zentsu aitorpenei buruzkoa; martxoaren 9ko 338/1990 Errege Dekretua, zerga identifikazioari buruzkoa; eta abenduaren 18ko 2.402/1985 Errege Dekretua, fakturak luzatu eta emateari buruzkoa, alderdi horiek arestian aipatutako 91/680/EEE Zuzentarauari egokitzeko eta Elkarte barruko eragiketen zerga araubidea barruko merkatuan behar bezala aplikatuko dela ziurtatzeko.

Bosgarren artikuluan, berriz, irailaren 11ko 1.326/1987 Errege Dekretua aldarazi da, zergen arloko informazio-trukeari buruz EEEk emandako zuzentarauen aplikazioa araupetu duena. Aldarazpenaren bidez betebehar bi jaso dira: Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien inguruko informazioa eman beharra eta organo eskudunen aipamenak eguneratu beharra.

Azkenik, 6. artikuluan Ekonomia eta Ogasun ministroaren ordezkaritasuna zehaztu da, Estatu kideetako administrazioen arteko lankidetza araupetzen duten Elkarteko zuzentarauei jarraituz..

Horrenbestez, Ekonomia eta Ogasun ministroak proposaturik, Kanarietako Autonomi Erkidegoaren informazio tramitea beterik, Estatu Kontseiluaren irizpenarekin bat etorrita, eta Ministroen Kontseiluak 1992ko abenduaren 29ko bileran gaia eztabaidatu eta gero, ondokoa.

XEDATU DUT:

### 1. artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Araudiaren onespena.

Onetsi da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudia, errege dekretu honen eranskinean dagoena.

### 2. artikulua. Uztailaren 27ko 1.041/1990 Errege Dekretuaren aldarazpena.

Uztailaren 27ko 1.041/1990 Errege Dekretuari, enpresariek, profesionalek eta beste zergadun batzuek zergen ondoreetarako aurkeztu behar dituzten zentsu aitorpenak araupetu dituenari, aldaketa hauek egin zaizkio:

1. Lehenengo artikulua honela idatzita geratu da:

> «1. artikulua. Eremu subjektiboa
>
> 1. Espainiako lurraldean enpresa zein lanbide jarduerak egiten dituzten edo egin asmo dituzten pertsona eta erakundeek, edo atxikipena duten etekinak ordaintzen dituztenek, eta bai enpresari edo profesional gisa jarduten ez duten pertsona juridikoek ere, baldin eta Elkarte barruan egiten dituzten ondasun-eskuraketengatik Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu behar badute, horrelako jardueren eta eragiketen hasiera, aldaketak eta amaiera Zerga Administrazioari jakinarazi behar dizkiote, zentsu-aitorpenen bitartez.
>
> 2. Zentsu-aitorpenak aurkeztu behar dituzte hala Espainian egoitza duten pertsona edo erakundeek nola egoitzarik eduki gabe Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorraren bidez jarduten dutenek edo atxikipena duten etekinak ordaintzen dituztenek. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio-lurraldean establezimendurik ez duten pertsona edo erakundeek ere zentsu-aitorpena aurkeztu behar dute, baldin eta zerga horren subjektu pasiboak badira.
>
> 3. Atxikipena duen etekinik ordaintzen ez duten pertsona eta erakundeek ez dute zentsu-aitorpenik aurkeztu behar, eragiketa-hauek soilik egiten badituzte:
>
> a) Ondasun higiezinen errentamenduak, Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu beharretik salbuetsita egonez gero.
>
> b) Garraiabide berrien noizbehinkako emateak, Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu beharretik salbuetsita egonez gero, Zergari buruzko Legearen 25. artikuluko lehenengo eta bigarren idatz-zatietan xedatutakoaren arabera.

c) Elkarte barruko ondasun-eskuraketak, Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu beharretik salbuetsita egonez gero, Zergari buruzko Legearen 26. artikuluko hirugarren idatz-zatian xedatutakoaren arabera.»

2. Laugarren artikuluko e) letraren testua aldatu egin da eta honela geratu da:

«e) Enpresa zein lanbide jarduerak egiteagatik edo atxikipena zein konturako sarrera eragiten duten errentak ordaintzeagatik Estatuko Zerga Administrazioari aldian-aldian aurkeztu behar dizkioten aitorpenak edo aitorpen-ikidazioak.»

3. Zazpigarren artikuluari izenburu berria jarri zaio, «egoitza edo establezimendurik gabeko pertsona edo erakundeak» hain zuzen, eta 4. idatz-zatia erantsi zaio:

«4. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio lurraldean establezimendurik ez duten pertsona edo erakundeak badira, inguruabar hori agertarazi egingo da eta haien ordezkariaren identifikazio datu guztiak jarriko dira, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 82. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.»

4. Zortzigarren artikulua honela idatzita geratu da:

«8. artikulua. Zerga egoerak

1. Enpresari, profesional edo atxikitzaileen zentsuan honako datuak ere jarriko dira:

a) Erakundea Sozietateen gaineko Zergaren ondoreetatik salbuetsita dagoela, zerga horri buruzko Legearen 5. artikuluaren arabera.

b) Zergadunak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako, baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia duela.

c) Balio Erantsiaren gaineko Zergan uko egin zaiola araubide berezi erraztuari edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari.

d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan uko egin zaiola zenbatespen objektiboaren metodoari.

2. Zentsu hori Esportatzaileen Erregistroarekin batera eratuko da. Berau Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren ordezkaritzetan egingo da, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 116. artikuluan aipatutako itzulketak egin daitezen.»

5. Bederatzigarren artikulua honela idatzita geratuko da:

«9. artikulua. Hasierako aitorpena

1. Espainiako lurraldean enpresa edo lanbide jardueraren bat hasi behar duten enpresari edo profesionalek zentsuan sartzeko aitorpena aurkeztu behar dute.

2. Ez enpresari ez profesional ez diren pertsona juridikoek ere zentsuan sartzeko aitorpena aurkeztu behar dute, baldin eta atxikipena duten etekinak ordaintzen edo zor badituzte (lanaren etekinak, edo kapital higikorrenak, edo lanbide, arte zein kirol jardueretatik lortutakoak). Pertsona juridikoek ere, ez enpresari ez profesional gisa jardun ez arren eta atxikipena duen etekinik ordaindu ez arren, zentsuan sartzeko aitorpena aurkeztu beharko dute baldin eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari loturiko ondasun-eskuraketak egiten badituzte Elkarte barruan.

3. Aitorpen horren bitartez Zerga Administrazioari jakinaraziko zaizkio errege dekretu honen 4 eta 7 bitarteko artikuluetan eta 8. artikuluko lehenengo idatz-zatian aipatutako datuak.

4. Gainera, hasierako aitorpen horrek gauza hauek egiteko balioko du:

a) Identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzeko, zenbakirik ez dutenek.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 111. artikuluan azaltzen diren eragiketak hasi aurretik aurkeztu behar den aitorpena aurkezteko.

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan zenbatespen objektiboaren metodoari uko egiteko, edo Balio Erantsiaren gaineko Zergan araubide berezi erraztuari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari uko egiteko.

d) Ondasun erabilien eta arte objektu, antzinateko eta bilduma gaien araubide bereziei eta zerga-oinarrien proportziozko zehaztapenaren araubideari uko egiteko.

e) Ondasun erabilien eta arte objektu, antzinateko eta bilduma gaien araubide berezietan, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 137. artikuluko lehen idatz-zatiko bigarren lerroaldean azaltzen den metodoa aukeratzeko zerga oinarria zehazteko.

f) Bidai agentzien araubide berezian, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 146. artikuluan azaltzen den metodoa aukeratzeko zerga oinarria zehazteko.

g) Elkarte barruko ondasun-eskuraketetan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainketa aukeratzeko, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 14. artikuluko laugarren idatz-zatian ezarritakoari eutsiz, baldin eta aitortzailea zentsuan erregistratu gabe badago.

h) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 68. artikuluko laugarren idatz-zatian azaltzen diren ondasun-ematetan Balio Erantsiaren gaineko Zergarik ez ordaintzea aukeratzeko.

i) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 68. artikuluko hirugarren eta bosgarren idatz-zatietan azaltzen diren ondasun-emateetan Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu behar dela jakinarazteko, baldin eta aitortzailea zentsuan erregistratu gabe badago.

j) Zerga oinarrien proportziozko zehaztapenaren araubide bereziari dagokion behin-behineko portzentajea Administrazioari proposatzeko, Zergari buruzko Legearen 152. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 4. zenbakiko bigarren lerroaldean azaltzen den kasuan.

5. Kasuan kasu, jarduerak hasi aurretik, eragiketak egin aurretik edo ordaintzen diren edo zor diren etekinen zati bat atxiki beharra sortu aurretik aurkeztu behar da aitorpena.

Errege dekretu honetan xedatutakoaren ondoreetarako, enpresa edo lanbide jarduera hasten dela uste izango da ondasun edo zerbitzuren bat eman edo hartzen denean, edo kobrantza edo ordainketaren bat egin edo langileren bat kontratatzen denean, ondasun edo zerbitzuen ekoizpenari edo banaketari berehala edo geroago ekiteko asmoarekin.»

6. Hamargarren artikuluko bigarren idatz-zatian b) letra aldatu egin da eta jarraian azalduko den moduan geratu da, eta d), e), f), g), h), i), j) eta k) letrak sartu dira:

«b) Errege dekretu honen 8. artikuluan azaldu diren zerga egoeretatik edozein aldatuz gero, horren berri ematea Zerga Administrazioari.

d) Ondasun erabilien eta arte objektu, antzinateko eta bilduma gaien araubide bereziak eta zerga oinarrien proportziozko zehaztapenaren araubidea aplika dadila hautatzea.

e) Ondasun erabilien eta arte objektu, antzinateko eta bilduma gaien araubide berezietan, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 137. artikuluko lehen idatz-zatiko bigarren lerroaldean azaltzen den metodoa aukeratzea zerga oinarria zehazteko.

f) Bidai agentzien araubide berezian, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 146. artikuluan azaltzen den metodoa aukeratzea zerga oinarria zehazteko.

g) Zerga Administrazioari jakinaraztea, norberak hala aukeratu duelako edo Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko arautegian ezarritako gehieneko mugak gainditu direlako, Zergari buruzko Legearen 14. artikuluko lehen idatz-zatiko 1, 2 eta 3. zenbakietan aipatutako subjektu pasiboek Elkarte barruan egindako ondasun-eskuraketengatik zerga hori ordaindu behar dela, lege-manu beraren bigarren eta laugarren idatz-zatietan ezarritakoaren arabera. Subjektu pasibook, gainera, aldakuntzaren aitorpena aurkeztu beharko dute, egoki denean, Zerga Administrazioari jakinarazteko Elkarte barruan egin dituzten ondasun-eskuraketak ez daudela zergari loturik, baldin eta, arestian esandako aukera egin gabe, g) letra honetan aipatutako jakinarazpena aurretik aurkeztua badute eta eskuraketek lehen aipatutako zenbatekoak gainditzen ez badituzte.

h) Zergari buruzko Legearen 68. artikuluko laugarren idatz-zatian azaltzen diren ondasun-emateengatik Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu beharrik ez dagoela jakinaraztea.

i) Zergari buruzko Legearen 68. artikuluko hirugarren eta bosgarren idatz-zatietan aipatutako ondasun-emateengatik Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu behar dela jakinaraztea.

j) Aurreko d), e), f), g) eta h) letretan aipatutako aukerak eta 9. artikuluko laugarren idatz-zatiko d), e), f), g) eta h) letretan aipatutakoak ezeztatzea, eta halaber, idatz-zati honetako i) letran eta 9. artikuluko laugarren idatz-zatiko i) letran azaltzen diren egoeren aldakuntzen berri ematea.

k) Zerga oinarrien proportziozko zehaztapenaren araubide bereziari dagokion behin-behineko portzentajea Administrazioari proposatzea, Zergari buruzko Legearen 152. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 4. zenbakiko bigarren lerroaldean azaltzen den kasuan.»

7. Hamargarren artikuluko laugarren idatz-zatia honela idatzita geratuko da:

«4. Aitorpena hilabeteko epean aurkeztu behar da, hura eragiten duten egitateak gertatu eta biharamunetik zenbatuta. Errege dekretu honen 8. artikuluko lehen idatz-zatiko c) letran eta artikulu honetako bigarren idatz-zatiko d), e), f) eta k) letretan azaltzen diren aukerak eta horien ezeztapenak aldarazteko egin behar den aitorpena, berriz, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko berariazko xedapenetan kasu bakoitzerako ezarritako epean aurkeztu behar da.

Bai artikulu honetako bigarren idatz-zatiko g), h) eta i) letretan aipatutako aitorpenak eta horien ezeztapenak eta bai 9. artikuluko laugarren idatz-zatiko g), h) eta i) letretan aipatutako aukeren ezeztapenak ere Ekonomia eta Ogasun Ministerioak adierazten duen eran eta epeetan aurkeztu behar dira, arau berezietan ezarritakoaren kalterik gabe.»

8. Errege dekretu honen 11. artikuluan Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 85. eta 103. artikuluen aipamenak daude. Bada, horiek aurrerantzean lege beraren 116 eta 121. artikuluen aipamentzat hartu behar dira.

   Artikulu horretako bigarren idatz-zatiko b) letra honela idatzita geratu da:

   > «b) Hilabeteko likidazio aldiaren aukera ezeztaezina, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 71. artikuluko hirugarren idatz-zatian ezarri dena.»

9. Lerroalde hau erantsi zaio 12. artikuluko lehen idatz-zatiari:

   > «Era berean, amaierako aitorpena aurkeztu beharko dute errege dekretu honen 9. artikuluko bigarren idatz-zatiko bigarren lerroaldean aipatutako pertsona juridikoek, baldin eta Elkarte barruan egiten dituzten ondasun-eskuraketek Balio Erantsiaren gaineko Zergari loturik egoteari uzten badiote, aurrez aurkeztutako aukera ezeztatu delako edo eskuraketek ez dituztelako gainditu Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko arautegian adierazitako zenbatekoak.»

10. Lerroalde hau erantsi zaio 14. artikuluko lehen idatz-zatiari:

    > «Aitorpena egiten duen pertsonak edo erakundeak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio lurraldean establezimendurik ez badu, aitorpen horiek Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren Ordezkaritzari aurkeztu behar zaizkio, aitortzailearen ordezkariak zerga-egoitza duen lurraldean.»

11. Laugarren xedapen gehigarriari bigarren lerroaldea kendu zaio.

12. Bosgarren xedapen gehigarria erantsi da. Hona hemen horren testua:

    > «Bosgarrena.- Atxikipena eta konturako sarrerak eragiten dituzten errentak
    >
    > Errege dekretu honek atxikipena eragiten duten etekinak aipatzen dituenean, atxikipena edo konturako sarrera eragiten duten etekinez ari dela ulertu behar da.»

### 3. artikulua. Martxoaren 9ko 338/1990 Errege Dekretuaren aldarazpena.

Martxoaren 9ko 338/1990 Errege Dekretuari, identifikazio fiskaleko zenbakiaren osaera eta erabilera araupetu dituenari, aldaketa hauek egin zaizkio:

1. Bigarren artikuluari d) letra erantsi zaio. Hona hemen letra horren testua:

   > «d) Errege dekretu honen 16. artikuluan aipatutako Elkarte barneko eragiketak egiten dituzten pertsona edo erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakia lehengo arauei jarraituz dagokiena izango da, ES aurrizkia jarrita, ISO-3 166 alfa 2 kodea duen nazioarteko estandarraren arabera.»

2. Hirugarren artikuluari aldaketa hauek egin zaizkio:

   Lehenengo idatz-zatiari hirugarren lerroaldea erantsi zaio. Hona hemen horren testua:

   > «Hamazortzi urtetik beherako pertsona fisikoek, Espainian ez naziotasunik ez egoitzarik ez badute eta atzerritarren identifikazio zenbakia eduki beharrik ez badute, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei buruzko uztailaren 1eko 7/1985 Lege Organikoaren arabera, Zerga Administrazioari identifikazio fiskaleko zenbakia eskatu ahal izango diote zergen arloan eragina duen eragiketaren bat egiterakoan.»

   Bigarren idatz-zatiari c) letra erantsi zaio. Hona hemen horren testua:

   > «c) Hamazortzi urtetik gorako atzerritarrentzat:
   >
   > Hasieran M letra, zenbakiaren izaera adieraziko duena.
   >
   > Bi digitu, zenbakia zein probintziatan eskatu den adierazteko, Identifikazio Koderako erabiltzen diren gakoekin
   >
   > Probintziaren atzean bost digitu, zenbaki sekuentziala osatuko dutenak.
   >
   > Egiaztapenerako letra bat.»

3. Hamaseigarren artikulua erantsi da. Hona hemen horren testua:

«16. artikulua. Enpresari edo profesionalen identifikazioa Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legean xedatutakoaren ondoreetarako, honako pertsona edo erakundeei errege dekretu honen 2. artikuluko d) letran definitutako identifikazio fiskaleko zenbakia ezarriko zaie:

a) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio lurraldean establezimendua duten enpresari edo profesionalei, bertan egiten dituzten ondasun emateengatik edo zerbitzuengatik zerga hori ordaindu beharra badago.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio lurraldean establezimendurik ez duten enpresari edo profesionalei, bertan eragiketa hauetako baten bat egiten badute:

a’) Zergapeko ondasun-emateak edo zerbitzuak, salbu eta Zergari buruzko Legearen 70. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 5. zenbakian eta 72, 73 eta 74. artikuluetan adierazitako zerbitzuak.

b’) Elkarte barruko ondasun-eskuraketak, zergapekoak eta salbuetsi gabekoak badira.

c) Enpresari edo profesional gisa jarduten ez duten pertsona juridikoei, baldin eta Elkarte barruan egiten dituzten ondasun-eskuraketengatik Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu beharra badago, hura araupetzen duen Legearen 13. artikuluko 1. zenbakian eta 14. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, ez zaie identifikazio fiskaleko zenbakirik ezarriko pertsona edo erakunde hauei:

1. Enpresa edo lanbide jarduerarik gabeko pertsona juridikoei, Zergan kenketa egiteko eskubiderik ez dakarten eragiketak soilik egiten dituzten subjektu pasiboei, eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia aplikatu ahal zaien jarduerak soilik egiten dituzten subjektu pasiboei, baldin eta pertsona horiek Elkarte barruan egiten dituzten ondasun-eskuraketengatik Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu beharrik ez badago, zerga horri buruzko Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren ondorioz.

2. Aurreko zenbakian adierazitako pertsonei, Elkarte barruan garraiobide berriak eskuratzen dituztenean, eta enpresari edo profesional ez diren gainerako pertsonei, Elkarte barruan garraiobide berriak eskuratzen dituztenean, halaber.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 5. artikuluko lehen idatz-zatiko e) letran aipatutako pertsonei.»

4. Hamazazpigarren artikulua erantsi da. Hona hemen horren testua:

«17. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakiaren berrespena Elkarte barruko eragiketetan

Elkarte barruko ondasun-emateak edo zerbitzuak egiten dituzten pertsonek edo erakundeek Zerga Administrazioko organo eskudunarengana jo ahal izango dute, eragiketa horien hartzaileei EEEko edozein Estatuk ezarritako identifikazio fiskaleko zenbakia berrets dezala eskatzeko.»

## 4. artikulua. Abenduaren 18ko 2.402/1985 Errege Dekretuaren aldarazpena.

Abenduaren 18ko 2.402/1985 Errege Dekretuari, enpresari eta profesionalek faktura egin eta emateko duten betebeharra araupetzen duenari, aldaketa hauek egin zaizkio:

1. Lehengo artikulua aldatu egin da eta honela geratu da:

«1. artikulua.

Enpresari eta profesionalek eragiketaren bat egiten dutenean faktura egin eta luzatu behar dute eta haren kopia edo matrizea gorde behar dute, horrela xedatu baita Zergei buruzko Lege Orokorra zati batean aldarazi duen apirilaren 26ko 10/1985 Legearen zazpigarren xedapen erantsian eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 164. artikuluko lehen idatz-zatiko 3. zenbakian. Fakturak errege dekretu honetan ezarritako moduan egin eta luzatu behar dira.»

2. Bigarren artikulua honela idatzita geratu da:

«2. artikulua.

1. Enpresari eta profesionalek eragiketaren bat egiten dutenean faktura egin eta luzatu behar dute eta haren kopia edo matrizea gorde behar dute, baita Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko arauetan autokontsumotzat jotzen diren kasuetan ere. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan zenbatespen objektiboaren araubidea duten enpresari eta profesionalek ere betebehar hori izango dute.

2. Enpresari eta profesionalek euren jardueretan egiten dituzten ondasun-emate eta zerbitzu guztiak fakturatu behar dira, eragiketa hauek izan ezik:

a) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek egiten dituzten eragiketak, baliokidetasun errekarguaren araubidea aplikatu ahal bazaie.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 20. artikuluan ezarritakoaren ondorioz zerga hori ordaindu beharretik salbuetsita dauden eragiketak, salbu eta artikulu bereko 2, 3, 4, 5 eta 15. zenbakietan aipatutakoak.

c) Ordainpeko autobideen erabilera.

d) Enpresa edo lanbide arlo jakinentzat edo enpresa jakinentzat Zerga Administrazioko organo eskudunak beren beregi salbuesten dituen eragiketak, hala egiten duenean, enpresari eta profesionalen jarduera ekonomikoen nahasmenduak ekiditeko.

e) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek zeinu, indize edo modulukako zenbatespen objektiboaren araubidea duten jardueretan egiten dituzten eragiketak.

f) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek araubide berezi erraztuaren araubidea duten jardueretan egiten dituzten eragiketak.

3. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, enpresari edo profesionalek, beti ere, faktura osoa eman beharko dute honako kasuetan:

a) Eragiketaren hartzaileak faktura eskatzen duenean ordaindu behar dituen zergen oinarrietan eta kuotetan txikipenak edo kenketak egin ahal izateko.

b) Beste Estatu kide batera egiten diren ondasun-emateak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 25. artikuluko lehen, bigarren eta hirugarren idatz-zatietakoak direnean.

c) Elkartetik kanpora igorri edo garraiatzen diren ondasunen emateak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 21. artikuluko 1 eta 2. zenbakietan aipatutakoak alegia, zergarik gabeko dendek egiten dituztenak izan ezik.

d) Beste Estatu kide batean egoitza izan eta enpresari edo profesional gisa jarduten ez duten pertsona juridikoei ondasunak ematen zaizkienean.

4. Artikulu honetako 1. idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, hilabetean edo aldi laburragoan hartzaile batentzat egiten diren eragiketa guztiak faktura berean sartu ahal izango dira.

Errege dekretu honen ondoreetarako, eragiketak burututzat joko dira eurengatik Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu beharra sortzen den egunetik aurrera.»

## 3. Hirugarren artikuluaren testua aldatu egin da eta honela idatzita geratu da:

«3. artikulua.

1. Faktura guztiek eta haien kopia edo matrizeek datu hauek edukiko dituzte, gutxienez:

1. Zenbakia, eta, egonez gero, sail-zenbakia. Fakturen zenbakiak elkarren segidakoak izango dira. Fakturak sailka egin ahalko dira, batez ere fakturazio gune bat baino gehiago daudenean.

2. Faltura-emailearen eta hartzailearen izen-deiturak edo sozietate-izena, Espainiako Administrazioak edo Europako Ekonomi Elkarteko beste Estatu batekoak esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia, eta helbidea. Egoiliarrak ez badira, establezimendu iraunkrra non dagoen adierazi behar da. Hartzailea enpresa edo lanbide jarduerarik gabeko pertsona fisikoa bada, nahikoa izango da haren izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia jartzea.

3. Eragiketaren deskripzioa, eta kontraprestazio osoaren zenbatekoa. Eragiketagatik Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu behar bada eta salbuespenik ez badago, fakturan zerga oinarria zehazteko behar diren datu guztiak jarriko dira, eta bai zerga tasa eta jasanarazitako kuota ere. Kuota prezioan sartuta jasanarazten denean, aplikatu den zerga tasa soilik jarriko da, edo bestela "BEZ barne" esapidea, horretarako baimena izanez gero.

Fakturan ageri diren ondasun-emate edo zerbitzuak zerga honez besteko zerga tasaren baten menpe badaude, eragiketaren zati bakoitza zein tasaren menpe dagoen adierazi beharko da.

4. Faktura eman den lekua eta eguna.

2. Eragiketa burutu aurretik ordainketaren bat egiten bada, horren faktura egin eta luzatuko da, eta fakturan inguruabar hori agertaraziko da.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 5. artikuluko lehen idatz-zatiko e) letran adierazitako pertsonek garraiobide berrien emateak egiten dituztenean, subjektu pasiboak fakturan agertarazi behar ditu, aurreko 1. idatz-zatian esandako datuez gainera, garraiobideen ezaugarriak, lehenengoz erabili ziren eguna eta ematearen eguna arte egin dituzten kilometroak edo nabigazio orduak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 13. artikuluko 2.0. zenbakian ezarritakoaren arabera.

4. Ondasun erabilien, arte objektuen, antzinatekoen eta bilduma gaien emateak egiten direnean, Balio Erantsiaren gaineko Zergan euren araubide berezia dutela agertarazi behar da fakturan.»

## 4. Laugarren artikuluaren testua aldatu egin da eta honela idatzita geratu da:

«4. artikulua.

1. Enpresari edo profesional ez direnei euren jarduueretarako egiten zaizkien eragiketetan ez da beharrezkoa izango fakturan hartzailearen datuak jartzea, eragiketaren kontraprestazioa 90,151816 eurotik gorakoa ez denean eta Zerga Administrazioaren Estatu Agentziako Zerga Kudeaketako Sailak berariaz baimena ematen duenean.

2. Jarraian azalduko diren eragiketetan, fakturen ordez zenbakidun txartelen taloitegiak eman ahalko dira, edo horien ezean, erregistragailuek emandako tiketak:

a) Txikizkako salmentak, baita ekoizkinen fabrikatzaile edo egileek eurek egindakoak ere.

Hori dela eta, ondasun higikor eta gozpuzkorren eta abereen emateak txikizkako salmentatzat joko dira baldin eta hartzaileak ez badu enpresari edo profesional gisa jarduten, baizik eta ondasunon azken kontsumitzaile gisa. Ez dira txikizkako salmentatzat joko funtsean industriarako diren ondasunen salmentak.

b) Kalez kaleko salmentak edo zerbitzuak.

c) Kontsumitzaileari etxean egiten zaizkien salmentak edo zerbitzuak.

d) Pertsonen eta haien fardelen garraioa.

e) Ostalaritza zerbitzuak, jatetxe, bar, kafetegi, hortxatategi, txokolategi eta antzeko establezimenduetan egiten direnak.

f) Zerbitzatu eta bertan kontsumitzeko janari eta edarien salmenta, goian aipaturiko establezimenduetan egiten dena.

g) Dantzaleku eta diskotekak.

h) Telefono zerbitzuak.

i) Ile-apaindegi eta edergintza institutuetako zerbitzuak.

j) Kiroldegien erabilera.

k) Argazki errebelaketa eta argazki estudioak.

l) Zerga Administrazioaren Estatu Agentziako Zerga Kudeaketako Sailak baimena ematen dien gainerakoak.

3. Txartelen taloi aldean eta matrizean datu hauek jarriko dira, gutxienez:

a) Zenbakia, eta, halakorik badago, sail-zenbakia. Zenbakiak elkarren segidakoak izango dira.

b) Emailearen identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Aplikatu den zerga tasa, edo "BEZ barne" esapidea.

d) Kontraprestazioaren zenbateko osoa.

4. Txartelen taloitegien ordez, erregistrakutxetatik ateratako salmenta tiketak eman daitezke, baldin eta aurreko 3. idatz-zatian adierazitako datuak badituzte. Halakoetan gorde egin behar dira eragiketen datuak dituzten paper-biribilkiak. Zerga Administrazioaren Estatu Agentziako Kudeaketa Sailak baimena eman dezake ezin manipulatu diren eta memoria magnetikoa duten makinak erabiltzeko.»

5. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 6. artikuluan 14. artikuluari buruz dagoen aipamena lege beraren 75. artikuluari dagokiola ulertu behar da.

   Seigarren artikuluari bigarren lerroaldea erantsi zaio:

   «Elkarte barruko eragiketen fakturak edo horien ordezko agiriak, beti ere, likidazio aldia edo eragiketek sortzapena izan duten aldia amaitu eta hurrengo hilaren 16a baino lehen eman behar dira.»

   Orain bigarrena den lerroaldea aurrerantzean hirugarrena izango da.

6. Zortzigarren artikuluko 2. zenbakiko lehen lerroaldea honela idatzita geratu da:

   «2. Ez enpresari ez profesional ez den norbaitek egindako emate edo zerbitzu lokaberen baten ondorioz kenketa edo gastuen egozpena egiten denean, eragiketaren hartzaileak honela bidezkotu behar ditu kenketak eta egozpenak:»

7. Artikulu bat erantsi da, 8 bis zenbakikoa. Hona hemen horren testua:

   «8 bis artikulua.

   1. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 84. artikuluko lehen idatz-zatiko bigarren zenbakian eta 85. artikuluan aipatuetarikoak

badira, fakturaren balio bereko agiria eman behar dute eta bertan jaso behar dituzte Zergaren likidazioa eta errege dekretu honen 3. artikuluan adierazitako datuak. Agiri horri eragiketaren kontabilitateko frogagiria erantsiko zaio. Kuota ordaindutakoan, agiri hori faktura balitz bezala erabiliko da kenketa egin ahal izateko.

2. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia duten pertsona edo erakundeei ondasun edo zerbitzuak erostean konpentsazioak itzuli behar dituzten subjektu pasiboek fakturaren balio bereko ordainagiri bat eman beharko dute eragiketa bakoitzeko, eta bertan jarriko dituzte Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 134. artikuluan adierazitako datuak.

3. Fakturei buruz errege dekretu honetan xedatu denak aurreko idatz-zatian aipatutako ordainagirietarako ere balio du.»

## 8. Bederatzigarren artikulua aldatu egin da eta honela idatzita geratu da:

«9. artikulua.

1. Enpresari eta profesionalek, fakturak, fakturen baliokideak eta fakturen ordezko agiriak emandakoan, agiriok zuzendu egin beharko dituzte okerreko kuotak jarri dituztela antzemanez gero, edo haien zenbatekoa zehazteko kontuan hartu ziren inguruabarrak aldatuz gero, edo, Zuzenbidearen arabera, Balio Erantsiaren gaineko Zerga ezarri zaien eragiketak ondorerik gabe geratuz gero. Hori horrela izango da harik eta bost urte igaro arte eragiketarengatik zerga ordaindu beharra sortu zen egunetik, edo, hala denean, kontraprestazioaren aldaketa nahiz eragiketaren ondorerik eza dakarten inguruabarrak azaldu ziren egunetik. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 89. artikuluan adierazitako kasuetan, berriz, zerga kuotak ez dira zuzenduko.

2. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 89. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe, zuzenketaren zioa antzeman eta berehala egin beharko da zuzenketa.

3. Faktura edo agiri berria emango da zuzenketa egiteko, eta bertan jasoko dira lehengo faktura edo agirien identifikazio datuak eta egindako zuzenketa. Zuzenketa faktura horietarako zenbaki-sail bereziak egin behar dira.

Hori gorabehera, enpresari edo profesionalek, faktura edo agiriak emandakoan bezeroei deskontuak edo bestelako onurak eskaintzen badizkiete, abonamendu orriak eman ahalko dizkiete, hurrenez hurreneko zenbakiekin, baldin eta bezeroak ez badira enpresari edo profesionalak eta faktura osoa eskatzen ez badiete.

Halaber, eragiketen kopurua dela-eta deskontuak edo hobariak ematen direnean eta Zerga Administrazioaren Estatu Agentziako Kudeaketa Sailak baimena ematen duenean, ez da beharrezkoa izango zuzendutako fakturak zehaztea eta nahikoa izango da zein alditakoak diren adieraztea.»

## 9. Artikulu bat erantsi da, 9 bis zenbakikoa. Hona hemen horren testua:

«9 bis artikulua.

1. Bide telematikoetatik igortzen diren fakturak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 88. artikuluko bigarren idatz-zatian aipatutakoak alegia, jatorrizko fakturen baliokideak izango dira.

Igorritako fakturan eta hartutako fakturan informazio berbera agertu behar da.

Zerga Administrazioak enpresari edo profesional igorle edo hartzaileari edonoiz eskatu ahalko dio faktura lengoaia irakurgarrira itzul dezala edo paperean inprimaturik eman diezaiola.

2. Enpresari edo profesionalek edo haien elkarteek, fakturazio telematikoaren sistema erabili nahi izanez gero, baimena eskatu beharko diote Zerga Administrazioaren Estatu Agentziari, eta erabili nahi duten igorpen sistemak artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko elementuak aurkeztu beharko dizkiote.

Estatu Agentziak eskabidea jaso eta sei hilabeteko epean ebatzi behar du, baina epe hori eten egin dezake datu edo informazio gehiago eskatzeko, espedientea ebazteko beharrezkoa bada. Baimendutako sisteman ezer aldatu aurretik Estatu Agentziari jakinarazi behar zaio, eta hurrengo sei hilabeteetan ezezkorik jaso ezean, aldaketak ontzat ematen dituela uste izango da. Hasierako baimena edo sistema aldatzeko baimena tramitatzen den bitartean, Estatu Agentziako Finantza eta Zerga Ikuskatzailetza Sailak kontrolak egin ahalko ditu igorlearen, hartzailearen eta igorpen zerbitzua egiten duenaren establezimenduetan. Sistema erabiltzeko baimena jasoz gero, interesatuek Zerga Administrazioari erabileraren hasierako adierazpena aurkeztu behar diote, sistema abian jarri baino hogeita hamar egun lehenago, gutxienez.

3. Fakturak gorde egin behar dira, euren jatorrizko edukia aldatu gabe, errege dekretu honetan ezarritako epeetan eta eran. Enpresari edo profesional igorleak igorri ahala gorde behar ditu fakturak, eta hartzaileak ere hartzen dituen hurrenkeran gorde behar ditu. Seihilabeteko bakoitzean igorritako eta jasotako mezuen, egindako zuzenketen eta bestelako gorabeheren zerrenda ere gorde behar da goian esandako epe berean, paperean soilik.

4. Zerga Administrazioak eragiketa teknikoak egin ahal izango ditu edonoiz baimendun enpresari eta profesionalen lokaletan eta teleigorpen zerbitzuaren egileen lokaletan, sistemak baimenean ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

Egiaztapenaren emaitza diligentzietan jasoko da, hau da, sistemak baldintzak betetzen dituela edo ez dituela betetzen agertaraziko da.

Zerga Administrazioari lokaletara sartzea edo kontrolak egitea eragozten bazaio, besterik gabe baimena iraungi egingo da, eta bidezkoa izanez gero zehapen espedientea hasiko da.Sistema telematikoak erabiltzeko ezarritako baldintzak bete ezik, interesatuari baimena behin-behinean kenduko zaio eta hiru hileko epea emango zaio bere egoera erregularizatzeko. Ez badu hori egiten fakturazio telematikoaren sistema erabiltzeko baimena iraungi egingo da.

5. Artikulu honetan xedatutakoa ez da aplikatuko Ekonomia eta Ogasun ministroak aplikazioari buruzko arauak eman arte.»

10. Errege dekretu honen 12. artikuluan Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 76. artikuluaz dagoen aipamena lege beraren 170. artikuluko bigarren idatz-zatiko 3. zenbakiari dagokiola ulertu behar da.

11. Hirugarren eta laugarren xedapen gehigarriak erantsi dira. Hona hemen horien testuak:

Hirugarrena.

Errege dekretu honetan Zerga Kudeaketa eta Lankidetzarako Zentroaz dauden aipamenak Zerga Administrazioaren Estatu Agentziako Kudeaketa Sailari dagozkiola ulertu behar da.

Laugarrena.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaz eta Zerga Kudeaketa eta Lankidetzareko Zentroaz dauden aipamenak, Kanarietako Zeharkako Zerga Orokorra ordaindu beharra dakarten eragiketak direla-eta, hurrenez hurren Kanarietako Zeharkako Zerga Orokorrari eta Kanarietako Zerga Administrazioari dagozkiela ulertu behar da, bi administrazioen artean beharrezkoa izan litekeen koordinazioaren kalterik gabe.»

### 5. artikulua. Irailaren 11ko 1.326/1987 Errege Dekretuaren aldarazpena.

Irailaren 11ko 1.326/1987 Errege Dekretuari, Europako Ekonomi Elkarteak zerga informazioaren trukeaz emandako zuzentarauak aplikatzeko prozedura ezarri duenari, aldaketa hauek egin zaizkio:

1. Lehen artikuluko 1. idatz-zatia honela geratu da:

«1. Ekonomia eta Ogasun Ministerioak Europako Ekonomi Elkarteko gainerako Estatuekin zerga-informazioa trukatuko du, behar bezala likidatu ahal izan daitezen errentaren edo ondarearen gainean Estatu kide bakoitzean dauden zergak, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak. Horrez gainera, badira zergei buruzko informazio trukearen alorrean beste betebehar zabalago batzuk, nazioarteko zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmenetan ezarritakoak eta Espainiak sinatu eta bere jardunerako hartu dituen nazioarteko beste hitzarmen batzuetan ezarritakoak, hain zuzen ere.»

2. Errege dekretuaren xedapen gehigarriari bigarren lerroaldea erantsi zaio. Hona hemen horren testua:

«Errege dekretu honetan Ogasun Idazkaritza Nagusiaz, haren menpeko zuzendaritza zentroez eta Ogasunaren ordezkaritza bereziez dauden aipamenak, hurrenez hurren, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren Zuzendari Nagusiari, agentzia horren menpeko sailei eta Estatu Agentziaren ordezkaritza bereziei dagozkiela ulertu behar da.»

### 6. artikulua.Ordezkari eskuetsia eta eskudun agintaria.

Abenduaren 19ko 77/799/EEE Zuzentarauaren 1. artikuluko bosgarren idatz-zatian eta urtarrilaren 27ko 218/92/EEE Araudiaren 2. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa dela-eta, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren Zuzendari Nagusiak Ekonomia eta Ogasun ministroaren ordezkari eskuetsi gisa eta Estatu espainiarreko eskudun agintari gisa jardungo du, Ekonomia eta Ogasun ministroak ematen dion ordezkaritasunarekin.

## XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA
## ARAUEN INDARGABEKETA

Errege dekretu hau indarrean jartzen denean indargabetu egingo dira urriaren 30eko 2.028/1985 Errege Dekretua, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi duena,

eta zerga horri buruzko gainerako arauak, errege dekretu honetan ezarritakoarekin bat ez datozen alderdi guztietan.

## AZKEN XEDAPEN BAKARRA
## INDARREAN JARTZEA

Errege dekretu hau 1993ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

## ERANSKINA
## BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO ARAUDIA

## LEHEN TITULUA
## ZERGA EGITATEAREN MUGAKETA

### LEHEN KAPITULUA
### BARNEKO ERAGIKETAK

#### 1. artikulua. Saltzaileak zeharka esku hartzea bidalketan edo garraioan.

Zergaren Legearen 8.Hiru artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ondasunak saltzaileak edo haren kontura zeharka igorri edo garraiatu dituela ulertuko da. Bereziki, inguruabar hori gertatzen dela joko da Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 5 bis artikuluan araututako kasuetan. Erregelamendu horrek balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari buruzko 2006/112/EE Zuzentaraua aplikatzeko xedapenak ezartzen ditu.

#### 1 bis artikulua. Interfaze digital baten bidez emandako ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak.

Zergari buruzko Legearen 8 bis eta 166 bis artikuluetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, enpresaburu edo profesional batek ondasunak entregatzeko edo zerbitzuak emateko aukera ematen duela ulertuko da, hala badagokio, interfaze digital bat erabiliz, Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 5 ter eta 54 ter artikuluetan, hurrenez hurren, araututako baldintzak betetzen direnean, balio erantsiaren gaineko zergaren sistema komunari buruzko 2006/112/EE Zuzentaraua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituena.

### II. KAPITULUA
### ELKARTE BARNEKO ERAGIKETAK

#### 2. artikulua. Garraiobide berriak.

Zergari buruzko Legearen 13. artikuluaren 2. zenbakiak aipatzen dituen garrailagailuak berritzat joko dira ondoren adierazten diren baldintzetatik baten bat betetzen baldin badute:

1.a. Garraiobidea lehen aldiz zerbitzuan jarri den egunetik hiru hilabete igaro baino lehen egiten bada haren ematea, edo, lur gaineko motoredun ibilgailua izanez gero, sei hilabete igaro baino lehen egiten bada.

Garraiobide bat lehen aldiz zerbitzuan jartzen den eguna Elkarte barneko behin-betiko zein behin-behingo lehen matrikulazio-eguna dela ulertuko da, eta, horren ezean, garraiobidea erabiltzeak sortarazten duen noiz-nolako erantzukizun zibila babesteko aseguru-hitzarmenik zaharrenean agertzen dena edo zuzenbidean onartzen den beste frogabideren batetik datorrena, erabilera-egoerarena barne, izango da kontuan hartuko dena.

2.a. Lur gaineko ibilgailuen kasuan 6.000 baino kilometro gutxiago ibilita izatea, itsasontziak ehun baino ordu gehiagoz ez nabigatu izana eta aireontziak berrogei baino ordu gehiagoz ez hegan egin izana.

Hori hala dela zuzenbidean onartzen den edozein frogabidez bermatuko da eta bereziki garraiobideak izaten dituzten kontagailuen bidez, kontagailuak manipulatu diren ala ez aztertu ahal delarik.

### 3. artikulua. Tributu ordainketa zergaren aplikazio lurraldean egitea aukeratzea.

1. Zergari buruzko Legearen 14. artikuluko lehenengo idatz-zatian aipatzen diren pertsona edo entitateek zergari lotzea aukera dezakete Elkarte barnean egiten dituzten ondasun eskuraketengatik, urte horretan edo aurrekoan 7.813,16 euroko muga gainditu ez badute ere.

2. Edozein momentutan aukera daiteke ahalbide hori horretarako behar den aitorpena aurkeztuz, eta Elkarte barnean egiten diren ondasun eskuraketa guztietan izango du eragina.

3. Bertan agertzen den epealdian Elkarte barnean burututako ondasun eskuraketei dagokien likidazio-aitorpena aurkeztu eta une horretatik aukera hori egin dela ulertuko da aurreko puntuan azaltzen den aitorpen hori egin gabe ere.

4. Aukera horrek urtearen gainontzeko denbora eta hurrengo bi urte osoak hartuko ditu gutxienez ere, eta ondoreak izaten segituko du hurrengo urteetan ezeztatzen ez den bitartean.

5. Behin gutxieneko aldi hori igarota, ezeztatu ahalko da bigarren idatz-zatian aipatu den aitorpenaren bitartez.

# II. TITULUA
# SALBUESPENAK

## LEHEN KAPITULUA
## ONDASUN EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK

### 4. artikulua. Ospitaleko edo osasun-laguntzako zerbitzuak salbuesteko prezio baimenduaren kontzeptua.

Zergaren ondoreetarako, prezio baimendu edo komunikatutzat joko dira aldatu ahal izateko Administrazioaren organoren batek aurretik baimentzeari edo jakinarazteari loturik daudenak.

### 5. artikulua. Zenbait barne eragiketaren salbuesteari legezkotasuna aitortzea.

...

### 6. artikulua. Erakunde edo establezimendu sozial gisa kalifikatzea.

Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eskaera bat eginez lortu ahal izango da erakunde edo establezimendu pribatu sozial gisa kalifikatzea. Eskaera horrek zerga-egoitza dagoen lurralde-esparruko Agentziaren ordezkaritzari edo administrazioari zuzenduta egon beharko du.

Edonola ere, Zergaren Legearen 20. artikuluaren hirugarren idatz-zatian ezarritako betekizunak betetzen badira soilik aplikatuko dira erakunde edo establezimendu sozialek emandako zerbitzuei dagozkien salbuespenak, aurreko paragrafoan ezarritakoari jarraiki, erakunde edo establezimendu sozialen kalifikazioa zer unetan lortzen duten alde batera utzita.

### 7. artikulua. Hezkuntza eta irakaskuntzari dagozkien eragiketak salbuestea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 20. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 9. zenbakian aipatzen diren baimendun entitate pribatutzat joko dira ikastetxeak baldin eta haiek burutzen duten jardunari legezkotasuna aitortu edo baimena ematen badio Estatuak, edo autonomi erkidegoren batek, edo beste erakunderen batek, gai horretan eskuduna izanez gero,

dela hezkuntzaren gaineko eskumen orokorrarekin, dela ikastetxeak lantzen duen irakaskuntza-alorraren gaineko eskumen zehatzarekin.

**8. artikulua. Ondasun higiezinekiko zenbait eragiketari salbuespena aplikatzea.**

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 20. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 20 eta 22. zenbakietan araupetzen diren salbuespenei uko egiten zaienean, ondasunak eman baino lehen edo ematen diren unean jakinarazi behar zaio eskuratzaileari sinesgarritasunez.

   Subjektu pasiboak egindako eragiketa bakoitzeko egingo da uko eta, nolanahi ere, erosleak sinatutako aitorpenarekin justifikatu beharko da. Horrek idatziz jasoa utziko du subjektu pasiboa dela eta ondasun higiezinak erosi ostean jasandako zergaren kenketa oso edo partzialerako eskubidea duela. Bestela, erositako ondasunek izango duten helburuak, oso-osorik edo zati batean, kentzeko eskubidea gaitzen duela adieraziko du.

2. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 20. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 22. zenbakiaren A) letran ezarritakoaren ondoreetarako, aipatutako 22. zenbakiaren B) letran azaltzen den birgaikuntza zehazteari buruzko irizpideak aplikatu dira.

**8 bis artikulua. Berreskuratzeko gaiekin egiten diren eragiketak.**

…

## II. KAPITULUA
## ESPORTAZIOAK ETA ESPORTAZIOEI BERDINETSIRIKO ERAGIKETAK

**9. artikulua. Esportazioei dagozkien salbuespenak.**

1. Esportazioei edo Elkartetik kanporako bidalketei dagozkien salbuespenek ondoren ezartzen diren betekizunak bete beharko dituzte:

   1.a. Aduana-araudian xedatutakoarekin bat eskualdatzailea ez denean eskualdatzaileak edo esportatzailearen izaera duenak esportatutako edo bidalitako ondasun-emateak, edo horien izenean eta kontura diharduen beste pertsona batek.

   Horrelako kasuetan salbuespenaren baldintza ondasunak Elkartearen lurraldetik egiaz ateratzea izango da, ateratzea gertatu dela aduana legeriaren arabera froga daitekeenean egiaztaturik gelditzen delarik.

   Salbuespena aplikatu dela justifikatzearen ondoreetarako eskualdatzaileak edo esportatzailearen izaera duenak fakturen kopiak gorde beharko ditu Administrazioaren eskura, zergaren preskripzio-epeak irauten duen bitartean; halaber, kontratuak edo eskaera-oharrak, garraio-agiriak, ondasunen irteeraren egiaztagiriak eta eragiketaren gainerako egiaztagiriak gorde beharko ditu.

   2.a. Zerga aplikatzen den lurraldean kokatuta ez dagoen eskuratzaileak edo esportatzaile gisa diharduenak esportatutako edo bidalitako ondasunen emateak, aduana-araudian xedatutakoarekin bat ezarri gabeko eskuratzailea ez bada, edo aurrekoen izenean eta kontura diharduen beste pertsona bat, honako kasu hauetan:

   A) Merkataritza araubidean egiten diren emateak.

      Ematen diren ondasunek merkataritzako espedizioa osatzen dutenean, honako betekizunak kunplitu beharko dira salbuespena egiteko:

      a) Aurreko zenbakian ezarritakoak.

b) Hurrengo 3. zenbakiko laugarren lerroaldeko d) letran xedatutakoaren kalterik gabe, ondasunak eskura jarri eta hilabeteko epean eramango dira aduanara eta bertan eskuratzaileak aduanako esportazio agiria aurkeztuko du.

Agiri honetan, halaber, Batasunean ezarritako hornitzailearen izena jasoko da, eta horri dagokio, hala denean, esportatzaile izatea, identifikazio fiskaleko bere zenbakiarekin eta hark jaulkitako fakturaren erreferentziarekin; eskuratzaileak irteerako aduanak izapidetutako dokumentuaren kopia bidali beharko dio hornitzaile horri.

Aurreko baldintzak, hala badagokio, esportatzaile izaera duenak bete beharko ditu, aduana-araudian xedatutakoarekin bat, eta pertsona hori ez da zerga aplikatzen den lurraldean ezarri gabeko eskuratzailea izango.

B) Bidaiari araubidean egiten diren emateak.

Zergari buruzko Legeak emate horien salbuespenerako ezartzen diren betekizunak betetzea honako arau hauei lotuko zaie:

a) Salbuespena bakarrik fakturan dokumentatutako ondasunak ematearekiko aplikatuko da.

b) Bidaiarien ohiko egoitza pasaporte, nortasun agiri edo zuzenbidean onartzen den beste froga moduren baten bidez egiaztatuko da.

c) Saltzaileak dagokion faktura egin beharko da, baita dirua itzultzeko dokumentu elektronikoa ere. Dokumentu hori Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren egoitza elektronikoan eskuragarri dago, eta bertan adieraziko dira eskuratutako ondasunak, eta bereiz dagokion zerga.

   Itzultzeko dokumentu elektronikoan bidaiariaren jaioteguna eta pasaportearen zenbakia edo, hala badagokio, nortasun agiriaren zenbakia.

d) Ematea egiten den hila amaitu eta hiru hilabete igaro baino lehen atera beharko dira ondasunak Elkartearen lurraldetik.

   Horretarako, bidaiarik esportazio aduanan ondasunak aurkeztuko ditu, eta esportazio aduanak egiaztatuko du irteera itzultzeko dokumentu elektronikoan bisa eginez. Bisa bitarteko elektronikoez baliaturik egingo da, esportazio aduana zergaren aplikazio lurraldean kokatua dagoenean.

e) Bidaiariak aduanaren bisa daukan itzultzeko dokumentu elektronikoa hornitzaileari bidaliko dio, eta aduanak hamabost eguneko epean jasanarazitako kuota itzuliko dio txeke batez bidez , banku transferentzia bidez, kreditu txartelean ordainduz edo ordainketa egiaztatzea ahalbidetzen duen beste modu baten bidez.

   Zerga Administrazioko Estatu Agentziak baimendutako erakunde laguntzaileen bidez ere itzuli ahal izango da zerga, eta Ogasun eta Herri Administrazioko ministroari egokituko zaio erabakitzea zer baldintza bete beharko dituzten erakunde horien lanak eta beren komisioen zenbatekoak.

   Bidaiariek aduanaren bisa daukan itzultzeko dokumentu elektronikoa aurkeztuko die arestian aipatutako erakundeei, eta erakunde horiek dagokion zenbatekoa ordainduko dute, betiere bidaiariaren adostasuna jasota geratuko da.

   Geroago, arestian aipatutako erakundeek itzultzeko dokumentu elektronikoak bidaliko dizkiete (formatu elektronikoan) hornitzaileei, eta horiek dirua itzuli beharko dute.

Hornitzaileak edo, hala badagokio, elkarlanean ari diren erakundeak itzultzeko dokumentu elektronikoaren bisa egiaztatu beharko du Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren egoitza elektronikoan , eta elektronikoki jasota utzi beharko dute dirua itzuli egin dela.

C) Zergarik gabeko dendetan egiten diren emateak.

Ondasun emate horiek salbuesteko baldintza bidaiaria berehala irtetea da. Garraio txartelarekin egiaztatuko da hori.

3.a. Esportatzeko diren ondasun higigarrien gainean egiten diren lanak.

Zergaren Legearen 24.Bat.3.g) artikuluan ezarritakoa gorabehera, salbuetsita daude xede horrekin eskuratutako edo inportatutako ondasun higigarrien gainean egindako lanak, baldin eta lan horiek egin dituenak edo zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta ez dagoen hartzaileak Batasunetik kanpora esportatu edo garraiatzen baditu edo eragiketa horiek aduana-araudian xedatutakoaren arabera esportatzaile izaera duen beste pertsona batek, edo horietako edozeinen izenean eta kontura diharduen beste pertsona batek egiten baditu.

Lan horiek ondasunak hobetzeko, eraldatzeko, mantentzeko edo konpontzekoak izan daitezke, eta edozein jatorri duten beste ondasunak erantsi dakizkieke lanak egiterakoan, eta hala ere ondasunak ez dira sartu beharko Legearen 24. artikuluan aipatutako aduana araubideetan.

Aldi baterako inportazioko aduana araubidean dauden ondasunetan egiten diren lanak ez ditu hartzen zenbaki honetako salbuespenak, berdin delarik salbuespen osoa edo zati batekoa izatea bai inportazio eskubideei, bai aldi baterako inportazioaren zerga araubideari dagokionez.

Lanak salbuesteko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Idatz-zati honetako 2. zenbakian ezarritakoak. Zergaren aplikazio lurraldean establezimendurik ez duen lanen hartzaileak edo lanen emaileak bete beharko ditu baldintza horiek, kasuaren arabera.

b) Zergaren aplikazio lurraldean establezimendurik ez duten pertsonek edo haien izenean eta kontura dihardutenek erosi edo inportatu ahalko dituzte ondasunak, horietan lan jakinak egiteko.

c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako Zergaren aplikazio lurraldean establezimendurik ez duten eskuratzaile edo inportatzaileen pentzura egingo dira lanak.

d) Lanak egin behar dituenak ondasunak jaso eta hurrengo sei hilabeteko epean burutuko ditu lanak. Ondasunak jaso izanaren agiria igorriko dio Zergaren aplikazio lurraldean establezimendurik ez duen ondasun-erosleari, edo, egoki denean, hornitzaileari.

   Aurreko lerroaldean aipatutako epea luzatu egin daiteke, interesatuak hala eskatuz gero, lanak burutzeko beste. Eskabidea Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren Aduana eta Zerga Berezien Sailari aurkeztuko zaio eta hark epea luzatzeko baimena emango du, egin beharreko lanen ezaugarriak kontuan harturik bidezkoa irizten badio. Eskabidea aurkeztu eta hurrengo hilabetean Administrazioak erantzuten ez badu, epea luzatzeko baimena eman duela ulertuko da.

e) Behin lanak amaiturik, ondasunak hilabeteko epean bidali behar dira aduanara esportatu daitezen.

Esportazioa lanen hartzaileak edo lan horien emaileak egin beharko du, edo, bestela, aduana-araudian xedatutakoarekin bat aurrekoak ez diren eta esportatzaile-izaera duten pertsonek, eta esportazio-agirian Batasunean ezarritako hornitzailearen identifikazioa eta hark egindako fakturaren erreferentzia jasoko dira.

Lan hori hirugarren batek ere egin ahal izango du, aurrekoetako edozeinen izenean eta kontura.

f) Finkatuta edo ezarrita ez dagoen hartzaileak edo, hala badagokio, lanen emaileak, edo, aduana-araudian xedatutakoarekin bat esportatzaile izaera duen beste pertsona batek, irteera-aduanak izapidetutako esportazio-agiriaren kopia bidali beharko dio ondasunen hornitzaileari.

4.a. Ondasunak Erakunde aintzatetsiei ematea horiek gero esporta ditzaten.

Salbuespen honen ondoreetarako, gizaldezko, ongintzako edo hezkuntzako jardueretan aritzen diren erakundeak halakoak direla ofizialki aitortzea Zerga Administrazioaren Estatu Agentziako Kudeaketa Sailari dagokio, Erakundeen eskariz, eta Ministerio-sail eskudunak txostena egin ondoren. Txosten horretan Erakundeek irabazteko xederik ez dutela egiaztatuko da.

Emate horiek direla eta, atal honetako 1. zenbakian ezarritakoa ere aplika dakieke.

Ondasunak Erkidegotik kanpo esportatzen badira, eroste-datatik hurrengo hiru hilabeteren buruan gauzatu beharko da edo eskaera egin ostean, epe luzeagoan, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziak baimentzen badu. Erakunde baimenduak hornitzaileari irteera-dokumentuaren kopia bidali beharko dio egin eta hurrengo hamabost eguneko epean.

5.a. Esportazioekin zuzeneko erlazioa duten zerbitzuak.

A) Honako betekizunak kunplitzen dituzten zerbitzuek esportazioekin zuzeneko erlazioa dutela ulertuko da:

a) Zerbitzuak, esportazioak edo ondasunen bidalketak egiten dituztenei, horien erosleei, edo batzuen edo besteen kontura jarduten duten bitartekariei edo aduana-ordezkariei.

b) Zerbitzuak esportazio horiek egiten direlako ematea.

c) Zerbitzuak ondasunak Elkartetik kanpo dagoen leku batera bidaltzen diren unean edo, bestela, Elkartetik kanpora berehala garraiatu baino lehen, kargak elkartzeko edo sendotzeko eragiketak burutu ditzaten, itsas portu, aireportu edo mugako alderen batean dagoen leku batera eramaten diren unean egitea, nahiz eta beste leku batzuetan eskalak egin helmugara aurretik.

Letra honetan azaltzen den baldintza ez da eskatuko bidalketa egin aurretik nahitaez bete behar diren zerbitzuengatik, hau da, garraiobideak alokatzeko, kargak enbalatzeko eta egokitzeko, hartzaileek merkatugaiak aztertzeko eta antzeko besteren batzuk betetzen dituzten zerbitzuengatik.

B) Ondoren azaltzen diren betekizunak kunplitzeak zenbaki honetako salbuespenak baldintzatuko ditu:

a) Ondasunek hiru hilabeteko epean irten beharko dute Elkartetik, epe hori zerbitzua eman den egunetik aurrera kontaturik.

b) Ondasunen irteera Zuzenbidean onartutako frogatzeko edozein bidez justifikatuko da.

c) Irteera egiaztatzen duten dokumentuak, hala badagokio, zerbitzuaren emaileari bidali beharko zaizkio, ondasunen irteera-dataren hurrengo hiru hilabeteetan.

C) Zenbaki honetan sartzen diren zerbitzuen artean honako hauek egongo dira: ondasunen garraioa; karga, deskarga eta mantentzea; zainketa, biltegiratzea eta enbalatzea; garraiabideak alokatzea; edukiontziak eta merkatugaiak babesteko materialak eta antzeko beste batzuk.

2. Lehenengo idatz-zatian ezarritako betekizunak bete ezik, subjektu pasiboak zerga likidatu egin beharko du eta egin diren eragiketen hartzaileari jasanarazi beharko dio.

**10. artikulua. Esportazioei berdinetsiriko eragiketetan egiten diren salbuespenak.**

1. Itsasontzi eta aireontziekin erlazionatutako eragiketen salbuespenak, bai eta batzuei eta besteei atxiki zaizkien objektuak eta garraiabide horien hornidurak ere, honako betekizunak kunplitzeak baldintzatuko du:

1.a. Garraiabideen eskualdatzaileek, ondasunen hornitzaileek edo Zergari buruzko Legearen 22. artikuluko lehenengo zazpi idatz-zatietan aipatzen diren zerbitzuak egiten dituztenek eduki beharko dute kasuari dagokion fakturaren kopia, eta, hala dagokionean, ontziratze edo alokatze kontratuak eta itsasontzi edo aireontzia Matrikula Erregistroan erregistraturik dagoela agertzen duen agiriaren kopia baimendua, Zergari buruzko Legearen 22. artikuluko lehenengo lau idatz-zatietan aipatutako xedeetarako erabil daitezkeela egiaztatzeko.

Halaber, aurreko idatz-zatian aipatu diren pertsonek aitorpena eskatu beharko diete ondasunen eskuratzaileei edo zerbitzuen hartzaileei. Bertan salbuespena egitea bidezkotzen duen ondasunen xede edo destinoa azalduko da eta jasotzaile edo hartzaileek izenpetuko dute.

Itsasontzia edo aireontzia eraikitzeko kasuan, hartzaileak eskualdatzaileari matrikulazioaren kopia baimendua eman beharko dio hilabeteko epean, idatz-zati honetan aipatutako erregistroan inskripzioa egiten den egunetik kontatzen hasita.

2.a. Itsasontzia edo aireontzia eraikita dagoela ulertuko da aurreko idatz-zatian aipatutako erregistroan matrikulazioa egiten den unean.

3.a. Itsasontzia edo aireontzia eraldatua izan dela ulertuko da hartan egindako lanen kontraprestazioak ontziak ontziolan edo tailerrean horretarako sartu zen unean zuen balioaren %50 gainditzen badu.

Balio hori zehazteko, aduanako legeriak inportaziorako merkatugaiek aduanan duten balioa zein den jakiteko dituen arauak erabiliko dira.

4.a. ...

5.a. Itsasontzia erosi eta hurrengo hiru hilabeteko epean sartu beharko dira objektuak itsasontzietan, eta hornitzaileak sarrera hori egiaztatu beharko du dagokion aduanako ontziratze-dokumentuaren bidez. Hala badagokio, garraiobideen ustiapenaren jabeak dokumentu horren kopia bidaliko beharko dio objektuen hornitzaileari, objektuak ontzian sartu eta hurrengo hamabost egunetan

Itsasontzi edo aireontzietan objektu berririk jartzekotan, objektuok erosi eta urtebeteko epean jarri beharko dira, eta aurreko lerroaldean ezarritako gainerako baldintzak bete beharko dira.

Aurreko lerroaldeetan aipatutako epeak luzatu egin daitezke, interesatuak eskaturik, ezinbestean, edo ezusteko zioak sortzen direnean, edo objektuak landu eta eraldatzeko prozesu teknikoak hala behar duenean.

Itsasontzi edo aireontzietan jarri eta salbuespena izan dezaketen gauzen artean ontzietan eskuarki erabiltzen diren edo ontziak ustiatzeko behar diren ondasun, elementu edo parte guztiak daude, baita haietatik bereizi ezin direnak edo haietan finko ezartzen direnak ere.

Bereziki, segidan aipatzen direnak dira horrelakoak: ontziko aparailu eta tresnak, lanabes guztiak, ontziko altzari eta apaingarriak eta arrantzan erabiltzen diren tresnak, lanabesak, materialak eta sareak, hau da, beita, amuak, amu-hariak, arraina jartzeko kaxak eta beste.

Gauza horiek guztiak ontzi edo aireontzi barruari benetan atxiki edo haietan egon behar dira eta haren edukien zerrendan agertuko dira. Itsasontzi edo aireontzietan jarri eta Zergaren salbuespena jaso duten gauzek untzi barruan egon beharko dute, salbu eta gauza horiek jartzea zergaren ondoreetatik salbuesteko bete behar diren helburuak betetzen dituen beste ontzi batera aldatzen badira.

Itsasontzi edo aireontziak 1. idatz-zatian aipatutako Erregistroan matrikulatu ondoren haietan jartzen diren objektuei baino ez zaie salbuespena aplikatuko.

6.a. Hornitzaileak egiaztatu beharko du itsasontzien eta aireontzien barruan zuzkidura-produktuak sartu izana, dagokion aduanako ontziratze-dokumentuaren bidez. Hala badagokio, aipatu garraiobideen ustiapenaren titularrak dokumentu horren kopia bidali beharko dio produktu horien hornitzaileei, produktuak entregatzen den eguneti hasi hilabete bateko epean.

Hala ere, Ogasun eta Herri Administrazioko ministroak prozedura erraztuak ezarri ahal izango ditu, aurreko paragrafoan aipatutako zuzkidura-produktuen ontziratzea egiaztatzeko.

7.a. Aireontzien erabilera gainontzekoei errentan edo azpierrentan lagatzen bazaie eta errentamentu aldia, oro har, egutegiko urtean hogeita hamar egunetik gorakoa ez bada, aireontzia merkatugaiak edo bidaiariak diru trukean garraiatzeko baino ez dela erabiltzen uste izango da, eta beraz, baldintza hori betetzat joko da.

2. Salbuestea bidezko egiten duten helburuetarako, itsasontzi eta aireontzien zuzeneko premiei erantzuteko burutzen diren zerbitzuen artean honako hauek daudela ulertuko da:

a) Itsasontziei dagokienez: kai-gidaritza, atoi eta amarratze zerbitzuak; portuko instalazioak erabiltzea; itsasontziak eta ontzi barruko materialak artatzeko lanak, esate baterako, desinfektatzea, zomorro-galketa, arratoi-galketa eta sotoen garbiketa; suterik ez gertatzeko zainketa eta aurre hartze zerbitzuak; segurtasun ikustaldiak eta perituen lan teknikoak; itsasontziari laguntza ematea eta salbamendua eta portuko artekeriek, interpreteek, kontsignaziodunek eta itsas agenteek beren lanbidearen jardunean egiten dituzten lanak.

b) Itsasontzien zamari dagokionez: ontzia kargatzeko eta deskargatzeko lanak; edukiontziak eta merkatugaiak babesteko materiala alokatzea; merkatugaiak zaintzea; merkatugaien bagoiak kaiko trenbideetan geldialdiak egitea eta mugiaraztea; bidaiariak eta bidaiarien fardelak ontziratzea eta lehorreratzea; bidaiariak eta fardelak ontziratzeko eta lehorreratzeko erabiltzen diren materialak, makineria eta tresneria alokatzea; abere eta landare osasuneko azterketak eta Esportazioak Ikuskatzeko, Zaintzeko eta Arautzeko Zerbitzu Ofizialaren azterketak.

c) Aireontziei dagokienez: lurreratzearen eta aireratzearen inguruko zerbitzuak; argi zerbitzuak erabiltzea; aireontzien estazionamendua, amarratzea eta babesean gordetzea; bidaiariak edo merkatugaiak hartzeko prestatutako instalazioak erabiltzea; aireontziak hornitzeko instalazioak erabiltzea; aireontziak eta aireontzi barruan dauden material eta tresnak garbitzea, kontserbatzea eta konpontzea; suterik ez gertatzeko zainketa eta aurre hartzea; segurtasun ikustaldiak eta perituen lan teknikoak;

aireontzien salbamendua eta aireontzien agente eta kontsignaziodunek beren lanbidearen jardunean egiten dituzten lanak.

d) Aireontzien zamari dagokionez: bidaiariak eta bidaiarien fardelak ontziratzeko eta lurreratzeko lanak; areontziak kargatu eta deskargatu; bidaiarien beharrei erantzutea; bidaiariak eta fardelak erregistratzea; zirkulazio seinaleak bidali eta jasotzea; posta bidalketa lekualdatu eta eramatea; airezko zirkulaziorako beharrezko diren eta aireportuen barruan erabiltzen diren material eta tresnak alokatzea; edukiontziak eta merkatugaiak babesteko materialak alokatzea; merkatugaiak zaintzea; abere eta landare osasuneko azterketak eta Esportazioak Ikuskatzeko, Zaintzeko eta Arautzeko Zerbitzu Ofizialaren azterketak.

3. Bidaiariak eta haien fardelk itsasoz zein airez eramaten dituzten nazioarteko garraioak zergaren ondorioetatik salbuesteko honako baldintzoi lotuko zaizkie:

1.a. Zergaren aplikazio esparrutik kanpo dauden lurraldeetan eskala egiten duten joan-etorriko garraioak salbuetsiko dira.

2.a. Penintsulako lurraldean edo Balear uharteetan abiatu eta bidaia lurralde horietan amaitzen duten bidaiari eta fardelen garraioak ez dira salbuetsiko, nahiz eta itsasontzi edo hegazkinak bidaia lurralde horietatik kanpo dauden beste portu edo aireportu batzuetarantz segitu.

4. ...

5. ...

6. ...

7. ...

8. ...

## III. KAPITULUA
## ZENBAIT EREMURI ETA BALIOGABETZEKO ARAUBIDERI DAGOZKION ERAGIKETAK

### 11. artikulua. Aldi baterako gordailutze-egoerari buruzko salbuespenak.

1. Aldi baterako gordetze-egoeran dauden ondasunen entregak eta, era berean, ondasun horiei dagozkien zerbitzu-prestazioak salbuetsita egongo dira, aduana-legeriarekin bat ondasunak egoera horretan dauden bitartean.

2. Ondasunen eskuratzaileak edo zerbitzuen hartzaileak berak sinatutako adierazpena eman beharko dio eskualdatzaileari edo zerbitzu-emaileari; agiri horretan salbuespena justifikatzen duen ondasunen egoera adieraziko du.

   Ondorio horietarako, eskuratzaileak edo hartzaileak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen formularioa erabili ahal izango du.

### 12. artikulua. Aduana- eta zerga-erregimenei buruzko salbuespenak.

1. Ondasun emate edo zerbitzugintzen salbuespenek, Zergari buruzko Legearen 24. artikuluan ezarri diren araubideei loturik daudenean (aduanaz besteko gordailu-araubidea salbu), honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1.a. Aduana edo zerga araubidearen itzalpean burutzen diren prozesuetan erabili edo horietan iraun behar dute eragiketa horietan erabiltzen diren ondasunek. Hala dela egiaztatzeko, kasu bakoitzean aplikatu behar den aduana edo zerga legeriak adierazitako moduari jarraituko zaio.

2.a. Ondasunen erosleak edo zerbitzuen hartzaileak berak sinatutako aitorpen bat eman beharko dio zerbitzuaren transmitiitzaileari edo emaileari, non salbuespena egiaztatzen duen ondasunen egoera adierazten den.

Ondore hauetarako, eskuratzaileak edo jasotzaileak Zerga arloko Administrazioaren Estatuko Agentziaren egoitza elektronikoan horretarako beren beregi eskura dagoen formularioa erabili ahal izango dute.

2. Ondasun-emate edo zerbitzugintzen salbuespenek, aduanaz besteko gordailu-araubideari loturik daudenean, honako baldintza hau bete behar dute: eragiketa horietan erabiltzen diren ondasunak araubide horretan sartzekoak izatea edo dagoeneko araubide horren itzalpean egotea, Zergari buruzko Legearen 24. artikuluko bigarren idatz-zatian xedatutakoaren arabera.

## IV. KAPITULUA
## ELKARTE BARNEKO ERAGIKETAK

### 13. artikulua. Beste Estatu kide baterako ondasun emateei dagozkien salbuespenak.

1. Enpresari edo profesionari batek, destinoa beste Estatu kide bat izanik, egiten dituen ondasun emateak Zergaren ondoreetatik salbuetsiko dira Zergari buruzko Legearen 25. artikuluan agertzen diren baldintza eta betekizunak kunplitzen direnean.

2. Ondasunak destinoko Estatu kidera bidaltzen edo garraiatzen direla justifikatzeko, zuzenbidean onartzen den edozein modu erabil daiteke eta, bereziki, ondoren azaltzen den eran egin daiteke:

   1.a. Saltzaileak, edo beste batek haren ordez, egiten duenean, kasuari dagozkion garraio kontratu edo fakturen bidez. Garraiolariak emango ditu agiri horiek.

   2.a. Erosleak, edo beste batek haren ordez, egiten duenean, kasuari dagozkion garraio kontratu edo fakturen bidez. Garraiolariak emango ditu agiri horiek.

3. Eskuratzaileak saltzaileari eman behar dion identifikazio fiskalaren zenbakiaren bidez egiaztatuko du bere izaera.

4. Zergari buruzko Legearen 9. artikuluko 3. zenbakian azaltzen diren ondasun eskuraketen kasuan, eskuraketak burutzen dituen enpresari edo profesionalak honako puntuak justifikatzeko baldintza bete beharko du:

   1.a. Ondasunak destinoko Estatu kidera bidaltzea edo garraiatzea.

   2.a. Destinoko Estatu kidean Elkarte barneko ondasun eskuraketei dagokien karga.

   3.a. Destinoko Estatu kideak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako identifikazio zenbakia eman diola.

## V. KAPITULUA
## ONDASUN INPORTAZIOAK

### 14. artikulua. Barnean ematen direnean Zergari loturik ez dauden ondasunen inportazioak.

1. Itsasontziak, aireontziak, horietan jarri diren objektuak eta garraiabide horien horniketarako gaiak inportatzeari dagozkion salbuespenek, Zergari buruzko Legearen 27. artikuluan aipatutakoek, honako baldintzak bete beharko dituzte:

   1.a. Inportatzaileak, ondasunak bidaltzeko behar diren agiriekin batera, ondasunek salbuesteko bete behar dituzten helburuak beteko dituztela dioen aitorpena izenpetu eta aduanan aurkeztu beharko du.

Era berean, inportatzaileek fakturak, aduanako inportazio agiriak eta, hala behar denean, ontziratzeko edo alokatzeko kontratuak eta itsasontziak eta aireontziak dagozkien matrikula erregistroetan inskribaturik daudela adierazten duten baimendun kopiak eduki beharko ditu Zerga indarraldian dagoen bitartean.

2.a. Inportatutako objektuak hiru hilabeteko epean jarri beharko dira itsasontzietan inportazioaren egunetik kontaturik. Jarri egin direla kasuari dagokion aduanako ontziratze agiriaren bidez egiaztatuko da. Agiri hori inportatzaileak eduki beharko du inportazioaren frogagiri gisa.

Inportatutako objektuak urtebeteko epean jarri beharko dira aireontzietan inportazioaren egunetik kontaturik, eta aurreko lerroaldean azaldu den bezalaxe egiaztatuko da objektu horiek jarri izana.

Itsasontzi eta aireontzietan jarrita salbuespena eragin dezaketen objektu inportatuak Araudi honen 10. artikuluko 1. idatz-zatiko 5. zenbakian adierazitakoak dira, baina objektuok egoki den erregistroan matrikulatu behar dira itsasontzi edo aireontzietan jarri aurretik, bestela ez baitute salbuespenik izango.

3.a. tsasontzi eta aireontzietan inportatzen diren hornidura gaiei dagokienez, aduanako legeriak ematen dituen aginduak bete beharko dira.

Bereizirik inportatu eta Araudi honen 11. artikuluan aipatzen diren eremuetan sartzen ez direnak hiru hilabeteko epean jarri beharko dira itsasontzi eta aireontzien barruan inportazioaren egunetik kontaturik. Hala egin dela kasuari dagokion aduanako ontziratze agiriaren bidez egiaztatuko da. Agiri hori inportatzaileak eduki beharko du inportazioaren frogagiri gisa.

2. Zulaketa edo ustiapen plataformetarako diren ondasun inportazioei, Zergari buruzko Legearen 27. artikuluko 11. zenbakian aipatutakoei, dagokienez, inportatzaileak, aduanako bidalketa agiriekin batera, zein den ondasunak salbuesteko arrazoia dioen adierazpena izenpetu eta aurkeztu beharko du. Agiri hori salbuespenaren frogagiri gisa gorde beharko du inportatzaileak.

3. Geroago beste Estatu kide batera eramateko diren ondasunen inportazioei dagokien zerga salbuespenak honako baldintzak bete beharko ditu:

1.a. Inportatzaileak edo, bestela, haren izenean eta kontura jarduten duen ordezkari fiskal batek, inportazioko aduanari  Espainiako zerga administrazioak emandako identifikazioko zenbakia jakinarazi izana balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako

2.a. Inportatzaileak edo, bestela, haren izenean eta kontura jarduten duen ordezkari fiskal batek, inportazioko aduanari EBko beste estatu kide batek emandako hurrengo entregaren hartzailearen identifikazioko zenbakia jakinarazi izana balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

3.a. Inportatzailea edo, bestela, haren izenean eta kontura jarduten duen ordezkari fiskal bat, garraiatzeko agiri egokietan salgaien kontsignatario gisa ageri den pertsona izatea.

4.a. Xedeko Estatu kiderako espedizioa edo garraioa inportazioa egin eta berehala egitea.

5.a. Inportazioaren hurrengo entrega Zergatik salbuetsita geratzea Lege araupetzailearen 25. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

### 15. artikulua. Ondasun pertsonalen inportazioak.

Ondasun pertsonalen inportazioei dagozkien salbuespenei buruz, honako arauak aplikatuko dira:

1.a. Negozio zein oporrengatik edo turismo zein gaisotasunagatik berrogeita hamar egunekoa baino laburragoa den kanpoaldi batek ez ditu etengo Elkartetik kanpoko ohizko bizileku jarraikorraren gutxieneko epeak.

Zergaren aplikazio lurraldean unibertsitate edo eskola batera ikasketak egitera joateak ez dakar berarekin ohizko egoitzaren lekualdaketa.

2.a. Doakienek inportatu behar diren ondasunen zerrenda zehatza, Elkartetik kanpoan duten ohizko bizilekuan baja eman dutela egiaztatzeko agiria eta, hala behar denean, aurreko bizilekuan emandako aldiari buruzko egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte inportazioa egiteko unean.

Doakionak atzerriko nazionalitatea izanez gero, Espainiako penintsulako lurraldean edo Baleare uharteetan bizi dela frogatzen duen egoitza agiria edo eskatu duelako frogagiria ere aurkeztu beharko du. Azken kasu horretan egoitza agiria lortzeko urte beteko epea izango du bermea eman ondoren.

3.a. Ondasunen inportazioa aldi batean edo gehiagotan burutu daiteke eta aduana batean edo gehiagotan zehar.

4.a. Ondasunak jaraunspenen bategatik inportatzen direnean, inportatzaileak eskualdaketa egiaztatu beharko du eskribauaren aurrean emandako eskritura publiko baten bidez edo zuzenbidean onartzen den edozein modu erabiliz.

### 16. artikulua. Jatorriko lurraldean enpresa jarduerak uzteagatik egin beharreko ondasun inportazioak.

Jatorriko lurraldean enpresa jarduerak utzi direlako egin behar diren ondasun inportazioak Zergaren ondoreetatik salbuetsiko dira Zergari buruzko Legearen 37. artikuluak ezartzen dituen baldintzekin.

Zein zen jatorriko lurraldean burutzen den jarduera, ondasunen erabilera aldia eta jarduera utzi den eguna egiaztatu beharko dira zuzenbidean onartzen den edozein frogagiriz baliatuz eta, bereziki, kasua dagokion estatuaren Administrazioak emandako ziurtagiri baten bidez.

Salbueste honen ondoreetarako, inportatu diren ondasunak funtsean zerga hau araupetzen duen Legearen 20. artikuluan esandakoaren arabera salbuesten diren eragiketak burutzerako ez direla ulertuko da ondasunen inportatzaileak Zergaren aplikazio lurraldean egiten dituen jarduerei buruzko hainbanaketa %90ekoa edo handiagoa denean.

### 17. artikulua. Administrazioaren baimena behar duten salbuespenak.

Zergari buruzko Legearen 40, 41, 42, 44, 45, 46, 49, 54 eta 58. artikuluetan aipatzen diren ondasunen inportazioak salbuesteko behar diren administrazio baimenak inportatzailearen egoitza fiskala dagoen lurralde esparruan Estatuko Tributu Administrazioak daukan Ordezkaritzan edo Administrazioan eskatuko dira eta kasuari dagokion erabakiaren egunetik aurrera edo, hala denean, bertan seinalatzen den egunetik aurrera zerga jartzen zaien inportazioetan eragina izango dute.

Baimena emateko arrazoiak aldatzen baldin badira edo araudiak horretarako dauden baldintzetan aldaketaren bat egiten badu, inportazioak salbuesteko baimenak ezerezten direla ulertuko da.

### 18. artikulua. Zergari loturik ez dauden ondasun esportatuak inportatzea.

1. Zergari loturik ez dauden ondasun esportatuak inportatzeak honako betekizunak kunplitu beharko ditu:

    1.a. Esportazioa Zergaren aplikazio lurraldean egindako emate baten ondorea ez izatea.

Betekizun hori kunplitzen dela ulertuko da baldin eta ondasunak, estatu barnean emate baten objektua izanik ere, hara itzultzen badira honako arrazoiren bat dela eta:

a) Hartzaileak akatsik dutelako edo eskaeraren baldintzei lotzen ez zaizkielako ez baditu onartzen.

b) Esportatzaileak ordaindu ez diotelako edo ondasunen hartzaileak edo erosleak kontratuaren baldintzak bete ez dituelako berriz eskuratu baditu.

2.a. Aurretik ondasunak elkartekide ez den estatu edo herrialderen batera aldibaterako esportatuak izatea.

3.a. Ondasunak Elkartetik kanpoan emate baten objektua ez izatea.

4.a. Ondasunen esportazioa egiteko administrazio baimena jaso zuen pertsona berak egin behar du ondasun esportatuen inportazioa.

5.a. Ondasunak esportatzerakoan zuten egoera berean itzultzea. Administrazioak baimendutako erabileraren batek eragin diezaiekeen hondaketa baino ezin izango du agertu, Elkartearen lurraldeaz kanpo irabazteko asmoz egiten diren lanen kasua barne.

Betekizun hori kunplitzen dela ulertuko da ondasun esportatuak Elkartetik kanpoan landu edo konpontzen badira honako kasu hauetan:

a) Bai kontratuaren baldintza edo bermearen legezko betekizunak hala eskaturik, bai ekoizpen akats baten ondorioz, lan edo konponketa horiek dohainik egiten direnean.

b) Itsasontzi edo aireontzietan egiten direnean, ontzi horien emate edo inportazioa Zergari buruzko Legearen 22. eta 27. artikuluetan ezarritakoaren arabera Zergari loturik ez daudenean.

6.a. Esportatutako ondasunen itzulketa inportazio eskubideetarako salbuespena izatea edo eskubide horiei loturik ez egotea.

2. Esportazioen itzulketen artean sartuko dira Zergaren aplikazio lurraldetik kanpo hondoratu edo istripuz suntsitu diren itsasontzi nazionalen hondakin eta hondarrei dagozkienak, itsasontzia hondoratu edo istripu izan duela eta ondasunak benetan hondamendia izandako itsasontzienak direla frogatzen duten agiriak aurkeztu eta gero.

### 19. artikulua. Inportazioekin loturiko zerbitzugintzak.

Zergaren legearen 64. artikuluak aipatzen dituen inportazioekin lotutako zerbitzuen salbuespena Zuzenbidean onartutako frogatzeko edozein bidez justifikatuko da.

Bereziki, inportazioko administrazio-dokumentu bakarraren kopia bat emanez egin ahal izango da egiaztapen hori, egiaztapen-kode seguruarekin eta zerbitzuaren balioa hartan deklaratutako zerga-oinarrian sartu dela egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera.

Artikulu honetan aipatzen diren agiriak, hala behar denean, zerbitzu emaileari bidaliko zaizkio zerbitzua burutu eta hiru hilabete igaro baino lehen. Dagokion zerga, bestela, zerbitzu emaileak likidatu beharko du eta harengan izango du eragina.

### 20. artikulua. Aduanakoak ez diren gordailuen araubideari lotzen zaizkion ondasunen inportazioak.

Aduanakoak ez diren gordailuen araubideari lotzen zaizkion inportazioen salbuespenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1.

1.a. Inportazioak kasu horiei aplikatzeko diren aduanako legedia eta legedi fiskala betez egitea.

2.a. Ondasunek araubide horri loturik irautea legedi fiskalean ezartzen diren baldintzen arabera.

3.a. Araubide horri loturik dauden ondasunak ez daitezela kontsumitu edo erabili haietan.

2. ...

**21. artikulua. Ondasunen inportazioengatik Zerga birritan ez ordaintzeko salbuespenak.**

Zergari buruzko Legearen 66. artikuluan agertzen diren salbuespenak aplikatzeko, inportatzaileak horretarako dauden legezko betekizunak kunplitzen direla egiaztatu beharko du zuzenbidean onartzen den edozein moduz eta, bereziki, aipatutako legezko arauan aipatzen diren eragiketei buruzko kontratuen bidez.

Aduanak nahikoa berme eska dezake harik eta ondasun emate edo zerbitzugintzei zein ondasun berresportazioari, Zergari buruzko Legearen 66. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan hurrenez hurren aipatuei, dagokien Zerga ordainduta dagoela egiaztatu arte.

## III. TITULUA
## ZERGA EGITATEAREN BURUTZAPEN LEKUA

**22. artikulua. Ondasunak ematean eta zerbitzuak eskaintzean zehatzak zergapetuak ez izatearen aukera.**

Zergari buruzko Legearen 68.Lau artikuluan jasotako ondasun-entregak eta Zergari buruzko Legearen 70.Bat.8. artikuluan aurreikusitako zerbitzu-prestazioak zerga aplikatzen den lurraldetik kanpo ordaintzea aukeratu duten enpresaburuek edo profesionalek, lege horren 73. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, egindako entregak eta zerbitzuak beste estatu batean aitortu direla justifikatu beharko dute zerga-administrazioaren aurrean, salbu eta eragiketa horiek Zergaren Legearen IX. tituluko XI. kapituluko 3. atalean aurreikusitako araubide bereziaren arabera tributatzen badute.

Justifikazio hori, bereziki, estatu kide horretan sortutako edo zordundutako BEZaren aitorpen-likidazioaren edo diru-sarreraren egiaztagiriak aurkeztuz egin ahal izango da.

Enpresaburuak edo profesionalak aukera horiek errepikatu beharko ditu egutegiko bi urte igaro ondoren; bestela, automatikoki baliogabetuko dira.

**23. artikulua. Eragiketa jakin batzuk kokatzeari buruzko arauak.**

1. Zergari buruzko legeko 69. artikuluko bigarren idatz zatiko c) letran aipatzen diren publizitate zerbitzuetan sartuko dira, orobat, publizitatearen gaia den produktuaren edo zerbitzuaren existentziaz eta ezaugarriez informatzeko mezu bat helarazten duten sustapen zerbitzuak.

   Ez da sustapen zerbitzu horietan sartzen hirugarren batzuentzat Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legeko 70.eko 1. atalaren artikuluko 7.eko c)letran aipatzen diren merkataritza arloko azoka eta erakusketak antolatzea.

2. Zergari buruzko Legearen 71. artikuluko bigarren idatz-zatian aipatutako ondasunen Elkarte barneko eskuraketen gaineko karga, halako ondasunak Estatu kideren batera igortzen edo garraiatzen direnean, Zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bitartez egiaztatu ahal izango da, eta, bereziki, ondasunok ageri diren zerga-aitorpenaren bitartez. Behar izanez gero, Administrazioari aitorpenaren banakapena emango zaio karga egiaztatu ahal izan dezan.

## III BIS TITULUA
## SORTZAPENA

### 23 bis artikulua. Sortzapena.

Zergari buruzko Legearen 75.Hiru eta 163 sexvicies artikuluetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, bezeroaren ordainketa onartutzat jotzen den unea zehazteko, Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 41 bis eta 61 ter artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da, hurrenez hurren. Erregelamendu horrek 2006/112/EE Zuzentaraua aplikatzeko xedapenak ezartzen ditu.

## IV. TITULUA
## ZERGA OINARRIA

### 24. artikulua. Zerga oinarriaren aldarazpena.

1. Zergaren Legearen 80. artikuluak aipatzen dituen kasuetan, subjektu pasiboak faktura berri bat egin beharko du eta eragiketen hartzaileari bidali beharko dio. Faktura horretan, jasandako kuota zuzenduko da edo, hala badakio, ezeztatuko da, fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduko 15. artikuluan aurreikusitako moduan (azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak onartu zuen Erregelamendu hori). Zergaren Legeko 80. artikuluko hirugarren ataleko ustezko kasuetan, faktura horren kopia bat egin beharko da eta konkurtso-administrazioari bidali beharko zaio epe berean

   Zerga-oinarriaren txikitzea edo, hala badagokio, eragiketaren hartzaileak kendu beharreko kuoten handitzea aurretik egindako faktura zuzentzen duen agiria egitearen eta bidaltzearen baldintzapean egongo dira. Zergari buruzko Legearen 80. artikuluko hirugarren eta laugarren atalen ustezkoetan, subjektu pasiboak bidali duela egiaztatu beharko du.

2. Zerga-oinarria aldatzea, zergapeko eragiketen hartzailearen konkurtsoa deklaratzeko auto judiziala ematen denean, edo zergapeko eragiketen hartzaile hori, prozedura horri dagokionez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren kaudimengabezia-prozedurei buruzko 2015eko maiatzaren 20ko 2015/848 (EB) Erregelamendua aplikagarria denean kaudimengabezia-prozedura batean sartuta dagoela deklaratzen denean eta, aldi berean, jasanarazitako kuotei dagozkien kredituak osorik edo zati batean kobraezinak diren gainerako kasuetan, ondoren ezartzen diren arauak beteko dira:

   a) Baldintza hauek bete behar dira zerga oinarria aldarazi ahal izateko:

      1.a. Hartzekodunak behar den garaian eta eran fakturatuta eta kontabilizatuta eduki behar ditu zerga oinarria zuzendu nahi zaien eragiketak.

      2.a. Hartzekodunak, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen formularioaren bidez, bide elektronikoz jakinarazi beharko du egindako zerga-oinarriaren aldaketa. Jakinarazpen hori hilabeteko epean egingo da, faktura zuzentzailea egiten den egunetik zenbatzen hasita eta bertan jasota utziko du aldaketa horrek ez diela eragiten bermatutako, fidantzatutako edo aseguratutako kredituei, lotutako pertsonen edo erakundeen arteko kredituei, ez eta zerga aplikatzen den lurraldean edo Kanarietan, Ceutan edo Melillan hartzailea ezarrita ez duten eragiketei ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren kaudimengabezia-prozedurei buruzko 2015eko maiatzaren 20ko 2015/848 (EB) Erregelamendua aplikatu behar zaienean lurralde horretan finkatuta ez dauden baina kaudimengabezia-prozedura batean dauden hartzaileak direnean izan ezik, Zergari buruzko Legearen 80. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta kreditu kobraezinen kasuan, zorduna konkurtsoan deklaratu ez denean, edo, hala badagokio, egindako zuzenketa-faktura konkurtsoa deklaratzeko autoaren edo 2015/848 (EB) Erregelamendua aplikatu behar zaion kaudimengabezia-prozedura irekitzeko ebazpenaren data baino lehenagokoa bada.

Jakinarazpen horri erantsita agiri hauek aurkeztu behar ditu, eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari bidali behar zaizkio erregistro elektronikoaren bidez:

a') Zuzentze-fakturen kopiak, aldarazitako fakturen emate egunak ageri dituztela.

b') Kreditu kobraezinen kasuan, hartzekodunak zordunari erreklamazio judiziala eginez edo notario-errekerimendua eginez edo zordunari kobratzeko erreklamazioa modu frogagarrian egiaztatzen duen beste edozein bide erabiliz kreditua kobratzeko eskatu duela egiaztatzen duten agiriak.

c') Erakunde publikoek zor dituzten kredituen kasuan, erakunde publiko zordunaren organo eskudunak jaulkitako ziurtagiria, Zergari buruzko Legearen 80. artikuluaren A) letraren 4. baldintzak ezartzen duena.

b) Eragiketaren hartzailea enpresaburua edo profesionala bada

1.a. Bide elektroniko bidez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren egoitza elektronikoan xede horretarako erabilgarri dagoen formularioa erabiliz, jakinarazi beharko du hartzekodunak bidali dizkion zuzenketa-fakturak jaso dituela, eta idatziz jasoko ditu fakturan sartutako zuzendutako zenbatekoen guztizkoa, hala badagokio, ez-kengarriena, hurrengo zenbakian aipatzen den aitorpen-likidazioa aurkezteko aurreikusita dagoen epe berean. Betebehar hori ez betetzea ez du eragotziko hartzekoduna zerga-oinarri aldatzea, baldin eta a) paragrafoan adierazitako betekizunak betetzen badira.

2.a. Aurreko zenbakian aipatzen den jakinarazpenaz gain, eragiketen zuzenketa-fakturak jaso diren aldiari dagokion aitorpen-likidazioan, aipatu hartzaileak zuzendutako zenbatekoen guztizkoa kendutako kuoten minorazio gisa jaso beharko du.

3.a. Zergaren Legearen 80.Hiru artikuluan aurreikusitako kasua bada, zuzendutako kuotak hauetan jaso beharko dira idatziz:

a') Jasandako kuotak deduzitzeko eskubidea erabili den aldiei dagozkien aitorpen-likidazioetan

b') Aurrekoaren salbuespen gisa, Erregelamendu honen 71.5. artikuluan araututako konkurtso-adierazpenaren aurreko zergapeko egitateei buruzko aitorpen-likidazioan, baldin eta

a'') Eragiketen hartzaileak ez balu zergaren guztizkoaren kenkarirako eskubiderik, eta kenkaria ez den zuzendutako kuotaren zatiarekin lotuta

b'') Eragiketen hartzaileak zerga deduzitzeko eskubidea balu, eta zuzentzen diren jasandako kuotak kentzeko eskubidea erabili den likidazio-aldiko zerga-zorra zehazteko Zerga Administrazioaren eskubidea baliogabe geratu bada

c'') Eragiketen hartzailea kaudimengabezia-prozedura batean sartuta dagoela deklaratuko da, eta prozedura horri Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren kaudimengabezia-prozedurei buruzko 2015eko maiatzaren 20ko 2015/848 (EB) Erregelamendua aplikatuko zaio.

4.a. Zuzenketa-fakturak jaso diren aldiari dagokion aitorpen-likidazioaren epe berean aurkeztu behar dira zuzenketa edo zuzenketak.

Eragiketen hartzailea konkurtsopean badago, aurreko zenbakietan aurreikusitako betebeharrak hartzaileari egokituko zaizkio edo konkurtso-administrazioari, hartzekodunak ezin badu, eskumenak kenduta dituelako eta, edonola ere, administrazio- eta xedatze-ahalmenak eten direlako.

c) Hartzailea enpresaburua edo profesionala ez denean, zerga-administrazioak hartzekodunak bidalitako faktura zuzenduak eska diezazkioke.

d) Hartzekodunen hitzarmena onesten bada ere, horrek ez du eraginik izango zerga oinarriari aurrez egindako aldakuntzan.

3. Ondasunen Elkarte barneko eskuraketetan, eskuratzaileak zerga berezien itzulketa lortzen badu ondasunen igorpen edo garraioaren abiaburu izandako Estatu kidean, zerga oinarriari haien zenbatekoa kenduko zaio, eta subjektu pasiboak agiri bat eman beharko du, jatorrizkoa zuzentzen duen fakturaren baliokidea, artikulu honetako 1. idatz-zatian adierazitako eran.

   Hala ere, ez da bidezkoa izango Araudi honen 78. artikuluan ageri diren Elkarte barneko eragiketen laburpen-aitorpenean agertarazten diren zenbatekoak aldatzea.

   Sortutako kuotaren zenbatekoaren aldakuntza agertarazi egingo da zuzentze-agiri baliokidea eman den zergaldiko aitorpen-likidazioan, salbu eta subjektu pasiboak berak jadanik osorik kendua duenean. Azken kasu horretan ezingo dira inola ere erregularizatu aitortutako datuak.

### 24 bis artikulua. Zerga-oinarria zenbait operaziotarako.

Operazioetan Zergari buruzko Legearen 79 artikuluko hamargarrenean xedatutakoarekin bat zerga-oinarria zehaztu behar bada, agindu horrek xedatzen dituen baldintzak elkartzea edo ez elkartzea idatzizko aitorpenaren bidez egiaztatu ahal izango da. Hartzaileak sinatu beharko du eta subjektu pasiboari bideratuko zaio. Bere erantzukizunpean jasoa utziko du urrea zergak salbuetsia erosi eta inportatu zela, Zergei buruzko Legeak 140 bis.bat.1. artikuluan xedatutakoa aplikatuz. Bestela, hala ez zela izan adierazi beharko da.

## IV BIS TITULUA
## SUBJEKTU PASIBOA

### 24 ter artikulua. Jasanarazpenari buruzko arau bereziak.

Zergari buruzko Legearen 84. artikuluko lehen idatz-zatiko 2. zenbakiko b) letran xedatutakoa dela-eta, landu gabeko urretzat edo urrezko ekoizkin erdilandutzat joko dira urrezko ekoizkin burutuak egiteko erabiltzen diren lehengaiak, esate baterako, urre lingoteak, xaflak, txapak, orriak, hagatxoak, hariak, zerrendak, tutuak, granailak, kateak, eta euren ageriko ezaugarriengatik azken kontsumorako izaten ez diren gainerakoak.

### 24. quater artikulua. Subjektu pasiboaren inbertsio-erregelen aplikazioa.

1. Zergaren Legeko 84. artikuluko 1. idatz-zatiko 2. zenbakiko e) letrako bigarren marratxoan aipatzen den entrega egiten duen enpresaburuak edo profesionalak berariaz eta dudarik gabe jakinarazi beharko dio erosleari egindako eragiketa bakoitzeko salbuespenari uko egiten diola.

   Zergaren Legearen 163 sexies artikuluaren bosgarren idatz-zatian xedatutakoa betetzeari utzi gabe, transmititzaileak aurreko paragrafoan aipatzen den ukoa bakarrik erosleak Araudi honen 8. artikuluko 1. atalean aipatzen den moduan subjektu pasiboaren baldintza egiaztatzen dionean egin dezake.

2. Zergaren Legeko 84. artikuluko bat idatz-zatiko 2. zenbakiko e) letrako hirugarren marratxoan aipatzen diren eragiketen hartzaileek berariaz eta dudarik gabe jakinarazi beharko diote entrega egiten duen enpresaburuari edo profesionalari enpresaburu edo profesional gisa jarduten ari direla eragiketa horiei dagokienez.

3. Zergaren Legeko 84. artikuluko bat idatz-zatiko 2. zenbakiko f) letrako lehen paragrafoan aipatzen diren eragiketen hartzaileek, hala badagokio, berariaz eta zalantzarik gabe

jakinarazi beharko dizkiote edo dizkiete egoera hauek kontratuak egiten dizkien kontratistari edo kontratuak egiten dizkieten kontratistei:

a) Eragiketa horiei dagokionez, enpresaburu edo profesional gisa jarduten ari direla.

b) Eragiketa horiek lursaila urbanizatzeko, edo eraikinak eraikitzeko edo birgaitzeko prozesu baten baitan egiten direla.

4. Zergaren Legeko 84. artikuluko bat idatz-zatiko 2. zenbakiko e) letrako bigarren paragrafoan aipatzen diren eragiketen hartzaileek, hala badagokio, berariaz eta zalantzarik gabe jakinarazi beharko diete kontratuak egiten dituzten azpikontratistei artikulu honen aurreko idatz-zatiaren b) letran aipatutako egoera.

5. Zergari buruzko legearen 84. artikuluko Bat zenbakiko 2. azpizenbakiko g) letrako bigarren eta hirugarren paragrafoetan aipatzen diren eragiketetako hartzaileek berariaz eta modu sinesgarrian jakinarazi beharko dizkiote honako inguruabar hauek, gertatuz gero, ematea egiten duen enpresaburu edo profesionalari:

a) Eragiketa horiei dagokienez enpresaburu edo profesional gisa dihardutela.

b) Eragiketa horiei dagokienez birsaltzaile gisa dihardutela. Hori frogatzeko, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren egoitza elektronikoaren bitartez beren-beregi luzatutako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, araudi honen 24 quinquies artikuluan aipatzen den hori.

6. Aurreko idatz-zatietan aipatzen diren jakinarazpenak aipatu eragiketak osatzen dituzten ondasunak edo zerbitzuak eskuratu baino lehen edo eskuratu bitartean egin beharko dira.

7. Aurreko idatz-zatietan aipatzen diren eragiketen hartzaileek beren erantzukizunpean egiaztatu ahal izango dute, entrega egiten duen edo zerbitzua ematen duen enpresaburuari edo profesionalari zuzendutako beraiek sinatutako idatzizko adierazpen baten bidez, baldintza hauek betetzen dituztela, kasu bakoitzean eta bidezkoa denean:

a) Eragiketa horiei dagokionez, enpresaburu edo profesional gisa jarduten ari direla.

b) Dagozkion ondasun higiezinen eskuratzeengatik jasandako zerga osoa edo zati bat kentzeko eskubidea dute.

c) Eragiketa horiek lursaila urbanizatzeko, edo eraikinak eraikitzeko edo birgaitzeko prozesu baten baitan egiten direla.

8. Zergaren Legearen 87. artikuluaren bat idatz-zatian aurreikusitako baldintzak tartean badaude, aipatu hartzaileek dagokien zerga-zorra modu solidarioan ordainduko dute, era berean, Lege beraren 170. artikuluaren bi idatz-zatiaren 2., 6. eta 7. zenbakian xedatutakoa aplikatzeari utzi gabe.

**24 quinquies artikulua. Enpresaburu edo profesional birsaltzailearen kontzeptua eta betebeharrak.**

Zergaren Legearen 84. artikuluak, bat atalak, 2 zenbakiak, g) hizkiak, bigarren eta hirugarren gidoiek xedatzen dutenerako, birsaltzaileak ohiz erositako ondasunak, eragiketetan aipatutakoak, birsaltzen dituzten enpresaburuak edo profesionalak izango dira.

Enpresaburu edo profesional birsaltzaileak Zerga Administrazioaren Estatuko Agentzian organo eskudunari jakinarazi beharko dio birsaltzailea dela. Horretarako, jarduerari ekiten dionean, errolda-aitorpena aurkeztu beharko du. Bestela, ondorioa izan behar duen urte naturala hasi baino lehen, azaroan jakinarazi beharko du.

Jakinarazpena hurrengo urteetarako luzatutzat joko da, baldintza hori galtzen ez den bitartean. Azkenekoa gertatuz gero, Zerga Administrazioari jakinarazi beharko zaio, aldaketaren errolda-aitorpenaren bitartez.

Enpresaburu edo profesional birsaltzaileak egiaztapen-kode seguruarekin ziurtagiria lor dezake. Xede horrez, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren egoitza elektronikora jo beharko du eta emate-datari dagokion urte naturalean baliozkoa izango da.

## V. TITULUA
## ZERGAREN JASANARAZPENA

### 25. artikulua. Jasanarazpenari buruzko arau bereziak.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 88. artikuluko lehenengo idatz-zatian xedatutakoari dagokionez, administrazio kontratuak egiteko ohartematen diren baldintza berezien zerrendetan berariaz jarriko du enpresariek egiten dituzten eskaintzek, kontrataren prezioaz gain, Zergaren zenbatekoa ere agertzen dutela ondore guztietarako.

2. ...

## VI. TITULUA
## ZERGA-TASAK

### 26. artikulua. Zerga-tasa txikitua.

Zergari buruzko Legearen 91. artikuluko bat.2 idatz-zatiko 10. zenbakian ezarritakoaren ondoreetarako, obren hartzaileak sinatu eta subjektu pasiboari zuzendutako aitorpen idatziaren bidez egiaztatu ahal dira inguruabar hauek: hartzaileak ez duela enpresari edo profesional gisa jardun, etxebizitzaren erabilera pribatua egiten duela, eta obrak hasi baino bi urte lehenago, guxienez, etxebizitzaren eraikuntza edo zaharberrikuntza amaitu zela. Obren hartzaileak bere erantzukizunpean agertaraziko ditu inguruabar horiek.

Zergaren Legearen 87. artikuluaren bat idatz-zatian aurreikusitako baldintzak tartean badaude, aipatu hartzaileak dagokien zerga-zorra modu solidarioan ordainduko du, era berean, Lege beraren 170. artikuluaren bi idatz-zatiaren 2. zenbakian xedatutakoa aplikatzeari utzi gabe.

### 26 bis artikulua. Zerga-tasa murriztua.

Bat. Zergari buruzko Legearen 91.bi.1.6 artikuluaren bigarren paragrafoan ezarritakoaren ondoreetarako, etxebizitzen emate zehatzekin zerikusia duena, jasotzaileak Sozietateen gaineko Zergari buruzko VII. tituluaren III. kapituluan ezarritako araubide berezia aplikatzeko duen eskubidearen inguruabarrei buruzkoa, azaroaren 27ko 27/2014 Legeak onetsi duena, bai eta horren osteko errendamenduaren ondoriozko errenten gain lege horretako 49.1 artikuluan ezarritako hobaria aplikatzeko aukerari buruzkoa ere, jasotzaile horrek sinatu eta subjektu pasiboari zuzendutako idatzizko adierazpenaren bidez egiaztatu ahal izango dira. Hain zuzen ere

Zergari buruzko Legearen 87.bat artikuluan aipatutako inguruabarrak gertatzen badira, jasotzaile horrek kasuan kasuko zerga-zorraren gaineko erantzukizun solidarioa izango du, era berean, lege bereko 170.bi.2 artikuluan xedatutakoaren aplikazioari kalterik egin gabe.

Bi.

1. Zergari buruzko Legearen 91.bi.1.4 artikuluaren bigarren paragrafoan ezarritakoa mugikortasun murriztua duten pertsonen edo gurpil-aulkian dauden ezgaien ohiko garraiorako ibilgailuen ematearen, erkidego barruan egindako eskuraketaren edo horien inportazioaren gain aplikatuko da, baldin eta ondoko betekizunak bete badira:

1.a. Gutxienez lau urte igarotzea, antzeko baldintzetan beste ibilgailu bat eskuratu denetik.

Hala ere, betekizun hori ez da beharrezkoa ibilgailuen erabateko ezbehar-kasuan, aseguru-erakundeak ziurtagiria ematen duenean edo ibilgailuen behin betiko baja egiaztatzen denean.

39/2006 Legeak, abenduaren 14koak, autonomia pertsonala sustatu eta mendekotasun egoeran dauden pertsonei arreta eskaintzeko denak, xedatutakoaren arabera, pertsona juridiko edo erakundeek autonomia pertsonala sustatu eta mendekotasunari arreta eskaintzeko gizarte-zerbitzuak ematen badituzte, ez dira antzeko baldintzatan erositakotzat joko gurpil-aulkian ibili behar duten pertsona desgaituak edo mugikortasun urritua dutenak ohiz garraiatzeko eskuratu diren ibilgailuak. Gauza bera gertatuko da 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta gizarteratzeko aukerari buruzko lege orokorraren testu bategina onartzen duenak, xedatutako gizarte-zerbitzuetarako badira. Dena den, betiere pertsona talde zehatz horien ohiko garraiorako edo aldez aurretik erosi ostean, horien lurralde- ala geografia-eremu desberdinetan erabiliko dira.

Edonola ere, erosleak egiaztatu beharko du aurreko ibilgailua edo ibilgailuak erosi zirenean ez zeuden baldintza horiek daudela.

2.a. Ostean inter vivos eskualdaketaren xede ez izatea hori eskuratu eta hurrengo lau urteetan.

2. Zergari buruzko Legearen 91.bi.1.4 artikuluaren bigarren paragrafoan ezarritako zerga-tasa aplikatu ahal izateko, aurretiaz Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak eskubide hori aitortu beharko du, eta hori eskuratzaileak urritasuna duen pertsonak izenpetutako eskabidearen bidez abian jarriko da. Aitorpen horrek, halakorik gertatuz gero, ondoreak sortuko ditu eskabidea aurkezten den datatik. Beraz, ibilgailuaren xedea gurpil-aulkian dauden ezgaien edo mugikortasun murriztua duten pertsonen ohiko garraioa dela egiaztatu beharko da. Bestelako frogabideen artean, ondokoak onartu ahal izango dira:

   a) Ibilgailuaren titulartasuna desgaitasuna duen pertsonaren izenean.

   b) Eroslea desgaitasuna duen pertsonaren ezkontidea izatea edo ahaidetasun-harreman zuzena edo hirugarren mailara arteko zehar ahaidetasun-harremana izatea.

   c) Eroslea desgaitasuna duen pertsonaren izatezko bikotekide gisa izena emanda egotea bizileku duen autonomia-erkidegoko bikoteen edo izatezko bat-egiteen erregistroan.

   d) Eroslea desgaitasuna duen pertsonaren tutorea, legezko ordezkaria edo egitatezko zaintzailea izatea.

   e) Erosleak frogatzea desgaitasuna duen pertsonarekin batera bizi dela, errolda-ziurtagiriaren bidez edo etxebizitza berean zerga-egoitza izateagatik.

   f) Ibilgailua pertsona juridiko batek erosten badu, pertsona horrek egiaztatu beharko du desgaitasuna duten pertsonak laguntzeko jarduerak garatzen ari dela edo, hala badagokio, bere langileen artean desgaitasuna duten langileak dituela kontratatuta edo ibilgailu hori normalean erabiliko dutela.

   Urritasuna edo mugikortasun murriztua Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen (IMSERSO) Institutuak edota kasuan kasuko autonomia-erkidegoko organo eskudunak luzatutako ziurtagiriaren edo ebazpenaren bidez egiaztatu beharko da. Zernahi gisaz, hona hemen ehuneko 33ko edo handiagoko urritasunaren ondorioz ukitutako pertsonak:

a) Ezintasun iraunkor oso, absolutu edo baliaezintasun handiko pentsioa aitortuta duten Gizarte Segurantzako pentsiodunak.

b) Zerbitzua betetzeko ezintasun iraunkorraren edo baliaezintasunaren ondoriozko jubilazio- edo erretiro-pentsioa aitortuta duten gizarte maila pasiboetako pentsiodunak.

c) Epaileak aitortutako ezintasuna duten pertsona desgaituak direnean. Kasu horretan, egiaztatutako desgaitasuna ehuneko 65ekoa izango da, maila horretara iristen ez bada ere

Hona hemen mugikortasun murriztua duten pertsonak:

a) Itsuak edo ikusmen-urritasuna dutenak, eta, edozein kasutan ere, Espainiako Itsuen Erakundean (ONCE) afiliatutakoak, betiere kasuan kasuko ziurtagiriaren bidez bertako kide direla egiaztatzen badute.

b) Tokiko korporazioek edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoek emandako desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelaren titularrak. Edonola ere, Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak edo dagokion autonomia-erkidegoko organo eskudunak egindako ziurtagiria edo ebazpena izan beharko dute, mugikortasun urritua duela ziurtatzen duena

3. Inportazioetan, eskubidea inportazioa zein aduanatan egin eta aduana horrek aitortu beharko du.

4. Zergari buruzko Legearen 91.bi.1.4 artikuluaren bigarren paragrafoan adierazitako gurpil-aulkian dauden ezgaien edo mugikortasun murriztua duten pertsonen ohiko garraioa betetzeko ibilgailuak ematen dituzten subjektu pasiboek zerga-tasa murriztua eskuratzaileak bere eskubidea Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren erabaki egokia jasotzen duen agiriaren bidez egiaztatzen duenean bakarrik aplikatu ahal izango dute. Hain zuzen ere, agiri hori preskripzio-epe osoan gorde beharko da.

# VII. TITULUA
# KENKARIAK ETA ITZULKETAK

## LEHEN KAPITULUA
## KENKARIAK

### 27. artikulua. Enpresa edo lanbide jardueretan ondasunak ematen edo zerbitzuak egiten hasi aurretik jasan edo ordaindutako kuoten kenketak.

1. Enpresa edo lanbide jarduerarik aurretik egin gabe, ondasunak edo zerbitzuak erosi edo inportatzen baldin badira halako jardueretan erabiltzeko asmoarekin, gerora egiaztatu egin behar da, elementu objektiboen bitartez, erosketa edo inportazioak asmo horrekin egin zirela. Zerga Administrazioak egiaztapen hori eskatu ahal izango du.

2. Zuzenbidean onartzen diren frogabideetatik edozein erabil daiteke aurreko idatz-zatian aipatu den egiaztapena egiteko. Kontuan har daitezke, besteak beste, inguruabar hauek:

   a) Erosi edo inportatutako ondasun eta zerbitzuen izaera; berau bat etorri behar da egin asmo den jardueraren izaerarekin.

   b) Ondasun eta zerbitzuok erosi edo inportatzen direnetik enpresa edo lanbide jardueraren xede diren ondasun-emate edo zerbitzuak egiteko benetan erabiltzen diren arte igarotzen den denbora.

c) Zergari buruzko arautegian, Merkataritza Kodean eta enpresari eta profesionalei aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako betebeharrak betetzen ote diren (erazko betebeharrak, erregistrokoak nahiz kontabilitatekoak).

   Bereziki, betebehar hauek hartuko dira kontuan:

   a') Zentsu-adierazpenaren aurkeztea, non administrazioari jakinarazten zaion enpresa-jarduerak edo jarduera-profesionalak hasi direla, jarduera horiek egiteko asmoz ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeagatik edo inportatzeagatik (Zergaren Legearen 164. artikuluaren bat idatz-zatiaren 1. zenbakian, eta uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuak onartutako Erregelamendu Orokorraren, zergak kudeatu eta ikuskatzeko jarduketa eta prozedurenaren, eta tributuak aplikatzeko prozeduren arau erkideak ere garatzen dituenaren, 9. artikuluaren 1. idatz-zatian aipatutako jarduerei buruz ari gara).

   b') Araudi honen IX. tituluan ezarri diren kontabilitateko betebeharrak; zehazki, jasotzen diren fakturen erregistro-liburua eta, halakorik bada, inbertsio-ondasunen erregistro-liburua eduki beharra.

d) Egin nahi den jarduera egiteko behar diren administrazio baimen edo lizentziak eskuratuta edo eskatuta edukitzea.

e) Balio Erantsiaren gaineko Zergaz gainera, egin nahi den enpresa edo lanbide jarduerari dagozkion beste zergen aitorpenak aurkeztuta edukitzea.

3. Artikulu honetako 1. idatz-zatian aipatu diren ondasun edo zerbitzuen erosle edo inportatzaileak ezin badu frogatu ondasun edo zerbitzuok erosi edo inportatu zituenean enpresa edo lanbide jardueretan erabiltzeko asmoarekin egin zuela, erosketa edo inportazio horiek ez dira enpresari edo profesional batek egindakotzat hartuko eta, beraz, erosle edo inportatzaileak ezingo du kenketarik egin eragiketa horiek direla-eta jasaten edo ordaintzen duen zergaren kuotetan, ezta ondasun edo zerbitzuok erosi edo inportatu eta gero horiek enpresa edo lanbide jarduera baterako erabiltzea erabakitzen duenean ere.

4. Artikulu honetan goiko idatz-zatietan adierazi dena berdin aplikatu behar zaie lehendik ere enpresari edo profesional izanik enpresa edo lanbide jarduera berri bati ekiten diotenei, hau da, aurretik egiten zituzten jardueren arlokoa ez den beste jardueraren batean hasten direnei.

**28. artikulua. Kenketarako aukera eta eskabideak.**

1. Subjektu pasiboek segidan aipatzen diren eskabideak egin ditzakete eta aukera hauez balia daitezke, jarraian adieraziko diren epeetan eta ondoreekin:

   1.a. Zergari buruzko Legearen 103. artikuluko Bi idatz-zatiko 1go. zenbakian agertzen den lain bereziaren araua aplika dadin aukeratzea. aukera.

   Aukera hori egiteko:

   a) Oro har, urte natural bakoitzari dagokion zergaren azken aitorpen-likidazioan, eta kasu horretan, urte horretan egindako kenkariak arautuko dira

   b) Enpresa-jarduerak edo jarduera profesionalak hasteak,hala badagokio, lehenagotik hasita garatzen ari ziren jarduerekiko sektore berezitu bat osatzen badute edo ez, jarduera horiei dagozkien ondasunak edo zerbitzuak normaltasunez ematen hasten direneko aldiari dagokion aitorpen-likidazioa aurkezteko epea amaitu arte

   Prorrata bereziaren erregela aplikatzeagatik aukeratuz gero, eragina izango du, baldin eta subjektu pasibo batek baliogabetzen ez badu, nahiz eta erregela hori aplikatzea aukeratzeak gutxienez hiru urte naturaleko baliozkotasuna izango duen, egindako aukerari dagokion urte naturala barne.

Aipatu gutxieneko aldia igaro ondoren baliogabetu ahal izango da, urte natural bakoitzari dagokion azken aitorpen-likidazioan. Kasu horretan, urte natural horretan egindako kenkariak aplikatuko dira.

2.a. Zergari buruzko Legearen 9. artikuluko 1go. zenbakiko a') letran adierazitako sektore desberdinetarako baterako kenketa-araubidea aplika dadila eskatzea, lege horren 101. artikuluko Bi idatz-zatian aurreikusi bezala.

Honako epe hauetan egin daiteke 2gn. zenbaki honetan aipatutako eskaera:

a) Oro har, araubidea lehenengoz aplikatu nahi den urtea hasi aurretik, azaroan.

b) Enpresa edo lanbide jarduerak hasten badira, edo lehendik egiten diren jardueren arlokoa ez den beste jardueraren bati ekiten bazaio, aukera hori egin daiteke halako jardueretako ohiko ondasun-emateak edo zerbitzuak hasten diren, eskaera egin daiteke halako jardueretako ohiko ondasun-emateak edo zerbitzuak hasi eta hurrengo hila amaitu arte.

Kenketa-araubidea aplikatzeko baimena lortuz gero, araubide hori aplikatu ahal izango zaie enpresa edo lanbide jardueretako ondasun-emate edo zerbitzuak hasiz gero jasan edo ordaintzen diren kuotei, soil-soilik, eta jarraian adieraziko diren egunetatik aurrera. Hori horrela izango da bai Administrazioak subjektu pasiboari araubidea erabiltzeko baimena eman zaiola jakinarazten dionean hilabeteko epean, artikulu honetako Bi idatz-zatian adierazi bezala, eta bai hilabeteko epe hori igarotakoan Administrazioaren ebazpena jakinarazi gabe dagoenez baimena emanda dagoela uste izaten den kasuetan ere:

a) Eskabidea aurkeztu eta hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera, eskabidea 2gn. zenbaki honetako bigarren paragrafoko a) letran xedatutakoaren itzalpean aurkezten bada.

b) Ohiko ondasun-emate edo zerbitzuak hasten diren egunetik aurrera, eskabidea 2gn. zenbaki honetako bigarren paragrafoko b) letran xedatutakoaren itzalpean aurkezten bada.

Baterako kenketa-araubidea aplikatzeko baimena lortuz gero, araubide horrek ondoreak izango ditu harik eta Administrazioak hura ezeztatu edo subjektu pasiboak hari uko egin arte. Ukoa abenduan egin daiteke, baterako araubidea aplikatzeari utzi nahi zaion urtea hasi aurretik.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, salbuespenez, baterako kenketa-araubidea aplikatzeko baimena lortuta ere, araubide horrek ez du ondorerik izango honakoa gertatzen den urteetan: baterako araubidea aplikatuta kendu daitezkeen kuoten guztirako zenbatekoa gutxienez %20 handiagoa izatea kenketa-araubidea sektore desberdinei banaka aplikatuta aterako litzatekeena baino.

3.a. Behin-behineko kenkari-portzentajea aplikatu dadila eskatzea, aurreko urterako behin betikotzat ezarri den portzentajearen ordez, Zergari buruzko Legearen 105. artikuluko Bi idatz-zatian adierazi bezala.

Honako epe hauetan aurkez daiteke 3gn. zenbaki honetan aipatutako eskabidea:

a) Oro har, behin-behineko kenkari-portzentajea aplikatu nahi den urtean bertan, urtarrilean.

b) Aurreko urtean behin betikotzat ezarritako portzentajea aribideko urtean behin-behineko portzentaje gisa egokia ez izatea dakarten inguruabarrak gertatzen badira, eskabidea aurkez daiteke aribideko urtean, inguruabar horiek gertatu eta hurrengo hila amaitu arte.

Behin-behineko portzentajea ezartzeko baimena lortuz gero, portzentaje horrek ondoreak izango ditu egun hauetatik aurrera jasaten diren kuotetan:

a') Administrazioak subjektu pasiboari behin-behineko kenkari-portzentajea aplikatzeko baimena daukala jakinarazten badio hilabeteko epean, artikulu honetako 2. idatz-zatian adierazi bezala, portzentajeak ondoreak izango ditu Administrazioak baimena ematerakoan ezartzen duen egunetik aurrera.

b') Hilabeteko epean Administrazioaren ebazpenik jakinarazten ez bazaio, epe hori igarotakoan subjektu pasiboak baimena daukala ulertu behar du. Horrelakoetan, portzentajeak ondoreak izango ditu hilabeteko epe hori amaitu eta zergaren hurrengo likidazio-aldiaren lehen egunetik aurrera.

4.a. Zergari buruzko Legearen 111. artikuluko Bi idatz-zatian adierazitako behin-behineko kenkari-portzentajea eskatzea, enpresa edo lanbide jarduerak lehenengoz egiten badira edo lehendik egiten ziren jardueren sektorekoak ez diren jarduera berriei ekiten bazaie, eta jarduera horietako ohiko ondasun-emate edo zerbitzuak hasi aurretik jasan edo ordaindutako kuotei dagokienez.

Hala ere, ez da beharrezkoa eskabide hori aurkeztea abian jarritako jardueren, eta, hala denean, aurretik garatzen ari direnen xede izango diren ondasunen edo zerbitzuen emateak Zergari buruzko Legearen 94. artikuluaren batgarren paragrafoan zenbatutako eragiketen artean soilik jasotzen direnean, murrizteko eskubidea sorraraziz, betiere Zergari buruzko Legearen 112. artikuluaren bigarren paragrafoan ezarritako diru-laguntzak jasotzen ez badira. Ondore horietarako, ez dira aintzat hartzen Lege bereko 104. artikuluaren hirugarren paragrafoan aipatutako eragiketak.

Administrazioari halako jardueren hasiera jakinarazteko zentsu-aitorpenarekin batera aurkeztu behar zaio 4gn. zenbaki honetan aipatutako eskabidea.

5.a. Zergari buruzko Legearen 105. artikuluko Hiru idatz-zatiko bigarren paragrafoan aipatutako behin-behineko kenkari-portzentajea eska daiteke, baldin eta enpresa edo lanbide jarduerei ekiten bazaie edo lehendik egiten diren jardueren sektorekoa ez den jardueraren bat hasten bada. Portzentaje hori aplikatu ahal izango da halako jardueretako ohiko ondasun-emate edo zerbitzuak hasten diren urtean, eta jarduerak hasi aurretik jasan edo ordaindutako kuotei dagokienez, baldin eta goiko 4gn. zenbakian aipatutako behin-behineko kenkari-portzentajea aplikatzerik ez badago, hura zehaztu gabe egoteagatik.

Ez da beharrezkoa izango eskaera hori aurkeztea, baldin eta hasitako jardueren xede izango diren ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak, eta, hala badagokio, aurretik garatzen ari zirenenak, Zergaren Legearen 94.Bat artikuluan zerrendatutako eragiketak baino ez badira, eta horiek egiteak kenketa-eskubidea sortzen badu.

Arestian aipatutako jardueretako ohiko ondasun-emate edo zerbitzuak hasi eta hurrengo hila amaitu arte aurkez daiteke 5gn. zenbaki honetan aipatutako eskabidea.

2. Eskaerak, ukoa, eta azken hori, aurreko idatz-zatiak aipatzen duena, aukeratzea eta ezeztatzea, hala badakio, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren organo eskudunaren aurrean egingo dira.

Horrelako eskabideak jasotzen dituenean, Administrazioak hilabeteko epea izango du, eskabideak organo eskudunaren erregistroan sartzen diren egunetik aurrera, interesatuari ebazpena jakinarazteko. Hilabeteko epe horretan ebazpenik jakinarazten ez badio, interesatuak, epea igarotakoan, baietza eman zaiola uste ahal izango du.

## II. KAPITULUA
## ITZULKETAK

### 29. artikulua. Ofiziozko itzulketak.

Zergari buruzko Legearen 115. artikuluan aipatzen diren ofiziozko itzulketak banku-transferentziaren bidez egingo dira. Ekonomia eta Ogasun ministroak baimena eman ahalko du itzulketa txeke gurutzatuaren bidez egin dadin, beharrezkoa denean.

### 30. artikulua. Itzulketak likidazio-epealdi bakoitza amaitzen denean.

1. Zergari buruzko Legearen 116 eta 163 nonies artikuluetan ezarritako itzulketa-eskubidea egikaritu ahal izateko, subjektu pasiboak artikulu horretan araututako hileko itzulketa-erregistroan inskribatuta egon beharko dira. Halaber, euren mesederako eskuratutako saldoaren itzulketa eskatu ahal izango dute egutegiko urte bakoitzaren azken likidazio-epealdia amaitzen denean bakarrik, Zergari buruzko Legearen 115.bat artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta.

2. Hileko itzulketa-erregistroa Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak kudeatuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Itun Ekonomikoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen Hitzarmen Ekonomikoaren araubideei buruzko arauetan xedatutakoari kalterik egin gabe.

3. Erregistroan, aurretiaz eskaera eginda, betekizun hauek betetzen dituzten subjektu pasiboak inskribatuko dira:

   a) Inskripzioa errolda-aitorpenaren aurkezpenaren bidez eskatzea Ekonomia eta Ogasun ministroak ezarritako tokian eta moduan.

   b) Zerga-betebeharrak eguneratuta izatea, uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako zergak aplikatzeko prozedurei buruzko arau erkideen garapenerako eta zerga-kudeaketa eta -ikuskapenerako Erregelamendu Orokorraren 74. artikuluan adierazitako baldintzetan.

   c) Hileko itzulketa-erregistroan kautelazko baja edo identifikazio fiskaleko zenbakiaren ukapena eragin dezakeen kasuetatik edozeinetan ez aurkitzea, uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako zergak aplikatzeko prozedurei buruzko arau erkideen garapenerako eta zerga-kudeaketa eta -ikuskapenerako Erregelamendu Orokorraren 144.4 eta 146.1.b), c) eta d) artikuluetan ezarritakoak.

   d) Araubide erraztuan zergak ordaintzen dituzten jarduerak ez gauzatzea.

   e) Zergari buruzko Legearen IX. Tituluaren IX. Kapituluan araututako erakunde-taldearen araubide bereziaren mendeko erakundeen kasuan, erregistroan egin beharreko inskripzioa aurrera eramango da araubide berezi hori aplikatzen duten taldeko erakunde guztiek horrela adostu badute eta atal honetan jasotako betekizunak betetzen badituzte.

   Erakundeetatik edozeinek betekizunak betetzen ez baditu, araubide berezia aplikatzen duten taldeko erakunde guztiak ez dira onartuko hileko itzulketa-erregistroan, edo, hala denean, hortik baztertutako geratuko dira.

   Erregistroan inskribatzeko eskabidea, eta, hala denean, bajaren eskabidea, Zerga Administrazioan erakunde nagusiak aurkeztu beharko ditu, eta araubide berezia aplikatzen duten taldeko erakunde guztiak barnean hartu beharko ditu.

   Erregistroan inskribatu edo baja emateko eskabideen izapideak egiteko jarduketak, bai eta hori kontsultatzeko betekizunen egiaztapena ere, jadanik inskribatuta dauden erakundeei dagokienez, erakunde nagusiarekin adostuko dira, taldearen ordezkari den aldetik, Zergari buruzko Legearen 163. nonies artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta.

4. Erregistroan inskribatzeko eskabideak ondoreak sortu beharreko urtearen aurreko azaroan aurkeztu beharko dira. Erregistroko inskripzioa ondoreak sortu beharreko urteko urtarrilaren 1etik gauzatuko da.

   Hala ere, subjektu pasiboek erregistroan inskripzioa egiteko eskabidea aurreko paragrafoan ezarritako epean eskatu ez badute, eta enpresaburuek edo profesionalek enpresa- edo lanbide-jarduerei buruzko ondasunak edo zerbitzuak eman ez badituzte, baina, osagai objektiboen ondorioz baieztatuta, jarduera horiek garatzeko asmoarekin eskuratu badituzte, era berean, erregistroan egiteko inskripzioa eskatu ahal izango dute aldizkako aitorpen-likidazioak aurkezteko epearen barruan. Bi kasu horietan, erregistroan egin beharreko inskripzioak ondoreak sortuko ditu aitorpen-likidazio horien likidazio-epealdia amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

   Erregistroan inskripzioa egiteko eskabidea eskatu duten Zergari Buruzko Legearen IX. Tituluaren IX. Kapituluan araututako erakunde-taldeari buruzko araubide bereziaren aplikazioa aukeratu duen taldeko erakunde nagusiak, eskabidea araubide berezia aukeratu duten guztiek batera aurkeztu beharko dute, horren modu, toki eta epe berean, ondoreak hurrengo egutegiko urtearen hasieratik eraginda. Erregistroan inskripzioa egiteko akordioak ostean erabakitzen badira, eskabidea aldizkako aitorpen-likidazioak aurkezteko epearen barruan aurkeztu beharko da, eta ondoreak aitorpen-likidazio horien likidazio-epealdia amaitzen den egunaren biharamunetik sortuko ditu.

   Erregistroan inskripzioa epetik kanpo egiteko eskabideen aurkezpenari gaitziritzia emango zaio eta besterik gabe artxibatuko da, subjektu pasiboari hori komunikatuta.

5. Subjektu pasiboek erregistroan inskripzioa egiteko eskabideari gaitziritzia emantzat joko dute, baldin eta hori aurkezten denetik hiru hilabetera espedientearen ebazpenaren esanbidezko jakinarazpena jaso ez badute.

6. Aurreko 3. atalean ezarritako betekizunetatik edozein betetzen ez bada, edo Zerga Administrazioari emandako informazioa ez dela zehatza edo faltsua dela egiaztatzen bada, erregistroan inskripzioa ez egiteko behar besteko arrazoia izango da, edo jadanik subjektu pasiboak inskribatuta badaude, Zerga Administrazioak horiek erregistrotik kanporatu ahal izango ditu.

   Erregistrotik egindako kanporatzeak akordio hori jakinarazteko erabilitako likidazio-epealdiaren lehenengo egunetik sortuko dira.

   Erregistrotik egindako kanporatzeak inskripzioa egiteko eskabidea hori erabakitzeko ebazpena jakinarazitako dataren hurrengo hiru urteetan ez onartzea zehaztuko du.

7. Hileko itzulketa-erregistroan inskribatutako subjektu pasiboak bertan gutxienez eskatutako inskripzio-epearen lehenengo urtean egon beharko dira, edo subjektu pasiboek inskripzioa aldizkako aitorpen-likidazioak aurkezteko epean eskatu badute, edo enpresaburuek nahiz profesionalek enpresa- edo lanbide-jarduerekin zerikusia duten ondasunak edo zerbitzuak ematen hasi ez badira, orduan gutxienez inskripzioa eskatu duten urtean eta hurrengoan egon beharko dira.

8. Erregistroan egindako borondatezko bajaren eskabideak ondoreak sortu beharreko urtearen aurreko urteko azaroan aurkeztuko dira. Talde batek Zergari buruzko Legearen IX. Tituluaren IX. Kapituluan araututako erakunde-taldearen araubide berezia aplikatzen badu, borondatezko bajaren eskabidea erakunde nagusiak Erregelamenduaren 61.bis 5 artikuluan ezarritako epean eta ondoreekin aurkeztuko da.

   Hala ere, subjektu pasiboek bajaren eskabidea erregistroan aurkeztu beharko dute artikulu horren 3. atalaren d) letran adierazitako betekizuna betetzen ez bada. Eskabide hori ez-betetzea gertatzen den hilabetean aitorpen-likidazioa aurkezteko epean aurkeztu beharko da, eta ondoreak hilabete horren hasieratik aurrera sortuko dira.

Ezinezkoa izango da erregistroan inskripzioa eskatzea subjektu pasiboak baja eskatu duen urte berean.

9. Hileko itzulketa-erregistroan inskribatu gabeko subjektu pasiboek aurkeztutako egutegiko urteaz besteko likidazio-epealdietako aitorpen-likidazioetan jasotako itzulketa-eskabideek ez dute abian jarriko artikulu horretan aipatutako itzulketa-prozedura.

10. Hileko itzulera erregistroan inskribatuak dauden subjektu pasiboek zergaren aitorpen-likidazioak esklusiboki elektronikoki eta hileko aldizkakotasunarekin aurkeztuko dituzte.

11. Hileko itzulketa-erregistroan egindako inskripzioa erabat bat etorriko da Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak komunikazioak egiteko erabili duen helbide elektronikoan jakinarazpenak egiteko zerbitzuari alta ematearekin. Halaber, Zergari buruzko Legearen IX. Tituluaren IX. Kapituluan araututako erakunde-taldearen araubide bereziaren mende dauden erakundeen kasuan, aipatutako zerbitzuaren inskripzioa, hala denean, erakunde nagusiak bete beharko du.

12. Kasuan kasuko itzulketa banku-transferentziaren bidez egingo da, hain zuzen ere, subjektu pasiboak hileko itzulketa egiteko eskabide bakoitzean adierazitako banku-kontura.

**30 bis artikulua. Bidaiarien edo Errepide bidezko merkatugaien garraio-jarduera betetzen duten subjektu pasiboen kuota kengarrien itzulketa.**

1. Erregelamendu honen 30. artikuluan ezarritakoa gorabehera, bidaiariak edo salgaiak errepidez garraiatzen dituzten subjektu pasiboek zergaren erregimen erraztuaren arabera ordaindu beharko dituzte zergak, eta, Erregelamendu honetako 30.3 artikuluko b) eta c) idatz-zatietan ezarritako baldintzak betez, jarduera horiei lotutako garraiobideak eskuratzearen ondorioz zergaren kuota kengarriak jasan badituzte, kuota kengarri horiek itzultzeko eskatu ahal izango dute garraiobideak erosi eta hurrengo hilabeteko lehen 20 egun naturaletan, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko titularrak horretarako ezartzen duen prozedurari, lekuari eta moduari jarraiki.

   Aurreko paragrafoan aipatutako garraiobideak, salgaiak errepidez garraiatzeko jarduera egiten duten subjektu pasiboek eskuratu badituzte, N1 kategorian sartuta egon beharko dira, eta baimendutako gehieneko masa 2.500 kilokoa izan beharko dute gutxienez, edo N2 eta N3 kategorietan, horiek guztiak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ibilgailu motordunen eta horien atoien eta ibilgailu horietarako sistemen, osagaien eta unitate tekniko independenteen merkatuaren homologazioari eta zaintzari buruzko 2018ko maiatzaren 30eko 2018/858 (EB) Erregelamenduaren 4. artikuluan ezarritakoak dira (erregelamendu horrek 715/2007 (EE) eta 595/2009 (EE) Erregelamenduak aldatzen ditu eta 2007/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du).

2. Artikulu honetan xedatutakoa ezin izango da aplikatu kasuan kasuko aitorpen-likidazioetan kuota kengarriak jasotzea aukeratu duten subjektu pasiboen gain, Erregelamendu honen 38.2 artikuluan xedatutakoari helduta.

**30. ter artikulua. Zerga aplikatu behar den lurraldean, Kanariar uharteetan, Ceutan eta Melillan bizi diren enpresarien edo profesionalen itzulera-eskaerak, erkidegoan egindako eragiketengatik (zerga aplikatu behar den lurraldean egindakoak izan ezik) jasandako kuotei dagozkienak.**

1. Zergari buruzko legeko 117. bis artikuluan arauturiko Itzulketa eskabideak bide elektronikoz aurkeztuko dira, Zerga Administrazioko Estatuko Agentziaren atari elektronikoan horretarako dauden formularioen bitartez. Organo horrek atzerapenik gabe jakinarazi dio eskabidea jaso duela, hartu agiri elektroniko bat igorrita, eta kuotak jasan direneko Europar Batasuneko estatuari eskabidea bide elektronikoz bidaltzea erabakiko du 15 eguneko epean, eskabide jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

2. Hala ere, eskatzaileari bide elektronikoz jakinaraziko zaio bere eskabidea bidaltzea ez dela egokia, honako egoera hauetako bat gertatu denean eskabideari dagokion aldian:

a) Enpresari edo profesionala ez izatea halakotzat jarduten zuen bitartean.

b) Zerga osoaren kenkaria egiteko eskubidea sortzen ez duten eragiketak bakar-bakarrik egin izana.

c) Zerga nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako erregimen berezian edo baliokidetasun errekarguko erregimen berezian ordaintzen duten jarduerak bakar-bakarrik egin izana.

3. Eskatzaileak helbide elektronikoko jakinarazpen zerbitzuan izena emanik egon beharko du, artikulu honetan aipaturiko eskabideen inguruan Zerga Administrazioko Estatuko Agentziak egingo dituen jakinarazpenetarako.

**31. artikulua. Itzulketak egitea zergaren aplikazioko lurraldean egoitzarik ez duten baina Erkidegoan, Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan egoitza duten enpresari edo profesionalei.**

1. Zergaren aplikazioko lurraldean egoitzarik ez duten baina Erkidegoan, Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan egoitza duten enpresari edo profesionalek zergari buruzko legeko 119. artikuluan aipatzen diren kuotak itzultzeko eskatu ahalko dute, honako hauek bete beharko dituen eskabide baten bitartez:

a) Eskabidea bide elektronikoz aurkeztuko da, eskatzaileak egoitza duen Europar Batasuneko estatuko zerga administrazioaren atarian horretarako dagoen formularioaren bitartez, Ogasun ministerioaren titularrak onartutako edukiarekin.

   Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan egoitza duten eskatzaileei dagokienez, eskabidea Zerga Administrazioko Estatuko Agentziaren atari elektronikoaren bitartez aurkeztuko da.

   Organo horrek izango du artikulu honetan aipatzen diren eskabideak izapidetu eta ebazteko eskumena, eta eskatzaileari edo haren ordezkariari jakinaraziko dio eskabidea jaso duen data, bide elektronikoz igorriko duen mezu baten bitartez.

b) Eskabidean sartuko dira zerga sortu duten ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeagatik jasandako kuotak, dagokien faktura egin denean dagokien aldian. Ondasunen inportazioen kasuan, eskabideak artikulu honetako 3. idatz zatian zehaztutako itzulketako aldian zehar eginiko inportazioei buruzkoa izan beharko du.

   Era berean, eskabide berria aurkeztu ahalko da urte natural bati buruz, beste eskabide batzuetan jaso ez diren eragiketengatik jasandako kuoten inguruan, baldin eragiketa horiek dena delako urte naturalean egin badira.

c) Ogasun ministerioaren titularrak agindu ahalko du eskabidearekin batera eskabideari dagozkion fakturen edo inportazio agirien kopia elektronikoa aurkezteko, haietako bakoitzean jasotako zerga oinarria 1.000 euro baino gehiago denean, oro har, eta 250 euro baino gehiago, erregaiaren kasuan.

d) Itzulketa eskabidean honako informazio hau eman beharko da:

   1.a. Eskatzailearen izen-deiturak edo sozietate izena eta helbide osoa.

   2.a. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako eskatzailearen identifikazio zenbakia edo identifikazio fiskaleko zenbakia.

   3.a. Posta elektronikoko helbide bat.

   4.a. Itzultzeko eskatzen diren zerga kuotak dagozkien ondasun eta zerbitzuek helburutzat duen eskatzailearen enpresa edo lanbide jardueraren deskribapena.

Horretarako,Ogasun Ministerioaren titularrak ezarri ahal izango du deskribapen hori jarduera-kode batzuen bidez egitea.

5.a. Eskabideari dagokion itzulketako aldiaren identifikazioa, artikulu honetako 3. idatz zatian ezarririkoarekin bat.

6.a. Eskatzailearen adierazpen bat, zergaren aplikazioko lurraldean zerga legeko 119. artikuluko bigarren idatz zatiko 2. zenbakian adierazitakoez bestelako jarduerarik egiten ez duela aditzera emateko.

Era berean, zergaren aplikazioko lurraldean dauden establezimendu iraunkor baten titularrak diren enpresari edo profesionalei dagokienez, adierazpen horretan adierazi behar dute ez dutela establezimendu iraunkor horretatik ondasunik edo zerbitzurik eman eskabideari dagokion aldian.

Hala ere, zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta ez dauden baina Batasunean, Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan finkatuta dauden enpresaburu edo profesionalak, baldin eta urruneko salmentei eta ondasunen barne-entrega eta zerbitzu-prestazio jakin batzuei aplikatu beharreko araubide bereziei heltzen badiete, Zergaren Legearen IX. tituluko XI. kapituluan araututakoei, ez dute 6. zenbaki honetan xedatutakoa bete beharrik izango araubide horiek aplikagarri zaizkien eragiketei dagokienez.

7.a. Banku kontuaren identifikazioa eta titulartasuna, IBAN eta BIC kodeak espresuki adierazirik.

Baldin zergaren aplikazioko lurraldean, Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan egoitza duen kreditu erakunde baten establezimendu batean irekitako kontua ez bada, transferentziak sortzen duen gastu guztiak onartutako itzulketaren kopurutik kenduko dira.

8.a. Idatz zati honetako a) letran adierazitako formularioan faktura edo inportazio agiri bakoitzari buruz eskatzen diren datu osagarriak nahiz kodetze datuak.

2. Itzultzeko eskaerak barne hartu ahal izango ditu gehienez urte natural batean eta gutxienez hiru hilabetean jasandako kuotak.

3. Itzultzeko eskaerak barne hartu ahal izango ditu gehienez urte natural batean eta gutxienez hiru hilabetean jasandako kuotak.

   Hala ere, eskabideak hiru hilabete baino gutxiagoko aldian jasandako kuotak jaso ahal izango ditu, aldi hori urte naturaletik geratzen dena denean.

4. Itzulketa eskabideen bitartez hiruhileko natural batean nahiz urte natural batean zehar jasandako kuotak itzultzeko eskatu ahalko da. Hiruhilekoa baino epe txikiago bateko kuoten itzulketa eskatzeko ere izan ahalko dira, urte natural batean egindako eragiketa guztiei dagozkienean.

5. Itzultzeko eskaera urte natural batetik beherako itzulketa-aldi bati buruzkoa bada (baina ez hiru hilabetetik beherakoa), itzulketa-eskabidean jasotako zergaren zenbatekoa ezin izango da 400 eurotik beherakoa izan.

   Itzultzeko eskaera urte natural bateko itzulketa-aldiari edo urte natural baten gainerako zatiari buruzkoa bada, eskaeran jasotako zergaren zenbatekoa ezingo da 50 eurotik beherakoa izan.a.

6. Baldin artikulu honetan aipatzen diren itzulketak egiteko eskatu eta gero, eskatzailea egoitza duen Europar Batasuneko estatuan behin-behinean kalkulatutako kenkari-ehunekoa erregularizatzen bada, zenbatekoa zuzendu beharko da, ehunekoa aldatu zaion

itzulketako aldiaren ondorengo urte naturalean zehar aurkeztuko den itzulketa eskabide batean.

Urte horretan zehar itzulketa eskabiderik aurkeztu ez denean, zuzenketa egingo da bide elektronikoz zuzenketa eskabide bat bidalita. Eskabide hori eskatzaileak egoitza duen estatuko zerga administrazioren atari elektronikoaren bitartez aurkeztuko da, Ogasun ministerioaren titularrak onartutako edukiarekin.

7. Aurkezturiko eskabidea ebazteko eskumena duen organoak behar duen informazio guztia ez duela irizten dionean, behar duen informazio gehigarria eskatu ahalko dio eskatzaileari, eskatzaile horrek egoitza duen Europar Batasuneko agintari eskudunei, edo hirugarren batzuei. Horretarako mezu bat bidaliko du bide elektronikoz lau hilabeteko epean, eskabidea jaso duenetik zenbatzen hasita. Era berean, organo horrek beharrezkotzat jotzen duen geroagoko informazio oro eskatu ahalko du.

   Itzulketa-eskabide batean edo fakturen edo inportazio-dokumentuen kopia elektronikoan jasotako datuen baliozkotasunari edo zehaztasunari buruzko zalantzak daudenean, izapidetzeko eskumena duen organoak jatorrizko datuak aurkezteko eskatu ahal izango dio eskatzaileari, hala badagokio. Originalak zerga administrazioaren eskura eduki beharko dira zergaren preskripzio epean..

   Informazio gehigarriaren edo geroagoko informazioaren eskaera jasotzen dutenek hilabeteko epean erantzun beharko dute, jasotzen dutenetik zenbatzen hasita.

8. Itzulketa eskabidearen ebazpena ebazpen hori eskumena duen organoak jasotzen duen egunaren ondorengo lau hilabeteen barruan hartu beharko da, eta eskatzaileari jakinarazi.

   Hala ere, informazio gehigarria edo geroagoko informazioa eskatu behar denean, bi hilabeteko epean hartu beharko da ebazpena, eta eskatzaileari jakinarazi, eskaturiko informazioa jasotzen denetik zenbatzen hasita, edo informazioa eskatu zenetik hilabete bat igaro denetik, jasotzaileak informazioaren eskaerari erantzun ez badio. Halakoetan, itzulketa prozedurak gutxienez sei hilabete iraungo du, ebazteko eskumena duen organoak eskabidea jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

   Nolanahi ere, informazio gehigarria edo geroagoko informazioa eskatu behar denean, itzulketa eskabide bat ebazteko gehieneko epea zortzi hilabetekoa izango da, eskabidea jasotzen denetik zenbatzen hasita. Eskabidea ez dela onartu ulertuko da baldin, idatz zati honetan aipaturiko epeak igaro eta gero, eskabidearen ebazpenari buruzko jakinarazpen espresik jaso ez bada.

9. Itzulketa onartzen denean, artikulu honetako aurreko idatz zatian aipatzen diren epeak bukatu eta hurrengo 10 egunetan ordaindu beharko da.

10. Aurkeztutako eskabidea osorik edo zati batean ezesten bada, eskatzaileak errekurtsoa aurkeztu ahalko du abenduaren 17ko 58/2003 Zerga Lege Orokorreko V. tituluan xedatutakoaren ildotik.

11. Ogasun ministerioaren titularrak ezarri ahalko du zein hizkuntzatan aurkeztu beharko diren itzultzeko eskabidea nahiz eskabidea izapidetu eta ebazteko eskumena duen organoak eskaturiko informazio gehigarria edo geroagoko informazioa..

**31. bis artikulua. Itzulketak egitea ez zergaren aplikazioko lurraldean ez Erkidegoan, Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan egoitza ez duten enpresari edo profesional jakin batzuei.**

1. Ez zergaren aplikazioko lurraldean ez Erkidegoan, Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan egoitza ez duten enpresari edo profesionalek zergari buruzko legeko 119. artikuluan aipatzen diren kuotak itzultzeko eskatu ahalko dute, honako hauek bete beharko dituen eskabide baten bitartez:

a) Eskabidea bide elektronikoz aurkeztuko da, Ogasun ministerioaren titularrak onartutako ereduarekin nahiz egiaztatze betekizunekin. Azken horiek Zerga Administrazioko Estatuko Agentziaren atari elektronikoan egongo dira, hura delarik eskabideak izapidetu eta ebazteko eskumena duen organoa.

b) Itzultzeko eskaerak barne hartu ahal izango ditu gehienez urte natural batean eta gutxienez hiru hilabetean jasandako kuotak.

   Hala ere, eskabideak hiru hilabete baino gutxiagoko aldian jasandako kuotak jaso ahal izango ditu, aldi hori urte naturaletik geratzen dena denean..

c) Eskabidean jasoko dira zerga sortu duten ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeagatik jasandako kuotak, dagokien faktura egin denean dagokien aldian. Ondasunen inportazioen kasuan, eskabideak idatz zati honetako b) letran zehaztutako itzulketako aldian zehar eginiko inportazioei buruzkoa izan beharko du.

   Era berean, eskabide berria aurkeztu ahalko da urte natural bati buruz, beste eskabide batzuetan jaso ez diren eragiketengatik jasandako kuoten inguruan, baldin eragiketa horiek dena delako urte naturalean egin badira.

d) Itzulketa eskabideak honako hauek edukiko ditu:

   1.a. Eskatzaileak edo haren ordezkariak izenpeturiko adierazpen bat, zergaren aplikazioko lurraldean zergari buruzko legeko 119. artikuluko bigarren idatz zatiko 2. zenbakian adierazitakoez bestelako jarduerarik egiten ez duela aditzera emateko.

   Era berean, zergaren aplikazioko lurraldean dauden establezimendu iraunkor baten titularrak diren enpresari edo profesionalei dagokienez, adierazpen horretan adierazi behar dute ez dutela establezimendu iraunkor horretatik ondasunik edo zerbitzurik eman eskabideari dagokion aldian.

   Hala ere, Batasunean finkatuta ez dauden enpresaburuek edo profesionalek ez dute bete beharko 1. zenbaki honetan araubide horiei atxikitako eragiketei buruz xedatutakoa, baldin eta araubide berezi horiek aplikatzen bazaizkie urruneko salmentei eta ondasunen barne-entrega eta zerbitzu-prestazio jakin batzuei, Zergaren Legearen IX. tituluko XI. kapituluan araututakoei.

   2.a. Itzulketa bidegabeak ogasun publikoari berriz itzuliko dizkiola adierazten duen konpromisoa, eskatzaileak edo haren ordezkariak izenpetua.

   3.a. Eskatzailearen establezimendua kokaturik dagoen estatuan eskumena duten agintariek emandako egiaztagiri bat, non egiaztatu behar den eskatzaileak estatu horretan Balio Erantsiaren gaineko Zergari edo antzeko zerga bati lotutako enpresa edo lanbide jarduerak egin dituela, itzultzeko eskatzen diren kuotak sortu diren epean.

2. Itzulketa eskabideak aurkezteko epea hiruhileko natural edo urte natural bakoitzaren bukaeran hasiko da, eta eskabideak aipatzen dituen kuotak jasan direneko urte naturalaren hurrengoko irailaren 30ean bukatuko da.

3. Fakturen originalak eta itzulketak jasotzeko eskubidearen gainerako agiri egiaztagarriak Zerga Administrazioaren eskura egongo dira Zergaren preskripzio epean.

4. Itzultzeko eskaera urte natural batetik beherako itzulketa-aldi bati buruzkoa bada (baina ez hiru hilabetetik beherakoa), itzulketa-eskabidean jasotako zergaren zenbatekoa ezin izango da 400 eurotik beherakoa izan.

Itzultzeko eskaera urte natural bateko itzulketa-aldiari edo urte natural baten gainerako zatiari buruzkoa bada, eskaeran jasotako zergaren zenbatekoa ezingo da 50 eurotik beherakoa izan.

5. Artikulu honetan aipatutako itzulketa eskabideak arautegi honetako 31. artikuluko 6. idatz zatitik 11. idatz zatira bitartekoetan xedaturikoarekin bat izapidetu eta ebatziko dira.

**32. artikulua. Garraiobide berriak lantzean behin emateagatik egiten diren itzulketak.**

Enpresariek edo profesionalek Zergari buruzko Legearen 5. artikuluko lehenengo atalaren e) letran aipatzen diren kuotak jasan eta gero haiek itzultzeko eskabidea Ekonomia eta Ogasun ministroak onartzen duen ereduaren arabera egin beharko da eta eskatzailearen zerga-egoitza dagoen lurraldean Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak daukan Ordezkaritza edo Administrazioan aurkeztu beharko da. Eskabide horrekin batera bi agiri hauek aurkeztuko dira:

1.a. Itzultzeko eskatzen den kuota agertzen duen jatorrizko faktura. Bertan eragiketaren gaia den garraiobidearen datu teknikoak azalduko dira.

2.a. Garraiobidea inoiz emateari dagokion jatorrizko faktura. Eskabide egileak egina izango da eta bertan eragiketaren gaia den garraiobidearen datu teknikoak eta ematearen hartzailea identifikatzekoak azalduko dira.

# VIII. TITULUA
# ARAUBIDE BEREZIAK

## LEHEN KAPITULUA
## ARAU OROKORRAK

**33. artikulua. Araubide bereziak aplikatzeko aukera eta hari uko egitea.**

1. ...

2. Araubide berezi erraztuak eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari buruzkoak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legeak horretarako aipatzen dituen betebeharrak bete eta haiei berariaz uko egin ez dieten subjektu pasiboei aplikatuko zaie.

   Jarduerari ekiten zaiola adierazteko aitorpena aurkeztearekin batera egin beharko da ukoa edo, bestela, ondoreak izan behar dituen urtearen aurreko abenduan. Araubide erraztua edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubidea aplikatu ahal zaion jardueraren hasiera dela-eta aurkeztutako ukoak jarduera hasten den unetik izango ditu ondoreak.

   Ukoa eginda dagoela uste izango da, halaber, hark ondoreak ekarri behar dituen egutegiko urteko lehen hiruhilekoko aitorpen-likidazioa araubide orokorra aplikatuta aurkezten denean. Era berean, jardueraren hasieraren kasuan, ukoa eginda dagoela uste izango da baldin eta jarduera hasi ondoren subjektu pasiboak aurkeztu behar duen lehenengo aitorpen-likidazioa araubide orokorra aplikatuta aurkezten bada, ezarritako epean aurkeztu ere.

   Subjektu pasiboak, araubide erraztuan edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubidean jardueraren batean aritu eta gero, araubide horietan egin daitekeen beste jarduera bati ekiten badio urte berean, azken jarduera horren araubide bereziari uko eginda ere ukoak ez du ondorerik izango urtea amaitu arte, subjektu pasiboak aurretik egin duen jarduerari dagokionez.

   Ukoak hiru urterako izango ditu ondoreak, gutxienez, eta hurrengo urteetan berez luzatuko da, dena-delako araubide berezia aplikagarria izanez gero, ez bada beren beregi ezeztatzen abenduan, alegia, ondoreak ekarri behar dituen hurrengo urtea hasi aurretik.

Araubide erraztuari edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubideari egindako ukoak ondoreak izan behar dituen urtearen aurrekoan haren aplikazio eremuaren muga gainditzen bada, ukorik egin ez balitz bezala izango da.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan zenbatespen objektiboko araubideari uko eginez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergan ere araubide berezi erraztuari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubideari uko egin beharra dago, subjektu pasiboak egiten dituen enpresa eta lanbide jarduera guztietan.

Ondasun erabilien, arte objektuen, antzinatekoen eta bildumazaleentzako gaien araubide berezia aplikatuko zaie Zergari buruzko Legeak horretarako ezarritako baldintzak betetzen dituzten eragiketei, baldin eta subjektu pasiboak lege beraren 164. artikuluko lehen idatz-zatiko 1. zenbakian aipatutako aitorpena aurkeztua badu, hau da, bere enpresa edo lanbide jardueren hasierari buruzko aitorpena. Dena dela, eragiketa bakoitzaren mozkin-marginaren bidez zerga oinarria zehazten den modalitatean, subjektu pasiboak uko egin ahal dio araubide berezi horri eta araubide orokorra aplikatu ahal die egiten dituen eragiketei. Ez dauka Administrazioari ukoa jakinarazi beharrik eta ez du beste inongo baldintzarik bete behar.

3. Artikulu honetan aurreikusitako aukeraketak eta ukoak, bai eta ezeztatzeak ere, 27ko 1065/2007 Errege Dekretuak onartutako Erregelamendu Orokorraren arabera egingo dira (Zergak kudeatu eta ikuskatzeko jarduketa eta prozeduren Erregelamendu Orokorra, tributuak aplikatzeko prozeduren arau erkideak ere garatzen dituena).

   Aurreko lerroaldean xedatu dena ez zaio aplikatuko aurreko idatz-zatiko hirugarren lerroaldean aipatu den uko motari.

## II. KAPITULUA
## ARAUBIDE ERRAZTUA

### 34. artikulua. Hedadura subjektiboa.

Zergaren subjektu pasiboek araubide erraztuaren bidez ordainduko dute tributua honako baldintzok betez gero:

1.a. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez errenta eratxekipenaren araubidean dauden pertsona fisiko edo entitateak izatea, baldin eta, azken kasuan, haren bazkide, oinordeko, erkide eta partaide guztiak pertsona fisikoak badira.

   Aurreko lerroaldean aipatzen diren entitateei araubide berezi erraztua aplikatuko zaie eurak osatzen dituzten norbanakoek dituzten inguruabarrak direnak direla.

2.a. Araudi honetako 37. artikuluan aipatuko diren ekonomi jardueretako batean ohizkotasunez aritzea, baldin eta Ekonomia eta Ogasun ministroak jarduera horietarako ezartzen dituen mugak gainditzen ez badituzte.

### 35. artikulua. Araubide erraztuari uko egitea.

Subjektu pasiboek araubide erraztua aplikatzeari uko egin ahal izango diote Araudi honetako 33. artikuluan zehaztu diren modu eta epeetan.

Eratxekipen araubidean dauden entitateek araubide berezi erraztuari uko egin nahi diotenean, bazkide, oinordeko, erkide eta partaide guztiek egin beharko dute.

### 36. artikulua. Araubide erraztutik baztertzea.

1. Honako gertaera hauek araubide erraztutik baztertzea dakarte berekin:

   a) Ekonomia eta Ogasun ministroak jarduera bakoitzerako ezartzen dituen mugak gainditzea. Bazterketak ondoreak izango ditu mugak gainditu eta hurrengo urtetik

aurrera, salbu eta jarduera hasten den kasuetan, horrelakoetan bazterketak jardueraren hasieratik aurrera izango baititu ondoreak. Kari horrengatik bazterturiko subjektu pasiboek, hurrengo ekitaldietan mugak berriro gainditzen ez badituzte, araubide berezi erraztua izango dute, hari uko egin ezean.

b) Egutegiko urtebeteko epean honako zenbateko hauetako edozein gainditu izana:

a') Enpresa-jarduera edo jarduera profesional guztiak, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzakoak izan ezik: urtean 150.000 euro.

Ondorio horietarako eragiketa guztiak zenbatuko dira, faktura bat egiteko betebeharra existitu zein existitu ez; hori guztia azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak onetsitako fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduan xedatutakoarekin bat etorriz.

b') Ogasun eta Herri Administrazioko ministroak zehazten dituen nekazaritzako, basozaintzako eta abeltzaintzako jarduera guztiak: urtean 250.000 euro.

Ondorio horietarako bakarrik zenbatuko dira Erregelamendu honetako 40. artikuluko 1. idatz-zatiaren 3. paragrafoan eta 47. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutako erregistro-liburuan jaso behar diren eragiketak.

Aurre-aurreko urtean zehar jardueraren bati ekin bazaio, jarduera horretako zenbatekoak urte osorako hartuko dira.

Baztertzeko arrazoi horren ondorioak egiten den urtearen hurrengo urtetik aurrera gertatuko dira. Arrazoi horregatik aldez aurretik baztertutako subjektu pasiboek hurrengo ekitaldietan aipatutako mugak gainditzen ez badituzte sinplifikatutako araubide bereziari loturik geratuko dira, uko egiten badute izan ezik.

c) Araubide erraztuaren aplikazio eremu objektiboa arau bidez aldaraztea eta ondorioz araubide berezi hori gehiago ezin aplikatu izatea subjektu pasiboak egiten dituen ekonomi jarduerei. Aplikazio eremu objektiboa aldarazteko arauan bertan adieraziko da noiztik aurrera izango dituen ondoreak bazterketaren kari horrek.

d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboko araubidearen aplikazio eremutik kanpo geratzea.

e) Ez araubide berezi erraztua, ez nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia ez baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia aplikatzerik ez dagoen jardueraren bat egitea. Hala ere, subjektu pasiboa ez da araubide berezi erraztutik kanpo geratuko jarduera horietan egiten dituen eragiketa guztiak zerga ordaindu beharretik salbuetsita badaude, Zergari buruzko Legea aplikatuta, edo ondasun higiezinak errentatzen baditu enpresa-jarduerarik egin gabe, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian xedatutakoaren arabera.

f) Subjektu pasiboaren enpresa-jardueretarako edo jarduera profesionaletarako ondasunak eta zerbitzuak erosi eta inportatzeagatik urte natural batean urteko 150.000 euro gainditzea, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpo. Ibilgetuaren elementuei buruzkoak kanpoan gelditzen dira.

Aurreko urtean jarduera hasi bada, erosketen eta inportazioen zenbatekoa urtean zehar luzatuko da.

Salbuespen-arrazoiaren efektuak hurrengo urtean gertatuko dira. Arrazoi horrengatik aldez aurretik salbuetsitako subjektu pasiboek ondoz-ondoko ekitaldietan mugak ez badituzte gainditzen, erregimen sinplifikatuan sartuko dira, uko egiten duten kasuetan izan ezik.

2. Aurreko idatz-zatiaren d) paragrafoan aurreikusitakoak ondorioak izango ditu Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren zenbatespen objektiboko erregimenaren aplikazioa alde batera uzten den urte berean.

   Aurreko idatz-zatiaren e) paragrafoan aurreikusitakoak ondorioak izango ditu egiten den urtearen hurrengo urtetik aurrera, baldin eta subjektu pasiboak ordura arte enpresa-jarduerak edo jarduera profesionalak egiten aritu ez bada. Kasu horretan, kanpo uzteak jarduera horiek hasi ziren unetik izango dituzte ondorioak.

3. Tributu Ikuskaritzak, subjektu pasiboaren tributu egoera egiaztatzeko edo ikertzeko ekintzak buruturik, araubide erraztutik baztertzeko arrazoiak atzematen baditu, araubide orokorrean erregularizatuko du pertsona hori behar den moduan.

**37. artikulua. Eremu objektiboa.**

1. Araubide erraztua aplikatuko zaie Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektibo araubidea duten jarduera guztiei, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen IX. tituluan araupetutako araubide berezietatik besteren bat aplikatu behar zaienak izan ezik.

   Araubide erraztuaren aplikazioari dagokionez, jarduera lokabetzat joko dira araubide hori araupetzeko ministroak ematen duen aginduan beren beregi jasotzen diren guztiak.

2. Artikulu honen 1. idatz-zatian aipatu diren jardueretako eragiketa ekonomikoen zehaztapena egiteko, Ekonomi Jardueren gaineko Zergari buruzko arauak bete behar dira, aplikagarriak diren heinean.

**38. artikulua. Araubide erraztuaren edukia.**

1. Sartu beharreko kuotak, alegia, Zergari buruzko Legearen 123. artikuluko lehenengo idatz-zatiko lehenengo lerroaldean aipatutakoak, subjektu pasiboak berak zehaztuko ditu. Kuoten zenbateko osoa kalkulatzeko, Ekonomia eta Ogasun ministroak urtero jarduera bakoitzarentzat ezartzen dituen indize eta moduluak bere ekonomi jarduerari egotziko dizkio, eta zenbateko horretatik kendu ahal izango ditu aktibo finkoez besteko ondasun eta zerbitzuak, bere jardueran erabili beharrekoak, erosteko edo inportatzeko jasan edo ordaindu dituen kuotak. Diru-laguntzak jasotzen dituztenek ere kenkari hori izango dute.

   Ekonomia eta Ogasun ministroak, gainera, sartu beharreko kuoten gutxieneko zenbatekoa ezarri ahal izango du araubide berezi erraztua aplikatzen zaion jarduera bakoitzarentzat.

2. Sartu beharreko kuoten zenbatekoari, hau da, aurreko 1. idatz-zatian adierazitako moduan kalkulatutako kopuruari, Zergari buruzko Legearen 123. artikuluko lehen idatz-zatiko bigarren lerroaldean aipatutako eragiketek sortarazitako kuotak batu behar zaizkio, eta jarduera garatzeko helburuarekin erosi edo inportatu diren aktibo finkoengatik jasan edo ordaindutako kuotak kendu ahal zaizkio. Aktibo finkotzat ibilgetuaren elementuak jotzen dira.Zergapean dauden eragiketen bidez zenbait ondasun eta zerbitzuren erosketa finantzatzeko diru-laguntza jasoz gero, eragiketa horietan jasandako edo ordaindutako kuoten ziozko kenkaria txikiagoa izango da, diru-laguntza kuota horiek finantzatzeko erabili den neurri berean.

3. Araubide erraztua aplikatu ahal zaien jarduerek, arlo edo eskualderen batean, sute, uholde edo aparteko beste ezbeharren baten ondorioak jasaten badituzte, Ekonomia eta Ogasun ministroak baimena eman ahal izango du salbuespen gisa indize edo moduluak txikitzeko.

4. Araubide erraztua aplikatu ahal zaion jardueraren batek, sute, uholde, hondoratze edo industri ekipoen matxura larriak direla eta, aurrera egiteko eragozpen larriak jasaten baditu, interesatuek indize edo moduluen txikipena eskatu ahal izango diote Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak euren egoitza-fiskala dagoen lurraldean daukan Ordezkaritza edo Administrazioari, hogeita hamar eguneko epean, ezbeharra gertatzen den

egunetik hasita, eta egoki deritzeten frogak aurkeztu ahalko dituzte. Zerga Administrazioak ezbeharra egiaztatu ondoren, indize edo moduluak behar beste txikitzea erabakiko da.

Halaber, aurreko lerroaldean azaldutako prozedura beraren bidez, indize edo moduluen txikipena eskatu ahal izango da baldin eta jardueraren titularrari aldi baterako ezgaitasuna suertatzen bazaio eta ordezko langilerik ez badu.

### 39. artikulua. Sarrerak aldizkakotzea.

Subjektu pasiboak egutegiko urte bakoitzaren amaieran kalkulatuko du sartu beharreko kuoten zenbatekoa, aurreko artikuluan azaldutako moduan. Dena dela, urtearen lehenengo hiru hiruhilekoetako aitorpen-likidazioetan kontura sartu beharko du kopuru horren zati bana, Ekonomia eta Ogasun ministroak ezartzen duen prozeduraren bitartez kalkulatutakoa.

Zergari buruzko Legearen 123. artikuluko lehen idatz-zatiko bigarren lerroaldean aipatutako eragiketen likidazioa zerga sortzen den likidazio-aldi bereko aitorpen-likidazioan egingo da. Aktibo finkoak eskuratu edo inportatzeagatik jasan edo ordaindutako kuoten kenketa, berriz, zergari buruzko arau orokorrei jarraituz egin ahalko da. Hala ere, subjektu pasiboak egutegiko urteko azken aldiko aitorpen-likidazioan likidatu ahal izango ditu lerroalde honetan azaldutako eragiketak.

### 40. artikulua. Betebehar formalak.

1. Araubide erraztua duten subjektu pasiboek jasotako fakturen erregistro-liburua edukiko dute, eta araubide berezi erraztua aplikatu ahal zaien jardueretarako ondasun eta zerbitzuak eskuratu edo inportatzeagatik zerga jasan edo ordainduz gero, eskuraketa eta inportazio horiei buruzko fakturak eta agiriak liburu horretan idaztohartuko dituzte. Erregistro-liburuan banan idaztohartu behar dira zergari buruzko Legearen 123. artikuluko lehen idatz-zatiko bigarren lerroaldeko 3. zenbakian aipatutako aktibo finkoen inportazioak eta eskuraketak, eta erregularizazioak egiteko behar diren datu guztiak jarriko dira aktibo finkoei buruz, hala behar denean.

   Araubide berezi erraztua ezin aplikatu zaien beste jarduera batzuk egiten dituzten subjektu pasiboek banan idaztohartu behar dituzte jarduera-arlo bakoitzean egindako eskuraketen fakturak.

   Araubide berezi erraztuko jardueraren baten indize edo moduluak eragiketen kopuruari aplikatu beharrekoak badira, subjektu pasiboak beste erregistro-liburu bat eduki behar du halako jardueran egindako eragiketak idaztoharteko.

2. Araubide berezi erraztua duten subjektu pasiboek gorde egin behar dituzte aplikatutako indize edo moduluen gordekinak. Indize edo moduluok aplikatu, ministroak haiek onesteko ematen duen aginduan ezarritakoaren arabera aplikatu behar dira.

### 41. artikulua. Aitorpen-likidazioak.

1. Araubide erraztua duten subjektu pasiboek urtean lau aitorpen-likidazio aurkeztu behar dituzte, Ekonomia eta Ogasun ministroak ezartzen duen eredu zehatzaren arabera eginak.

2. Aitorpen-likidazio arruntak apirilean, uztailean eta urrian aurkeztu behar dira, hilaren lehenengo hogei egunetan

   Azken aitorpen-likidazioa hurrengo urteko urtarrilean aurkeztu behar da, hilaren lehenengo hogeita hamar egunetan.

### 42. artikulua. Indize, modulu eta gainerako parametroen onespena.

1. Ekonomia eta Ogasun ministroak onetsiko ditu indize, modulu eta gainerako parametroak, Zergari buruzko Legearen 123. artikuluko lehen idatz-zatian xedatutakoaren ondoreetarako.

2. Ministroak urtebete baino aldi luzeagorako eman ahal izango du agindua. Hala denean, kalkuluetarako metodoak urtez urte zehaztu behar dira aginduan.

3. Ministroaren agindu hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da abenduaren 1a baino lehen, hurrengo urtean aplikatu dadin.

## III. KAPITULUA
## NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA ARRANTZARI BURUZKO ARAUBIDE BEREZIA

### 43. artikulua. Aplikazio-eremu subjektiboa.

1. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari buruzko araubidea nekazaritza, baso, abeltzaintza edo arrantzako ustiategien jabeei aplikatu zaie Zergari buruzko Legean eta araudi honetan adierazten diren baldintzak betetzen badituzte eta, araudi honetako 33. artikuluan xedatutakoaren arabera, araubide horri uko egiten ez badiote.

2. Jarraikoak nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezitik at daude:

   a) Araubide berezi hori aplikatu ahal zaien jardueretan aurreko urtean 250.000 eurotik gorako eragiketak egin dituzten subjektu pasiboak, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arauetan beste kopururen bat ezartzen ez bada aurreko lerroaldean aipatutako jardueren etekinak zehazteko zenbatespen objektiboko metodoa aplikatzearen ondorioetarako; hala izanez gero, azken kopuru horri eutsiko zaio

   b) Aurreko urtean egindako eragiketa guztietan, goiko a) letran aipatutako eragiketak salbu, letra horretan ezarritako zenbatekoa gainditu duten subjektu pasiboak.

   c) Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta, subjektu pasiboaren enpresa-jardueretarako edo jarduera profesionaletarako ondasun eta zerbitzuak erosteagatik edo inportatzeagatik, ibilgetuen elementuei buruzkoak kanpo, aurreko urtean urteko 150.000 euro gainditu dituzten subjektu pasiboak.

   Aurreko urtean jarduera hasi denean, aurreko paragrafoetan aipatutako zenbatekoak urtean zehar zabalduko dira.

3. Aurreko 2. ataleko a) eta b) paragrafoek aipatzen duten operazioen zenbatekoak zehazteko, hurrengo arauak aplikatuko dira:

   a) Araubide erraztua, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia edo Ogasun eta Herri Administrazioko ministroak zehazten dituen nekazaritzako, basozaintzako eta abeltzaintzako araubide sinplifikatua aplikatzean egindako eragiketetatik hauek baino ez dira zenbatuko: erregelamendu honetako 40. artikuluko 1. idatz-zatiko hirugarren paragrafoan eta 47. artikuluko 1. idatz-zatian aipatutako erregistro-liburuetan jaso behar diren eragiketak.

   b) Zergaren araubide orokorra edo a) paragrafoan aipatutakoez beste araubide berezi bat aplikatu zaien jardueretan egindako eragiketak Zergari buruzko Legeko 121. artikuluan xedatutakoaren arabera zenbatuko dira Hala ere, ez dira zenbatuko ondasun higiezinak errentatzeko eragiketak baldin eta errentamendua enpresa-jarduera bati loturik ez badago, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian xedatutakoaren arabera

4. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari uko egiteko era eta epeak araudi honen 33. artikuluan ezarritakoak izango dira. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan errenten eratxikipenaren araubidea duten erakundeen ukoak bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiek formulatu behar dituzte.

5. …

### 44. artikulua. Nekazaritza, baso, abeltzaintza eta arrantzako ustiapenaren kontzeptua.

Nekazaritza, baso, abeltzaintza eta arrantzako ustiapentzat joko dira lugintzatik, ustiapenetatik edo harrapaketatik zuzenean produktu naturalak lortzen dituztenak eta, bereziki, honako hauek:

1. Oro har, nekazaritza jarduerak burutzen dituztenak. Horien artean, produktua non lantzen den -berotegi eta mintegietan izan arren- berdin delarik, honakoak lantzea dago: landare apaingarri eta aromatikoak, sendabelarrak, loreak, txanpinoiak, espezieak, haziak edo birlandatzeko landareak.

2. Basogintzako ustiapenak.

3. Abeltzaintza, horren barruan hegazti-hazkuntza, erlezaintza, untxi-hazkuntza, zetar-hazkuntza eta ehiza-espezieen hazkuntza, lurraren ustiapenari loturik badago, sartzen direlarik.

4. Ur gezako arrantza ustiapenak.

5. Molusku eta oskoldunen haztegiak eta arrain haztegiak.

### 45. artikulua. Transformakuntza prozesutzat jotzen ez diren jarduerak.

Zergari buruzko Legearen 126. Artikuluko lehenengo idatz-zatiko 1. zenbakian xedatutakoaren ondoreetarako, honako hauek ez dira transformakuntza prozesutzat jotzen:

a) Ondasunak iraunarazteko baino ez diren ekintzak. Honakoak, esaterako: pasteurizazioa, hozketa, izozketa, lehorketa, sailkapena, garbiketa, enbalajea edo egokipena, oskol kentzea, azal kentzea, ezpaltzea, zatitzea, desinfekzioa eta zomorro galketa.

b) Abereak hiltzea eskatzen ez duten lehengai agropekuarioen ekoizte hutsa.

Transformakuntza jardueren izaera zehazteko orduan ez da kontuan hartuko ekoizleen kopurua edo jardueraren lan mekanikaren izaera eskulangintzazkoa edo usadiozkoa den.

### 46. artikulua. Araubide berezian sartzen diren zerbitzu osagarriak.

Zergari buruzko Legearen 127. artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako, honako zerbitzu hauek, besteak beste, izaera osagarrikotzat joko dira:

1. Landatu, erein, lur landu, uzta bildu eta garraiatzeko lanak.

2. Produktuen enbalaje eta egokipena, lehorketa, garbiketa, oskol kentzea, zatiketa, ziloan biltzea, biltegiratzea eta desinfekzioa barne.

3. Animaliak hazi, zaindu eta gizentzea.

4. Laguntza teknikoa.

   Laguntza tekniko horretan ez dira sartuko nekazaritzako ingeniari edo teknikoek ematen dituzten lanbide zerbitzuak.

5. Nekazaritza, baso, abeltzantza eta arrantzako iharduerak egiteko eskuarki erabiltzen diren lanabes, makineria eta instalakuntzen errentamendua.

6. Landare eta animalia kaltegarriak hiltzea eta landatutako sail eta alorrak gasez edo keaz desinfektatzea.

7. Lurrak ureztatzeko eta lehortzeko instalakuntzen ustiapena.

8. Arbolak moztu, entresaka egin, ezpaltzea eta azal kentzea, basoak garbitzea eta basogintzako horrelako beste zerbitzu osagarriak.

### 47. artikulua. Betekizun formalak.

1. Oro har, araubide berezi honen menpeko subjektu pasiboek, Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela-eta, erregistro-liburua eduki behar dute eta bertan idaztohartu behar dituzte araubide berezian sartzen diren eragiketak.

2. Jarraian aipatuko diren subjektu pasiboek, gainera, betebehar hauek izango dituzte:

   1.a. Araubide erraztuaren jarduera hauez gain, araubide erraztu hori edo baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia aplikatu behar zaizkien jarduerak ere burutzen dituzten subjektu pasiboek jasotzen dituzten fakturak erregistratzeko liburua eduki beharko dute; bertan, jarduera sektore bakoitzari dagozkion eskuraketei buruzko fakturak idaztohartuko dituzte behar bezala bereizirik; baita nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziari buruzkoak ere.

   2.a. Aurreko zenbakian aipatutakoez besteko araubidea, araubide orokorra edo bestelako araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketa edo jarduera burutzen dituzten subjektu pasiboek araudi honetan orokorrean edo bereziki ezartzen diren betekizun formalak bete beharko dituzte horiek direla-eta. Jasotzen dituzten fakturak erregistratzeko liburuan nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziaren menpeko jarduerei dagozkien eskuraketei buruzko fakturak beti ere idatzi beharko dituzte besteetatik behar bezala bereizirik.

### 48. artikulua. Konpentsazioen itzulketa.

1. Zergari buruzko Legearen 131. artikuluko 1. zenbakiak adierazitakoari jarraituz Herri Ogasunak egin behar dituen konpentsazio itzulketetarako eskabideak Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak subjektu pasiboaren zerga-egoitza dagoen lurraldean daukan Administrazioan edo Ordezkaritzan aurkeztuko dira, urteko hiruhileko bakoitzaren osteko lehenengo hogeita bost egunean.

   Alabaina, urteko azken hiruhilekoari dagokion itzulketarako eskabidea hurrengo urteko urtarrilaren lehen hogeita hamar egunean aurkeztu ahal izango da.

   Eskabidea horretarako onartzen den ereduari lotu behar zaio.

2. Zergaren Legeak 131. artikuluko 2. zenbakian xedatutakoaren arabera, araubide berezian daudelako, ondasunen erosleak edo zerbitzuen hartzaileak ordaina itzuli behar badute, nekazaritzaren, basogintzaren, abeltzaintzaren edo arrantzaren produktuak entregatzen direnean edo adierazitako zerbitzu osagarriak eskaintzen direnean egingo dute. Berdin dio oinarri bezala hartuko den prezioa zer egunetan ordaintzen den. Itzulera dokumentatzeko, fakturazioaren betebeharrak arautzen dituen Araudiak, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak onartutakoak, 16. artikuluko 1. atalean adierazitako ordainagiria egingo da.

   Aurreko paragrafoan xedatutakoa alde batera utzita, konpentsazioen itzulera ondasunen edo zerbitzuen prezioa erabat edo zati batean kobratzen denean egin ahal izango da, interesatuen arteko adostasunez. Proportzioa kontuan hartu beharko da.

### 49. artikulua. Konpentsazioen kenketa.

1. Zergaren Legeak 134. artikuluan aipatzen duen ordainen kenketa-eskubidea izateko, ordaindu dituzten enpresaburuek edo profesionalek haiek egindako ordainagiria, fakturazioaren betebeharrak arautzen dituen Araudiak, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak onartutakoak, 16. artikuluko 1. atalean adierazitakoa, izan beharko dute. Dokumentua egindako erosketen frogagiria izango da, kenketa lortzeko.

2. Aipatu dokumentuek kenketarako eskubidea justifikatuko dute, bakarrik Araudiaren 16. artikuluan xedatutakoarekin bat datozenean eta erosleak osatu behar duen Liburu Erregistro berezian idazten direnean. Bidezkoak direnean, Liburu Erregistroari jasotako fakturen Liburu Erregistrorako xedatutako baldintzak aplikatuko zaizkio.

3. Aurreko 1. eta 2. atalak aipatzen dituzten ordainagirien originalak eta kopiak zergaren preskripzio-epean kontserbatuko dira.

### 49 bis artikulua. Araubide bereziaren aplikazioa abian jartzea edo horri uztea.

1. Jadanik aribidean dauden jardueren kasuan, betiere horiei begira araubide berezi horren aplikazioa abian jartzen bada edo horri uzten bazaio, kasuan kasuko nekazaritza-, abeltzaintza-, baso- edo arrantza-ustiapenaren gaineko titularrak jardueretan erabiliko dituen ondasunen inbentarioa egin beharko du, eta araubide berezia aplika dakiekeen kasuak aipatu beharko ditu, horren aplikazioa abian jarri edo horri uzteko egunaren aurretixeko eguna adierazita.

   Era berean, inbentario horretan zergen araubidea aldatzeko datan eman ez diren ustiapen egokietan eskuratutako produktu naturalak adierazi beharko dira.

   Aipatutako inbentarioa, titularrak sinatuko duena, bere zerga-egoitzako Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren Administrazioan edo Ordezkaritzan aurkeztu beharko du, 15 eguneko epean, araubide bereziaren aplikazioa abian jartzen den edo horri uzten zaion egunetik zenbatuta.

2. Inbentario horretan aipatutako egoeren erregularizazioaren ondoriozko kenkaria araubide bereziaren aplikazioari uzten zaion likidazio-epealdiaren aitorpen-likidazio egokian ezarri beharko da.

   Araubide bereziaren aplikazioa abian jartzen denean egin beharreko erregularizazio horren ondoriozko diru-sarrera aldizkakoa ez den aitorpen-likidazioaren aurkezpenaren bitartez gauzatu beharko da, eta hori Ogasun Ministerioak ezarritako tokian, moduan, epeetan eta inprimakietan egin beharko da.

## IV. KAPITULUA
## ONDASUN ERABILIEN ETA ARTE-LANEN, ZAHARKINEN ETA BILDUMAKO OBJEKTUEN ARAUBIDE BEREZIA

### 50. artikulua. Zerga oinarria mozkin-margina orokorraren bidez zehazteko aukera.

1. Zergari buruzko Legearen 37. artikuluko bigarren idatz-zatian aipatutako aukeraz baliatu nahi izanez gero, jardueraren hasierako aitorpena aurkezteaz batera egin behar da, edo bestela abenduan, aukerak hurrengo urtean eragina izan dezan. Aukera berez luzatuko da (arestian esandako epe berean interesatuak beren beregi hari uko egin ezik) hurrengo urteetan, eta, gutxienez ere, mozkin-margina orokorraren bidez zerga oinarria zehazteko araubidea lehenengoz aplikatzen den urtearen hurrengoa amaitu arte. Hori guztia gorabehera, Zerga Administrazioak ezeztatu egin dezake mozkin-margina orokorraren modalitatea aplikatzeko emandako baimena, Zergari buruzko Legearen 137. artikuluko bigarren idatz-zatiko 1. zenbakian adierazitako moduan.

   Artikulu honetan aurreikusitako aukeraketak, bai eta ezeztatzeak ere, 27ko 1065/2007 Errege Dekretuak onartutako Erregelamendu Orokorraren arabera egin beharko dira (Zergak kudeatu eta ikuskatzeko jarduketa eta prozeduren Erregelamendu Orokorra, tributuak aplikatzeko prozeduren arau erkideak ere garatzen dituena).

2. Eragiketak asko direnean eta ondasunen prezioa oso txikia, zail izaten da eragiketa bakoitzaren mozkin-marginaren zerga oinarria zehazteko modalitatea ondasun-emateei aplikatzen. Horregatik Zerga Administrazioaren Estatu Agentziako Zerga Kudeaketako Sailak baimena eman ahal izango du, interesatuak eskatuz gero, horrelakoetan zerga oinarria mozkin-margina orokorraren modalitatearen bidez zehaztu dadin, salbu eta

ondasunak Zergari buruzko Legearen 137. artikuluko bigarren idatz-zatiko hirugarren lerroaldeko 1. arauko a), b) eta c) lerroaldeetan aipatuetarikoak direnean.

Kudeaketa Sailak eskaeraren bidezkotasunaz iritzia azaldu behar du hiru hilabeteko epean, eskaera aurkezten den egunetik hasita. Epe horretan iritzirik azaltzen ez badu, eskaerari ezetza eman zaiola ulertu beharko da.

3. Subjektu pasibo birsaltzaileek, zerga oinarria zehazteko modalitate hori aukeraztuz gero, Legearen 137. artikuluko bigarren idatz-zatiko 4. zenbakian aipatutako urteko erregularizazioa urtero egingo dute abenduaren 31n, araubide horretan dirauten bitartean, eta haren emaitza urte bereko azken epealdiko aitorpen-likidazioari erantsiko diote.

   Modalitatea aplikatzeari uzten bazaio, hori egiten den epealdiko aitorpen-likidazioan egingo da erregularizazioa.

**51. artikulua. Formari eta erregistroei buruzko betekizun berariazkoak.**

Orokorrean xedatutakoez gain, ondasun erabilien, arte-objektuen, zaharkinen eta bilduma-objektuen erregimen berezia aplikatzen duten subjektu pasiboek hurrengo betebehar bereziak bete beharko dituzte, erregimen berezi horretan eragindako operazioei dagokienez:

a) Erregistro-liburu berezi batean idaztohartu behar dira, banan-banan eta behar bezala bereizita, subjektu pasiboak egindako eskuraketak, inportazioak eta emateak, eragiketa bakoitzaren mozkin-marginaren bidez zerga oinarria zehazteko sistema beraiei aplikatuz gero.

   Liburu horrek zutabe hauek eduki behar ditu:

   1.a. Eskuratu edo inportatutako ondasunaren deskripzioa.

   2.a. Erosketaren fakturaren zenbakia, erosketari buruzko agiri baliokidea edo ondasunaren inportazioari buruzko agiria.

   3.a. Erosketako prezioa.

   4.a. Ondasunaren eskualdaketa dela-eta subjektu pasiboak emandako fakturaren zenbakia.

   5.a. Salmentako prezioa.

   6.a. Salmenta egitean jasanarazitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren azalpena, edo, salbuespena aplikatu bada, salbuespenaren azalpena.

   7.a. Ondasun-ematean araubide orokorra aplikatu delako oharra, hala denean.

b) Beste erregistro-liburu bat eduki behar da, aurreko a). idatz-zatian aipatutakoaz aparte, subjektu pasiboak likidazio-aldi bakoitzean egindako eskuraketak, inportazioak eta emateak bertan idaztohartzeko, mozkin-margina orokorraren bidez zerga oinarria zehazteko sistema beraiei aplikatuz gero.

   Liburu horrek zutabe hauek eduki behar ditu:

   1.a. Eragiketa bakoitzean eskuratu, inportatu edo emandako ondasunen deskripzioa.

   2.a. Ondasunen erosketaren fakturaren zenbakia, erosketari buruzko ordezko agiria edo ondasunen inportazioari buruzko agiria.

   3.a. Erosketako prezioa.

   4.a. Ondasunen eskualdaketa dela-eta subjektu pasiboak emandako fakturaren zenbakia.

5.a. Salmentako prezioa.

6.a. Salbuespenaren azalpena, halakorik egonez gero.

7.a. Egutegiko urte bakoitzaren hasierako izakinen eta amaierako izakinen balioak, Zergari buruzko Legearen 137. artikuluko bigarren idatz-zatian ezarritako erregularizazioa egin ahal izateko. Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritako balorazio-arauak erabiliko dira baliook kalkulatzeko.

c) Zerga oinarria zehazteko mozkin-margina orokorraren modalitatea aplikatzen hasten bada edo hura aplikatzeari uzten bazaio, Zergari buruzko Legearen 137. artikuluko bigarren idatz-zatiko 6. arauan aipatutako erregularizazioaren ondoreetarako, subjektu pasiboek euren izakinen inbentarioak egin behar dituzte, zerga oinarria zehazteko mozkin-margina orokorraren modalitatea aplikatu zaien izakinen inbentarioak alegia, modalitate hori aplikatu den lehen edo azken egunaren bezperan.

Subjektu pasiboak sinatu egin behar ditu inbentario horiek eta bere zerga-egoitza dagoen lurraldean Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak daukan Ordezkaritzan edo Administrazioan aurkeztu behar ditu, hamabost eguneko epean, zerga oinarria zehazteko modalitate hori aplikatu den lehen edo azken egunetik hasita.

## IV BIS KAPITULUA
## INBERTSIORAKO URREAREN ARAUBIDE BEREZIA

### 51 bis artikulua. Inbertsiorako urre kontzeptua.

Zergari buruzko Legearen eranskineko bederatzigarren idatz-zatian xedatutakoaren ondoreetarako, lingoteen merkatuek onartutako moduan kontzeptu horretan sartzen dira honako pieza hauek:

a) 12,5 kilogramoko lingoteetatik, 350-430 ontza urre daukatenak.

b) Gainerako pisuak dituzten lingoteetatik, urre edukian aurrekoekin gehienez %2ko aldea dutenak.

### 51 ter artikulua. Salbuespenari uko egitea.

1. Eskualdatzaileak egiten duen eragiketa bakoitzeko egin behar zaio ukoa Legearen 140 ter artikuluko lehenengo idatz-zatian araupetu den salbuespenari. Uko hori idatziz jakinarazi behar zaio eskuratzaileari, inbertsiorako urrea ematean edo lehenago. Gainera, ematea zergapean badago, eskualdatzaileak eskuratzaileari idatziz jakinarazi behar dio aurrerantzean bera izango dela zergaren subjektu pasiboa, Legearen 140 quinque artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Zerbitzugileak egindako eragiketa bakoitzeko egin behar zaio ukoa Zergari buruzko Legearen 140 ter artikuluko bigarren idatz-zatian araupetu den salbuespenari. Zerbitzu-hartzaileak sinatutako agiri bat eduki behar du zerbitzugileak eta bertan agertu behar da bitartekotza-zerbitzuaren laguntzaz egin den urre-ematean uko egin zaiola Balio Erantsiaren gaineko Zergaren salbuespenari.

### 51 quater artikulua. Erregistro-eragiketa zehatzak.

Inbertsiorako urrearekiko eragiketak eta araubide berezia aplikatzen ez zaien beste jarduera batzuk batera egiten dituzten enpresari edo profesionalek behar bezala bereirizik agertarazi behar dituzte, jasotako fakturen erregistro-liburuan, jarduera-arlo horietariko bakoitzeko eskuraketak edo inportazioak.

## V. KAPITULUA
## BIDAI AGENTZIEN ARAUBIDE BEREZIA

### 52. artikulua. Zergaren araubide orokorra aplikatzeagatik aukera.

Zergaren araubide orokorra aplikatzeagatik aukera, Zergaren Legeak 147. artikuluan aipatutakoa, subjektu pasiboak egindako eragiketa bakoitzeko burutuko da. Aukera idatziz jakinarazi beharko zaio eragiketaren hartzaileari, ostatatzearen ala garraioaren zerbitzuak edo horiekiko osagarriak edo gehigarriak eskaini baino lehen edo aldi berean. Hala eta guztiz ere, jakinarazpena gauzatutzat joko da, fakturak fakturazioaren betebeharrak arautzen dituen Araudiak, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak onartutakoak, 6.1.n) eta 7.1.i) artikuluetan azaltzen den aipamenik ez duenean.

### 53. artikulua. Erregistroei buruzko betekizun berariazkoak.

Subjektu pasiboek bidaiariaren intereserako zuzenean burutu diren ondasun edo zerbitzuen eskuraketei dagozkien fakturak idaztohartuko dituzte jaso diren fakturen erregistro-liburuan behar bezala bereizirik.

## VI. KAPITULUA
## BALIOKIDETASUN-ERREKARGUAREN ARAUBIDE BEREZIA

## LEHEN ATALA

### 54. artikulua. Transformakuntzakoak jotzen ez diren eragiketak.

Zergari buruzko Legearen 149. artikuluan adierazitakoaren ondoreetarako, segidan zerrendatzen diren eragiketak ez dira joko transformakuntzako eragiketatzat eta, beraz, ez dute galaraziko txikizkako merkatari izaera. Hona hemen:

1. Produktuak transformatu gabe sailkatzeko eta ontzietan sartzeko eragiketak.

2. Markak eta etiketak jartzekoak, baita prestakuntza eta ebakitzekoak ere, eskualdatzen diren ondasunak eman aurretik egindakoak.

3. Elikagaiak garbitu, desinfektatu, eho, haiei azala kendu eta ikuzteko eragiketak eta, oro har, araudi honetako 45. artikuluko a) letran deskribatzen diren erabilketak.

4. Haragi eta arrain freskoak hoztu, izoztu, zatitu edo haiei erraiak kentzeko prozesuak.

5. Gortina eta errezelak egin eta jartzea.

6. Beste batzuek egindako janzkiak egokitze hutsa.

### 55. artikulua. Formari eta erregistroei buruzko betekizunak txikizkako merkataritzaren araubide berezietan.

...

## 2. ATALA

### 56. artikulua. Araubide bereziaren salbuespenak.

...

### 57. artikulua. Araubide bereziaren edukia: txikizkako salmentaren jarduketa egiten den lehenengo urteari aplikatzeko portzentajea.

...

**58. artikulua. Kontularitzari eta erregistroei buruzko betekizunak.**

...

## 3. ATALA

**59. artikulua. Aplikazio betekizunak.**

1. Baliokidetasun errekarguaren araubide berezia txikizkako merkatariei aplikatuko zaie Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez errenta eratxikipenaren araubidean dauden pertsona fisiko edo entitateak badira eta artikulu honetako 2. idatz-zatian salbuesten ez diren edozein izaeratako salgai edo produktuak txikizka salerosten badituzte.

   Aurreko idatz-zatian aipatzen den errenta eratxikipenaren araubidean dauden entitateak araubide honen menpe egongo dira beren bazkide, oinordeko, erkide eta partaide guztiak pertsona fisikoak direnean bakarrik.

2. Honako salgai edo produktuei dagokienean, ezin izango da inolako kasuan araubide berezi hau aplikatu:

   1.a. Errepidean ibiltzeko motoredun ibilgailuak eta ibilgailuen atoiak

   2.a. Itsasontzi eta ureko ibilgailuak.

   3.a. Hegazkinak, abionetak, belaontziak eta bestelako aireontziak.

   4.a. Aurreko zenbakietan agertzen diren garraiobideen osagarriak eta aldatu beharreko piezak.

   5.a. Bitxiak, harri bitxiak, perla naturalak edo artifizialak, urrez edo platinoz osorik edo zatiren batean egindako objektuak, baita harri bitxiak, perla naturalak edo urrea zein platinoa duen bisuteria fina, horietaz bustiak edo estaliak baino ez izan arren.

   Zerga honen ondoreetarako, honakoak baizik ez dira harri bitxitzat joko: diamantea, errubia, zafiroa, esmeralda, aguamarina, opaloa eta turkesa.

   Zenbaki honetan esandakotik salbuesten dira:

   a) Urrez edo platinoz busti edo estaliak diren objektuak kaparen lodiera 35 mikra baino txikiagoa denean.

   b) Damaskinduak.

   6.a. Luxuzko larruekin egindako janzkiak edo apaingarrizko arropak.

   Ondore horietarako, honako larruak, bipildu babekoak, jotzen dira luxuzkotzat: erbinude zuria, astrakanak, breistchwaz, burunduky, kastorea, zibelina, Txinako zibelina, zibeta, txintxilak, txintxiloiak, lepazuriak, basakatua, katajineta, jatuna, gepardoa, jaguarra, lehoia, leopardo zuria, katamotza, otsoa, lepahoriak, Kanadako lepahoriak, mufloia, itsas igaraba, kantxaska igaraba, ozelotea, hartza, panda, pantera, pekana, pisshikia, platipusa, tigrea, ipurtatsak, bikuina, bisoiak, azeri urdina, azeri zuria, gurutzedun azeria, zilar azeria eta shadow azeria.

   Zenbaki honetan esandakotik salbuesten dira bai txatalez edo hondakinez, buruez, hankez, isatsez, ebakinez eta abarrez, bai larru arruntez edo imitaziozkoez egindako boltsa, diruzorro eta antzeko gauzak.

   7.a. Jatorrizko arte-lanak, zaharkinak eta bildumako objektuak, Zergari buruzko Legearen 139. artikuluan zehaztutakoak.

8.a. Eskualdatu baino lehen, subjektu pasibo eskualdatzaileak edo besteren batek erabilitako ondasunak.

9.a. Hegazti-hazkuntza eta erlezaintzarako tresnak, eta tresna horien osagarriak.

10.a. Petrolio gaiak, haien ekoizpen, inportazio edo salmenta Zerga Berezien menpe badaude.

11.a. Industri erabilerako makineria.

12.a. Eraikuntzak eta urbanizazioak eraikitzeko gaiak eta produktuak.

13.a. Meak, ikatza izan ezik.

14.a. Burdina, altzairu eta beste metalak eta haien aleazioak, eskulandu gabekoak.

15.a. Inbertsiorako urrea, Zergari buruzko Legearen 140. artikuluan definitutakoa.

**60. artikulua. Baliokidetasun-errekarguaren araubide bereziari lotutako jarduketetan hastea edo gelditzea.**

1. Erregimen beresian hasi edo amaitzen denean, subjektu pasiboek merkaturatzeko ondasunen izakinen inbentarioak egin beharko dituzte, horiei erregimen berezia aplikatu behar bazaie. Aplikazioa hasi edo amaitzen den aurreko eguna aipatuko da.

   Aipatutako inbentarioak subjektu pasiboak sinatuko ditu eta helbide fiskalari dagokion Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren Administrazioan edo Ordezkaritzan aurkeztu beharko dira hamabost eguneko epean, erregimen bereziaren aplikazioan hasi edo amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

2. Inbentarioak aipatzen dituzten egoerak erregularizatzearen ondorioz sortutako diru-sarrerak edo kenketak erregimen bereziaren aplikazioan hasiera edo amaiera sortu den kitapen-deialdiari dagokion aitorpen-kitapenetan egin beharko dira.

**61. artikulua. Baliokidetasun-errekarguaren araubide bereziaren betekizunak, formari eta erregistroei buruzkoak.**

1. Erregelamendu honetako 59. artikuluaren 1. atalean ezarritako subjektu pasiboek hornitzaileen aurrean, edo hala denean, aduanan, baliokidetasun-errekarguaren araubide bereziaren mende dauden edo ez dauden egiaztatu beharko dute, egindako erosketei edo inportazioei dagokienez.

2. Araubide berezi hau aplika dakiekeen subjektu pasiboak ez dira behartuta egongo kontularitzazko erregistroak egitera Balio Erantsiaren gaineko Zergarengatik.

   Aurreko idatz-zatian esandakotik salbuesten dira:

   1.a. Enpresariak, bestelako jarduerak egin eta haiei edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia, edo araubide erraztua aplika badakieke; enpresari horiek jasotzen diren fakturen erregistro-liburu bat eduki beharko dute. Bertan jarduera sektore bakoitzari dagozkion eskuraketei buruzko fakturak idaztohartu beharko dituzte behar bezala bereizirik, baita baliokidetasun-errekarguaren araubide bereziari dagozkionak ere.

   2.a. Zergaren araubide orokorra edo Zergaren beste araubide berezietakoren bat, aurreko zenbakikoak salbu, aplika dakiekeen eragiketa edo beste jarduerak burutzen dituzten enpresariek araudi honetan orokortasunez edo berariaz formari buruz ezartzen diren betekizunak kunplitu beharko dituzte haiei dagokienez.

Hala ere, baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia aplikatzen zaien jarduketei dagozkien eskuraketen fakturak idaztohartu beharko dira jasotzen diren fakturen erregistro-liburuan behar bezala bereizirik.

3. Araubide berezi hau aplikatzen zaien subjektu pasiboek dagozkion aitorpen eta likidazioak aurkeztu beharko dituzte ondoren azaltzen diren kasuetan:

1.a. Ondasunak Erkidegoaren barruan erosten direnean edo Zergaren Legeak 84. artikuluan, bat atalean, 2. zenbakian aipatutako eragiketen hartzaileak direnean.

Halakoetan, eragiketen ondasunei edo zerbitzuei dagokien zergaren aitorpenen bitartez eta, hala badagokio, gainordainarekin egingo dituzte diru-sarrerak.

2.a. Zergaren itzulketarako eskubidea duten bidaiariei ondasun emateak egiten dizkietenean.

Aitorpen horien bitartez, bidaiariei ordaindu dizkieten zenbatekoen itzulketa eskatuko dute, Zerga itzultzeko prozesu honetan jarduten duten interesatuei edo entitate laguntzaileei eginako eskualdaketen bidez kreditatu beharko direla horretarako.

3.a. Cuando realicen entregas de bienes inmuebles sujetas y no exentas al Impuesto, salvo que se trate de operaciones a que se refiere el artículo 84, apartado uno, número 2.º, letra e), tercer guión, de la Ley del Impuesto.

Horrelako kasuetan, aitorpenen bitartez ordainduko da egindako eragiketengatiko zerga.

4. ...

## VII. KAPITULUA
## ERAKUNDE-TALDEAREN ARAUBIDE BEREZIA

### 61 bis artikulua. Errolda-informazioa eta loturaren definizioa.

1. Erakundeen multzoaren kide diren erakundeek eta Zergaren Legearen IX. Tituluko IX. Kapituluan aurrez ikusitako araubide berezia aplikatu behar dutenek gorabehera hori Zerga Administrazioaren Estatuko Agentzian organo eskudunari jakinarazi beharko diote.

Jakinarazpen hori ondoreak sortu behar dituen egutegiko urtearen aurreko urteko abenduan izandako erakunde menderatzaileak egin beharko du, eta ondoko datu hauek bilduko ditu:

a) Multzoa osatzen duten erakundeak eta araubide berezia aplikatuko dutenak identifikatzea.

b) Zerga aplikatu beharreko lurraldean kokatutako establezimendu iraunkor ez-egoiliarren kasuan, erakunde menderatzaileak izanez gero, Zerga aplikatu beharreko lurraldean kokatutako erakunde ez-egoiliarraren identifikazioa galdatuko da.

c) Araubide berezia aplikatzeko erakundeek sinatutako erabakien kopia.

d) Erakunde menderatzailearen zuzeneko edo zeharkako partaidetza-ehunekoaren zerrenda, araubide berezia aplikatuko duen erakunde bakoitzari dagokionez, eta partaidetza horien eskuraketa-data.

e) Erakunde menderatzaileak eta mendeko guztiek Zergari buruzko Legearen 163 quinquies artikuluan ezarritako betekizun guztiak aplikatzen direla jasotzen duen adierazpena.

f) Hala denean, Zergari buruzko Legearen 163 sexies.bost artikuluan ezarritako aukera, bai eta horri uko egiteko aukera ere. Aukera horren bidez, Zergari buruzko Legearen 163 octies artikuluaren lehenengo eta hirugarren paragrafoetan xedatutako aplikatuko da.

Informazio hori jasotzeko administrazio-organo eskudunek erakunde menderatzaileari egiletsitako erakunde-taldeen kopurua komunikatuko dio.

Gisa bertsuan, erakunde menderatzaileak komunikazioa aurkeztu beharko du, baldin eta araubide berezia aplikatzen duten erakunde-taldeen gain eragina duen edozein aldaketa egiten bada. Komunikazioa hori gertatzen den likidazio-epealdiaren aitorpen-likidazioaren epealdi egokian aurkeztu beharko da.

2. Talde baten kide izanik, aurreko atalean xedatutakoarekin bat, araubide berezia aplikatzea aukeratzen duten erakundeek, era berean, Zergaren Legeak 163 sexies.bost artikuluan xedatutakoa aplikatzea aukera dezakete. Nolanahi ere, aukera hau araubide berezia aplikatzen duen erakunde-multzorako izango da. Gainera, erakunde-multzo berdinaren kide izan beharko dute.

   Aukera hori araubide bereziaren aplikazioarekin batera edo aplikazio hori abian jarri ostean egikaritu ahal izango da, baina hori ondorea sortu behar duen egutegiko urtearen aurreko urteko abenduan komunikatu beharko da.

   Aukera horren baliozkotasuna gutxienez egutegiko urtebetekoa izango da, eta ulertuko da hori luzatu egin dela, horri uko egin ezean. Ukapenaren baliozkotasuna gutxienez urtebetekoa izango da, eta Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren organo eskudunak igorritako komunikazioaren bidez egikarituko da. Ukapen horrek ez du ezarriko eragozpenik hori aurkezten duten erakundeek erakunde-taldearen araubide berezia aplikatzeko, Zergari buruzko Legearen 163 sexies.bost artikuluan xedatutakoa izan ezik, artikulu bereko 1. paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe.

3. Zergaren Legeak 163.sexies.bost artikuluan xedatutako aukera erabili duten erakundeek hainbanaketa bereziaren erregela aplikatuko dute multzoaren barruko eragiketen sektore bereiziari dagokionez. Hori Zergari buruzko Legeak 103.bi.1. artikuluan aipatzen du. Dena delakoa, multzoko erakunde bakoitzaren gainerako sektore bereiziei dagokienez erabil daitezkeen aukerak ez dira baztertuko.

4. Egutegiko urte bakoitzaren abenduan, erakunde menderatzaileak Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren organo eskudunari, bere taldearen barruan, araubide berezia aplikatzen duten erakundeen zerrenda komunikatu beharko dio, eta aurreko urteari begira sortutako edozein aldaketa identifikatu beharko du. Zernahi gisaz, abenduan taldean erakundeak sartu badira, erakunde horiekin zerikusia duen informazioa aurkezteko epea hurrengo urtarrilaren 20an bukatuko da.

   Taldean erakundeak sartzen badira, komunikazio horrekin batera, erakunde horiek araubide berezia onartzeko hartutako erabakien kopia aurkeztu beharko dute. Erabaki horiek araubide berezia zein egutegiko urtetan aplikatu behar eta egutegiko urte hori hasi aurretik hartu beharko dira. Halere, taldean sartzen diren sormen berriko erakundeen kasuan, baliozkoa izango da erabakia araubide berezia aplikatzeko lehenengo banakako aitorpen-likidazioaren aurkezpen-epea amaitu aurretik hartzea. Kasu horretan, araubide berezia aitorpen-likidazio horren likidazio-epealdiaren lehenengo egunetik aplikatuko da.

5. Araubide bereziaren ukapena Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren organo eskudunari egindako komunikazioaren bidez egikarituko da, eta ondoreak sortu behar dituen egutegiko urtearen aurreko urteko abenduan egin beharko da.

6. Ogasun eta Herri Administrazioen ministroak eredu berezia onar dezake artikulu honen ataletan aipatzen diren jakinarazpenak bideratzeko. Aurkezteko modua, tokia eta epeak arautu ahal izango ditu.

7. Lotura finantzarioa egongo da, erakunde nagusiak, multzoko erakundeen boto-eskubideetan edo kapitalean ehuneko 50etik gorako partaidetzaren bitartez, horien gainean kontrol eraginkorra duenean.

   Lotura ekonomikoa egongo da multzoko erakundeek jarduera ekonomiko bera garatzen dutenean edo, jarduera desberdinak eginda, osagarriak direnean ala horiek egiten laguntzen dutenean.

   Antolakuntza-lotura egongo da multzoko erakundeetan zuzendaritza erkidea dagoenean.

   Kontrakoa frogatzen ez den bitartean, lotura finantzarioaren baldintza betetzen duen erakunde nagusiak ekonomia- eta antolakuntza-loturaren baldintzak betetzen dituela uste izango da.

### 61 ter artikulua. Aitorpen-likidazioak.

1. Erakunde menderatzaileak erantsitako aitorpen-likidazioak araubide berezia aplikatzen duten erakundeen banakako aitorpen-likidazioak aurkeztu ondoren aurkeztu beharko ditu, erakunde menderatzailea barne.

   Halaber, banakako aitorpen-likidazioetatik edozein ondore horretarako ezarri epean aurkeztu ez bada, taldearen aitorpen-likidazio erantsia aurkeztu ahal izango da, bidezkoak diren jarduketei kalterik egin gabe, hala denean, banakako aitorpen-likidazio hori ez aurkezteagatik.

2. Aplikatu beharreko araubide berezitik kanpo geratutako erakundeek, hala denean, Zergaren araubide orokorra aplikatuko dute, betiere inguruabar hori gertatzen den likidazio-epealditik aurrera. Hain zuzen ere, banakako aitorpen-likidazioak hilero edo hiru hilerik behin aurkeztuko dituzte, eragiketa-kopurua kontuan izanda, eta 71. artikuluan xedatutakoari helduta. Bereziki, araubide bereziaren kanporaketaren ondoreak egutegiko hiruhilekoaren hasiera-dataz besteko data bateri begira sortu badira eta kanporatutako erakundeak aitorpen-likidazioak hiru hilerik behin aurkeztu behar baditu, erakunde horrek hiruhileko aitorpen-likidazioa aurkeztuko du, betiere hiruhileko hori osatu arteko epea barnean hartuta.

   Erakunde-taldearen araubide berezitik kanpo geratutako erakundeak 30. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen baditu, artikulu berean araututako prozedura berezia aukeratu ahal izango du.

3. Ogasun eta Funtzio Publikoaren ministroak banakako aitorpen-lidikazio ereduak eta batuak onartuko ditu araubide berezia aplikatzeko. Aitorpen-likidazio horiek hileko likidazio epea amaitu eta hurrengo hilabeteko lehenengo hogeita hamar egun naturaletan aurkeztu beharko dira edo otsailaren azkeneko egunera arte urtarrileko aitorpen-likidazioaren kasuan.

   Aurreko paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, Ogasun eta Funtzio Publikoaren ministroak, arrazoi teknikoen arabera, bide elektronikoa erabiliz aurkez daitezkeen aitorpenetarako epea zabal dezake.

4. Araubide berezia aplikatzen duten enpresaburuek edo profesionalek ezin izango dute aplikatu uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuak onetsitako zerga-kudeaketaren eta -ikuskapenaren eta zergak aplikatzeko prozedurei buruzko arau erkideen garapenaren jarduketei eta prozedurei buruzko Erregelamendu Orokorraren 138. artikulutik 143. artikulura araututako zerga-gaiaren inguruko kontu-korrontearen sistema.

### 61 quáter artikulua. Salbuespenei uko egitea.

1. Zergari buruzko Legearen 163.sexies.bost artikuluan ezarritako salbuespenei uko egiteko ahalmena erakundeak aipatutako aginduan adierazitako taldearen barruko eragiketen tratamendu berezia garaiz eta behar bezala hautatu duenean egikaritu ahal izango da.

Ahalmen hori eragiketa bakoitzaren arabera garatuko da, hurrengo atalean ezarritako moduan agiriak bilduta.

Ahalmen hori ez dago uko egiteak barnean hartutako eragiketen jasotzaileak jasandako kuotak murrizteko eskubideak dituzten enpresaburu- edo profesional-izaeraren mende.

2. Uko egitea aurrera eramateko, zergaren ondorea, eta, hala denean, Zergari buruzko Legearen 163.sexies.bost artikuluaren aipamena jasotzen dituen fakturaren igorpenaren bidez egingo da.

   Faktura horrek azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak onetsitako fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren 6. artikuluan ezarritako betekizun guztiak bete beharko ditu.

3. Uko egite horrek adierazitako eragiketetan, orobat, Zergari buruzko Legearen 20.bi artikuluan xedatutako aplikatu badaiteke, Lege honen 163.sexies.bost artikuluan ezarritako ahalmena lehenetsiko da.

   Kasu horretan, salbuespenari uko egitea kasuan kasuko ondasunak eman baino lehen edo emateko unean bertan eskuratzaileari modu sinesgarrian komunikatu beharko zaio. Bestalde, ulertuko da modu sinesgarrian komunikatuko zaiola eragiketak egin ondoren igorritako fakturan Balio Erantsiaren gaineko Zerga beren beregi adierazi bada.

### 61 quinquies artikulua. Araubide bereziaren betebehar formal zehatzak.

1. Erakunde-taldeak Zergari buruzko Legearen 163 sexies.bost artikuluan xedatutakoa aplikatzea aukeratzen badu, erakunde menderatzaileak informazio analitikoa jasotzen duen sistema eskuragarri izan beharko du, eta informazio horren edukia ondokoa izango da:

   a) Taldearen barruko eragiketak egiteko, erabat, zati batean, zuzenean edo zeharka erabilitako ondasunen edo zerbitzuen deskripzioa, jasandako edo ordaindutako Zerga adierazita.

      Zerrenda horretan hirugarrenengandik eskuratutako ondasunak eta zerbitzuak jasoko dira, bai eta hirugarrenengandik eskuratu gabe, Zergaren mendeko eragiketetatik edozeinen ondorioz jasandako edo ordaindutako kuotak eragin dituztenak ere.

   b) Zerga-oinarriaren eta ondasunen nahiz zerbitzuen ondorioz jasandako edo ordaindutako kuoten zenbatekoa, kasuan kasuko ordainagiriak gordeta.

   c) Ondasun eta zerbitzu horien ondorioz jasandakoetatik edo ordaindutakoetatik kendutako kuoten zenbatekoa, araubide berezia aplikatzen duen erakunde bakoitzak aplikatutako hainbanaketa-erregela (orokorra edo berezia) adierazita.

      Inbertsio-ondasunen kasuan, egindako erregularizazioaren zenbatekoa ere jaso beharko da, hala denean, ondasunoi dagokienez, bai eta horien erabilera-hasiera ere.

   d) Taldearen barruko eragiketen zerga-oinarriari eta eragiketa horien arabera eratutako sektore bereiziari ondasun eta zerbitzu horien kostua egozteko erabili diren irizpideak. Irizpide horiek memoria batean zehaztuko beharko dira, informazio-sistemaren zati izanik, eta irizpideok zenbatu egin beharko dira. Horrez gain, erabilitako magnitudeen ordainagiri formalak nahitaez gorde beharko dira, hala denean, informazio-sistema gorde beharreko epe osoan. Aipatutako irizpideak, ahal den neurrian, ondasunak eta zerbitzuak taldearen barruan benetan erabiltzeko ideiari zuzenduta egongo dira, bestelakoen erabilerari kalterik egin gabe, hala nola, eragiketa horien merkatuaren ohiko balioaren proportziozko egozpena lehia askean, betiere ondasunen eta zerbitzuen benetako erabilera egiaztatzea ezinezkoa denean. Irizpide horiek aurretiaz Zerga Administrazioak baloratu ahal izango ditu. Ekonomia eta Ogasun ministroak aurretiazko balorazio hori garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak adierazitako ditu.

2. Erregelamendu honen 61 quáter artikuluaren 2. paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, Zergari buruzko Legearen 163 sexies.bost artikuluan xedatutakoa aplikatzen duten erakundeek taldearen barruan burutzen dituzten eragiketak igorritako fakturan jaso beharko dira, eta azken horrek azaroaren 30ko 1619/2012 Errege Dekretuak onetsitako fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren 6. artikuluan ezarritako betekizun guztiak bete beharko ditu. Hala eta guztiz ere, aipatutako eragiketen zerga-oinarri gisa Zergari buruzko Legearen 163 octies.bat artikuluan xedatutakoaren ondoriozkoa eta Lege bereko 78 eta 79. artikuluetan xedatutakoaren aplikazioaren ondoriozkoa aipatu beharko dira, kasu bakoitzari dagokiona identifikatuta.

   Faktura horiek serie berezian igorri beharko dira, eta, hala denean, igorritako fakturen erregistro-liburuan bereizita gorde beharko dira.

**61 sexies artikulua. Kontrol-prozedurak.**

1. Erakunde nagusiaren eta erakunde taldearen egiaztapena prozedura bakarrean egingo da eta prozeduraren xede diren taldearen nahiz erakunde nagusiaren zerga obligazioak egiaztatu direla jasoko du.

2. Erakundeen taldea egiaztatzearen ondorioz, egiaztapenaren xede den mendeko erakunde bakoitzean prozedura bakarra garatuko da. Prozeduraren barruan Balio Erantsiaren gaineko zergari dagokion banako zergapetze araubidearen ondoriozko zerga obligazioak sartuko dira, prozeduraren xede diren gainerako zerga obligazioekin batera. Horrez gain, erakundeen taldeko araubidea kontuan hartuta taldeko zergapetzearekiko lankidetza jarduerak sartuko dira.

3. 58/2003 Legeak, abenduaren 17koak, Zergari buruzko Orokorrak, 68.1.a) artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera, erakundeen taldeari dagokionez, Balio Erantsiaren gaineko Zerga preskribatzeko epea honakoengatik etengo da:

   a) Balio Erantsiaren gaineko Zergarekiko taldeko erakunde nagusiak egiten duten edozein egiaztapen jarduerarengatik.

   b) Edozein mendeko erakundek egiten duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren edozein egiaztapen jarduerarengatik, betiere taldeko erakunde nagusiak jarduerak formalki ezagutzen baditu.

4. Prozedura ikuskatzaileari dagokionez, 58/2003 Legeak, abenduaren 17koak, Zergari buruzko Orokorrak, 150. artikuluko 4. eta 5. ataletan aipatutako gorabeheherek, baita taldeko edozein erakundek gauzatutako jardueretan zehar gainerako zerga prozedurekiko etenaldi justifikatuek eta zerga administrazioari egotz ez dakizkiokeen arrazoiengatik luzapenek ere , erakunde nagusiari eta erakunde taldeari buruz jarraitutako prozeduran iraupen epeari eragingo diote, betiere taldeko erakunde nagusiak jarduerak formalki ezagutzen baditu. Gorabehera horiek gertatu arren, taldeko gainerako erakunde kideei buruzko jarduerek aurrera egingo dute.

   58/2003 Legeak, abenduaren 17koak, Zergari buruzko Orokorrak, 150.4. artikuluan aipatzen duen epea luzatzeko aldia erakunde nagusiaren eta taldearen kasurako kalkulatuko da eta erakundeen taldean sartutako edozein erakundek eskatutako aldiak bat ez datozela kontuan hartuko da. Erakundeen taldean sartuak dauden sozietateek prozedura bakoitzaren kasuan 60 egun naturalera arte eska ditzakete, baina erakunde nagusiaren nahiz taldekoaren prozedura ebazpenaren epea luzatzeko aldiak batera hartuta ez ditu 60 egun natural gaindituko.

5. Mendeko erakunde bakoitzari buruz jarraitutako prozeduraren dokumentazioa izapidetzeko hurrengo moduan banatuko da:

   a) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko espedientea, zergaren kudeaketa eta ikuskaritza jarduerak eta prozedurak xedatzeko, baita uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako zergen aplikazio prozeduren arau erkideak

garatzeko ere araudi orokorrak 98.3.g) artikuluan aipatzen duen zerga eginbidea izango du. Espedientea erakunde nagusia eta erakundeen taldea egiaztatzeko jarduerak garatzen ari den organoari bidaliko zaio.

b) Prozeduraren xede diren gainerako zerga obligazioekiko bestelako espedientea.

6. Taldeko erakunde nagusiari buruz jarraitutako prozeduraren dokumentazioa izapidetzeko hurrengo moduan banatuko da:

   a) Erakundeen taldeko Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko espedientea, aurreko atalak aipatzen dituen eginbideen laburpena izango duena.

   b) Prozeduraren xede diren gainerako zerga obligazioekiko bestelako espedientea.

## VIII. KAPITULUA
## KUTXA-IRIZPIDEAREN ARAUBIDE BEREZIA.

### 61. artikulua septies. Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatzea aukeratzea.

1. Zergari buruzko Legearen 163. artikuluan (undecies) aipatzen den aukera jardueraren hasieraren adierazpena aurkezten den aldi berean edo, bestela, ondoreak izan behar dituen urte naturala hasi aurreko abenduko hilean egikaritu behar da; horrela, hurrengo urteetarako luzatzen dela ulertuko da, baldin eta horri uko egiten ez bazaio edo araubide honetatik baztertzen bada.

2. Aukera hori subjektu pasiboak burutzen dituzten eragiketa guztiei buruzkoa izan behar da, baldin eta eragiketok araubide berezitik bazterturik ez badaude, Zergari buruzko Legearen 163. artikuluan (duodecies) ezarririk dagoenarekin bat etorriz.

### 61. artikulua octies. Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatzeari uko egitea.

Araubide bereziari uko egitea Zerga arloko Administrazioaren Estatuko Agentziaren organo eskudunari jakinarazpena igorriz egikarituko da, Horretarako, zentsu-aitorpen egokia aurkeztu behar da, eta ondoreak izan behar dituen urte naturala hasi aurreko abenduko hilean formulatu.

Uko horrek gutxienez hiru urteko epealdirako ondoreak izango ditu.

### 61. artikulua nonies. Kutxa-irizpidearen araubide berezitik baztertzea.

Araubide berezi hau aplikatzea aukeratzen duten subjektu pasiboak araubide horretatik baztertuta geratuko dira, baldin eta beroriek urte naturalean burutzen dituzten eragiketen bolumenak 2.000.000 euroko zenbatekoa gainditzen badu.

Baldin eta subjektu pasiboak urte naturalean enpresaren edo lanbidearen alorreko jarduerak abiarazten baditu, zenbateko hori kasuan kasuko urteari aplikatuko zaio.

Kutxa-irizpidearen araubide berezitik bazterturik geratuko dira jasotzaile berari dagokionez urte naturalean zehar 100.000 eurotik gorako zenbatekoa gainditzen duten kobrantzak egiten dituzten subjektu pasiboak.

Baztertzeak berau eragiten duten inguruabarrak gertatzen diren urtearen hurrengo urtean izango ditu ondoreak. Kari hauek direla eta baztertzen diren subjektu pasiboek, hurrenez hurrengo ekitaldietan arestion aipatu diren mugak gainditzen ez dituztenek, berriro ere araubide berezia aplikatzea aukeratu ahal izango dute, Araudi honen 61. artikuluan (septies) adierazten denaren arabera.

### 61. artikulua decies. Erregistro arloko eginbehar bereziak.

1. Kutxa-irizpidearen araubide bereziari heltzen dioten subjektu pasiboek ondoko informazio hau eraso beharko dute Araudi honen 63. artikuluan aipatzen den luzatutako fakturen erregistro liburuan:

   1.a. Eragiketari doakion kobrantza partzialaren edo guztirako kobrantzaren datak, bidezkoa denean zenbateko egokiak banaka adieraziz.

   2.a. Kobrantzarako erabiltzen den banku-kontuaren edo baliabidearen adierazpena, eragiketaren kobrantza partziala edo guztirako kobrantza egiaztatze aldera.

2. Kutxa-irizpidearen araubide berezira biltzen diren subjektu pasiboek, eta bai kutxa-irizpidearen araubide berezira bildurik egon ez arren araubide horrek ukitzen dituen eragiketen jasotzaile diren subjektu pasiboek ere, Araudi honen 64. artikuluan aipatzen den luzatutako fakturen erregistro liburuan ondoko informazio hau jaso beharko dute:

   1.a. Eragiketari doakion kobrantza partzialaren edo guztirako kobrantzaren datak, bidezkoa denean zenbateko egokiak banaka adieraziz.

   2.a. Kobrantzarako erabiltzen den baliabidearen adierazpena, eragiketaren kobrantza partziala edo guztirako kobrantza egiaztatze aldera.

### 61. artikulua undecies. Fakturazio arloko eginbehar bereziak.

1. Fakturazioaren alorreko eginbeharrak araupetu dituen Araudiaren, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsi denaren, 6. artikuluan ezarririk dagoenaren ondoreetarako, kutxa-irizpidearen araubide berezira bildurik dauden subjektu pasiboek luzatzen dituzten faktura orotan eta berauen kopia guztietan “kutxa-irizpidearen araubide berezia”ri doakion aipua jasoko da.

2. Fakturazioaren alorreko eginbeharrak araupetu dituen Araudiaren, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsi denaren, 6. artikuluan ezarririk dagoenaren ondoreetarako, kutxa-irizpidearen araubide berezira bildurik dauden eragiketen faktura eragiketok burutzen diren unean luzatu beharko da, salbu eta eragiketaren jasotzailea enpresaburu edo profesional gisa jarduten duen pertsona bat denean, zeren eta kasu horretan eragiketak burutu diren hilaren hurrengo hilaren 16a baino lehen luzatu beharko baita faktura.

## IX. KAPITULUA
## URRUNEKO SALMENTEI ETA ONDASUNEN BARNE-ENTREGA ETA ZERBITZU-PRESTAZIO JAKIN BATZUEI APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE BEREZIAK.

### 61 duodecies artikulua. Definizioak.

Kapitulu honen ondorioetarako, hurrengoak ulertuko dira:

a) "Batasunaren kanpoko araubidea": Zergaren Legearen IX. tituluko XI. kapituluko 2. atalean araututako araubide berezia.

b) "Batasunaren araubidea": Zergaren Legearen IX. tituluko XI. kapituluko 3. atalean araututako araubide berezia.

c) "Inportazio araubidea": Zergaren Legearen IX. tituluko XI. kapituluko 4. atalean araututako araubide berezia.

### 61 terdecies artikulua. Aukera eta ukoa. Ondorioak.

1. Kapitulu honetan aipatzen diren araubide berezietako bat aukeratzeko, identifikazioko estatu kidean araubide berezietan hasteko adierazpena aurkeztu beharko da, eta adierazpen horrek ondoreak sortuko ditu:

   a) adierazpen hori aurkeztu eta hurrengo hiruhileko naturaleko lehen egunetik aurrera, Batasunaren kanpoko araubidearen eta Batasunaren araubidearen kasuan; edo

   b) enpresaburuari, profesionalari edo bere kontura jarduten duen bitartekariari inportazio-erregimenerako zergaren ondorioetarako identifikazio-zenbaki indibiduala esleitzen zaion egunetik.

   Espainiako Erresuma identifikazioko estatu kidea bada, hasierako deklarazioa Zergaren Legearen 163 noniesdecies, 163 duovicies eta 163 septvicies artikuluetan arautzen da.

   Aurrekoa gorabehera, Batasuneko kanpoko araubidean edo Batasuneko araubidean, enpresaburu edo profesional batek araubide berezi horietan sartutako eragiketak aurreko a) letran aipatutako eragin-data baino lehen hasten dituenean, kasuan kasuko araubide bereziak lehenengo zerbitzu-emate edo -ematearen datatik aurrera izango ditu ondorioak, betiere enpresaburuak edo profesionalak hasiera-adierazpen hori aurkezten badu, beranduenez, zerbitzuak hasi eta hurrengo hilaren hamargarren egunean.

   Atal honetan xedatutakoak ez dio kalterik egingo estatu kideko zerga-administrazioak kapitulu honetan aipatzen diren araubide bereziei erregistroa ukatzeko duen ahalmenari, enpresaburuak edo profesionalak araubide horiei heltzeko baldintzak betetzen ez dituenean.

2. Kapitulu honetan aipatzen diren araubide berezietako edozeini borondatez uko egiteko, identifikazioko estatu kideari erregimen berezietan kargua uzteko adierazpena aurkeztu beharko zaio. Honela egin beharko da:

   a) araubide berezia erabiltzeari utziko zaion hiruhileko naturalaren aurreko hiruhilekoa amaitu baino hamabost egun lehenago gutxienez, eta kargu-uztearen adierazpen hori aurkeztu eta hurrengo hiruhileko naturalaren lehenengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, Batasunaren kanpoko araubidearen eta Batasuneko araubidearen kasuan.

   b) inportazio-erregimena erabiltzeari utziko zaion hilabetea baino hamabost egun lehenago gutxienez, eta kargu-uztearen adierazpena aurkeztu eta hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Kasu horretan, enpresaburuak edo profesionalak egun horretatik aurrera egiten dituen ondasun-entregetarako araubide berezi hori erabiltzeko baimena izateari utziko dio.

   Espainiako Erresumak identifikatzen duen estatu kidearen bitartekariak, bere jarduera inportazio-araubideari atxikitako enpresaburu edo profesionalen kontura amaitzen badu, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eman beharko dio bere erabakiaren berri, bitartekari gisa jarduteari utzi nahi zaion hilaren aurreko hilabete naturala amaitu baino hamabost egun lehenago, gutxienez.

   Espainiako Erresuma identifikazioaren Estatu kidea bada, uzteko aitorpena Zergaren Legearen 163 noniesdecies. 163 duovicies eta 163 septvicies artikuluetan arautzen da.

3. Batasunean kokatuta dagoen enpresaburu edo profesional batek edo, hala badagokio, bere kontura jarduten duen bitartekari batek bere jarduera ekonomikoaren egoitza estatu kide batetik bestera aldatzen duenean edo identifikazioko estatu kidean finkatuta egoteari uzten dionean, baina Batasunean ezarrita jarraitzen duenean eta Batasuneko edo inportazioko araubide bereziei atxikita jarraitu ahal izateko baldintzak betetzen dituenean, ezarrita egoteari uzten dion identifikazioko estatu kidean aurkeztu ahal izango du kargua uzteko adierazpena, eta egoitza edo establezimendu iraunkorra aldatzen den egunean beste estatu kide batean hasteko beste adierazpen bat aurkeztu ahal izango du.

Europar Batasuneko ondasunak entregatzeko araubidea erabiltzen duen enpresaburuak edo profesionalak Batasunean finkatuta egoteari uzten dionean, identifikazioko estatu kide berri gisa adieraziko du zein estatu kidetatik egiten edo garraiatzen dituen ondasunak.

Identifikazioko estatu kidez aldatzeak ondorioak izango ditu aldaketa egiten den egunetik aurrera, betiere enpresaburuak edo profesionalak edo, hala badagokio, bere kontura jarduten duen bitartekariak ukitutako identifikazioko estatu kide bakoitzari dagokion adierazpena aurkezten badu. Adierazpen horretan, identifikazioko estatu kidez aldatzearen berri emango du, egoitza-aldaketa gertatu eta hurrengo hilaren hamargarren egunean gehienez ere, edo Establezimendu iraunkorra edo enpresaburuak edo profesionalak estatu horretatik ondasunak bidaltzeari edo garraiatzeari uzten dion egunetik aurrera.

4. Aurreko 3. paragrafoan aipatutako kasuetan, eta identifikazioko estatu kidearen aldaketa kasuan kasuko likidazio-aldiaren lehen egunaren ondoren gertatzen bada, enpresaburuak edo profesionalak, edo, hala badagokio, bere kontura jarduten duen bitartekariak, aldaketa gertatu den hiruhileko edo hilabete naturalari dagokion zergaren aitorpen-likidazioa aurkeztu beharko du identifikazioko bi estatu kideetan, estatu kide bakoitza identifikazioko estatu kide izan den aldietan egindako eragiketak kontuan hartuta.

**61 quaterdecies artikulua. Baztertzea eta ondorioak.**

1. Enpresaburu edo profesional bat kapitulu honetan aipatzen diren araubide berezietako edozeinetatik baztertzea identifikazioko estatu kideak bakarrik onartuko du. Estatu kide horren erabakia enpresaburu edo profesional horri jakinarazi beharko zaio bide elektronikoz, eta ondoreak sortuko ditu:

   a) jakinarazpen hori egin eta hurrengo hiruhileko naturaleko lehen egunetik aurrera, Batasuneko kanpoko araubidearen eta Batasuneko araubidearen kasuan; edo

   b) jakinarazpen hori egin eta hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera, inportazio-erregimenaren kasuan, salbu eta baztertzea araubide honetako arauak behin eta berriz ez betetzearen ondorio bada; kasu horretan, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

   Enpresaburuak edo profesionalak bitartekariarekin jarduten duenean, bitartekaria hurrengo paragrafoaren arabera baztertzeko akordioak esan nahi du bitartekariaren kontura jarduten zuen enpresaburu edo profesionalak inportazio-araubidetik kanpo geratzen direla. Enpresaburu edo profesional horiek arrazoi horregatik baztertuz gero, horietako bakoitzari jakinaraziko zaio, eta jakinarazpena egin eta hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, bitartekaria baztertzeko arrazoia edozein izan dela ere.

   Hala eta guztiz ere, kanporatzearen arrazoia bada enpresaburuak edo profesionalak jarduera ekonomikoaren edo establezimendu iraunkorraren egoitza aldatzea edo ondasunak bidaltzen edo garraiatzen hasteko tokia aldatzea, aldaketa horren egunetik aurrera izango ditu ondorioak, betiere, enpresaburuak edo profesionalak aldaketa-adierazpena aurkezten badu ukitutako identifikazioko estatu kide bakoitzean, eta, bertan, identifikazioko estatu kidearen aldaketaren berri ematen badu, egoitza edo establezimendu iraunkorra aldatu eta hurrengo hilaren hamargarren egunean beranduenez.

2. Inportazio-erregimenari atxikitako enpresaburu edo profesional baten kontura jarduten duen bitartekari bat kanporatzea identifikazioko estatu kideak bakarrik onartuko du. Estatu kide horren erabakia elektronikoki jakinarazi beharko zaio, eta jakinarazpen horren dataren hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

   Hala eta guztiz ere, kasu hauetan:

   a) jarduera ekonomikoaren egoitza edo kokapen iraunkorra aldatzeagatik baztertzen zaionean, aldaketaren datatik izango du ondorioa, betiere enpresaburuak edo profesionalak nahasitako identifikazioaren Estatu kide bakoitzean aldaketaren aitorpena egiten badu. Nolanahi ere, identifikazioaren Estatu kideari buruzko aldaketaren

jakinarazpena egoitzaren edo kokapen iraunkorraren aldaketa gertatu eta gehienez hurrengo hilabeteko hamargarren egunean egingo du; edo

b) araubide horretako arauak behin eta berriz ez betetzearen ondorio bada baztertzea, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Nolanahi ere, bitartekariak azken hilabete naturalaren aitorpen-likidazioa aurkeztu beharko du, jarduten duen enpresaburu edo profesional bakoitzari dagokion araubidean.

3. Kapitulu honetan aipatzen diren araubide berezietatik baztertzeko kausak izango dira jarraian zerrendatzen direnak:

a) Enpresaburuak edo profesionalak kargu-uztearen adierazpena aurkeztea, araubide berezietako edozeinetan jasotako eragiketak egiteari utzi diolako; horretarako, enpresaburuak edo profesionalak adierazpen hori aurkeztu beharko dio identifikazioko estatu kideari, egoera hori gertatu eta hurrengo hilaren hamargarren egunean beranduenez.

Espainiako Erresuma identifikazioaren Estatu kidea bada, uzteko aitorpena Zergaren Legearen 163 noniesdecies eta 163 duovicies eta 163 septivicies artikuluetan arautzen da.

b) Enpresaburuak edo profesionalak bere jarduerak araubide berezietako edozeinetan egiteari utzi diola uste izateko moduko egitateak egotea. Aurrekoa gertatu dela ulertuko da enpresaburuak edo profesionalak bi urtez kontsumoko estatu kide batean ere erregimen berezietan aipatzen diren eragiketetako bat egiten ez duenean.

c) Araubide berezi hauei heltzeko behar diren betekizunak ez betetzea.

d) Araubide berezien araudiak ezartzen dituen eginkizunak behin eta berriz ez betetzea. Hori, besteak beste, ondorengoetan gertatuko da:

a') enpresaburuari edo profesionalari aurreko hiru aitorpen-aldietan aitorpen bat aurkezteko betebeharraren jakinarazpenak edo oroitzapenak bidali izana, eta dagokion zergaren aitorpena aurkeztu ez izana hamar eguneko epean, oroigarri edo jakinarazpen bakoitza bidaltzen denetik zenbatzen hasita

b') enpresaburuari edo profesionalari jakinarazpenak edo gogorarazpenak aurreko hiru aitorpen-aldietan ordainketa bat egiteko betebeharra duela, eta kopuru osoa hamar eguneko epean ez ordaintzea, oroigarri edo jakinarazpen bakoitza bidaltzen denetik zenbatzen hasita, salbu eta aitorpen bakoitzari dagokion zenbatekoa 100 eurotik beherakoa bada;

c') identifikazioaren Estatu kideak bidali duen oroigarri edo jakinarazpenaren datatik hasita, enpresaburuak edo profesionalak identifikazioaren Estatu kidearen edo kontsumoaren Estatu kidearen esku bide elektronikoa erabiliz hilabeteko epean erregistroak jarri ez dituenean;

d') inportazio-araubideari atxikitako enpresaburuak edo profesionalak behin eta berriz erabiltzen du 150 eurotik gorako berezko balioa duten edo zerga bereziei lotuta dauden ondasunak inportatzeko araubide berezia.

e) bitartekari baten bidez jarduten duen inportazio-araubideari atxikitako enpresaburu edo profesionalarentzat, bitartekari horrek hura ordezkatzeari utzi dion zerga-administrazioari jakinaraztea; horretarako, bitartekariak egoera hori gertatu eta hurrengo hilaren hamargarren egunean beranduenez jakinarazi beharko dio identifikazioko estatu kideari.

Baztertzearen arrazoia aurreko d) hizkian aipatutako ustezkoren bat bada, gutxienez bi urtetan zehar izango du ondorioa, baztertze-datatik zenbatzen hasita eta hiru araubide bereziri dagokienez.

4. Honako hauek izango dira inportazio-araubideari atxikitako enpresaburu edo profesional baten kontura jarduten duen bitartekaria baztertzeko arrazoiak:

   a) Bi hiruhileko naturaletan bitartekari gisa jardun ez izana.

   b) Bitartekari gisa jarduteko beharrezko baldintzak ez betetzea.

   c) Araubide berezi horren araudiak ezarritako betebeharrak behin eta berriz ez betetzea. Hori, besteak beste, honako ondorengoetan gertatuko da:

      a') bitartekariari aurreko hiru aitorpen-aldietan aitorpen bat aurkezteko betebeharraren jakinarazpenak edo gogorarazpenak bidali izana, eta dagokion zergaren aitorpena aurkeztu ez izana hamar eguneko epean, oroigarri edo jakinarazpen bakoitza bidaltzen denetik zenbatzen hasita;

      b') bitartekariari aurreko hiru aitorpen-aldietan ordainketa bat egiteko betebeharraren jakinarazpenak edo gogorarazpenak bidali izana, eta kopuru osoa hamar eguneko epean ordaindu ez izana, oroigarri edo jakinarazpen bakoitza bidaltzen denetik zenbatzen hasita, salbu eta aitorpen bakoitzari dagokion zenbatekoa 100 eurotik beherakoa bada;

      c') bitartekariak ez badu bete identifikazioko estatu kidearen edo kontsumoko estatu kidearen esku bide elektronikoz jartzeko betebeharra, hilabeteko epean, identifikazioko estatu kideak dagokion oroigarria edo jakinarazpena bidaltzen duenetik zenbatzen hasita;

      d') bitartekariak uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako tributuak kudeatzeko eta ikuskatzeko jardunen eta prozeduren eta tributuak aplikatzeko prozeduren arau komunak garatzeko Erregelamendu Orokorraren 144.4 artikuluko c) idatz-zatian ezarritako inguruabarrak bete beharko ditu.

   c) idatz-zati honen kasuan, bitartekariak ezingo du horrela jardun araubide berezitik kanpo utzi duten hilabetearen ondorengo bi urteetan.

5. Batasuneko kanpoko araubidetik edo Batasuneko araubidetik kanpo geratu diren enpresaburuek edo profesionalek zuzenean ordaindu beharko dituzte, kasuan kasuko kontsumoko estatu kideko zerga-agintarien aurrean, baztertzea gauzatu ondoren sortzen diren ondasun-emateen edo zerbitzu-prestazioen ondorioz balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez dagozkien betebehar guztiak.

**61 quinquiesdecies artikulua. Informazioa eman beharra.**

Enpresaburuak edo profesionalak, edo, hala badagokio, bere kontura diharduen bitartekariak, kapitulu honetan aipatzen diren araubide berezi horietako edozeini helduta, aldaketa-adierazpen bat aurkeztu beharko dio identifikazioko estatu kideari, hari emandako informazioan aldaketaren bat gertatzen bada; gehienez ere, dagokion aldaketa gertatu eta hurrengo hilaren hamargarren egunean aurkeztu beharko da adierazpen hori.

Espainiako Erresuma identifikazioaren estatu kidea bada, aldaketa-aitorpena Zergaren Legearen 163 noniesdecies, 163 duovicies eta 163 sepvicies artikuluetan arautzen da.

**61 sexiesdecies artikulua. Erazko betebeharrak.**

1. Batasuneko kanpoko araubideari eta Batasuneko araubideari atxikitako enpresaburuek eta profesionalek araubide berezi horietan jasotako eragiketen erregistro bat eraman behar dute, behar besteko xehetasunez, kontsumoko estatu kideko zerga-administrazioak

zergaren aitorpenetan jasotako datuak egiaztatu ahal izan ditzan. Helburu horrekin, erregistroak hurrengo informazioa izango du:

a) eragiketak egin diren kontsumoko estatu kidea;

b) egindako zerbitzu-emate mota edo emandako ondasunen deskribapena eta kopurua;

c) eragiketa noiz egin zen;

d) zerga-oinarria eta erabilitako moneta adieraztea;

e) zerga-oinarriak ondoren izandako edozein gehitze edo murrizketa;

f) aplikatutako zerga-mota;

g) zergarengatik zorpetutako zenbatekoa eta erabilitako moneta adieraztea;

h) jasotako ordainketen data eta zenbatekoa;

i) eragiketa egin aurretik jasotako edozein aurrerakin;

j) fakturan dagoen informazioa, eginez gero;

k) bezeroaren establezimendua, helbidea edo ohiko bizilekua zehazteko erabiltzen den informazioa, zerbitzu-prestazioak direnean, eta, ondasunen kasuan, horien igorpena edo garraioa hasten eta amaitzen den lekua zehazteko erabiltzen den informazioa;

l) ondasunen itzulketa posibleen edozein froga, zerga-oinarria eta aplikatutako zergaren tasa barne.

2. Inportazio-araubideari atxikita dauden enpresaburuek edo profesionalek edo beren kontura jarduten duten bitartekariek araubide berezi honetan jasotako eragiketen erregistro bat eraman beharko dute, behar besteko xehetasunez, kontsumoko estatu kideko zerga-administrazioak zergaren aitorpenetan jasotako datuak egiaztatu ahal izan ditzan. Helburu horrekin, erregistroak hurrengo informazioa izango du:

a) ondasunak entregatzen diren kontsumoko estatu kidea.

b) emandako ondasunen deskribapena eta kopurua;

c) ondasunak noiz eman ziren;

d) zerga-oinarria eta erabilitako moneta adieraztea;

e) zerga-oinarriak ondoren izandako edozein gehitze edo murrizketa;

f) aplikatutako zerga-mota;

g) zergarengatik zorpetutako zenbatekoa eta erabilitako moneta adieraztea;

h) jasotako ordainketen data eta zenbatekoa;

i) Fakturan dagoen informazioa, eginez gero.

j) bezeroarentzako ondasunen bidalketa edo garraioa non hasi eta amaitzen den zehazteko erabiltzen den informazioa;

k) ondasunen itzulketa posibleen edozein froga, zerga-oinarria eta aplikatutako zergaren tasa barne;

l) eskaera-zenbakia edo transakzio-zenbaki bakarra;

m) bidalketaren zenbaki bakarra, enpresaburuak edo profesionalak zuzenean esku hartzen duenean entregan.

3. Aurreko ataletan aurreikusitako informazioa gorde egin beharko da, bide elektronikoz eskura izateko moduan, berehala eta egindako eragiketa bakoitzeko, eta eskuragarri egongo da bai kontsumoko estatu kidean, bai identifikazioko estatu kidean.

4. Bidezkoa denean, faktura identifikazioaren Estatu kideko arauekin bat egingo da eta horri doituko zaio.

   Espainiako Erresuma identifikazioko estatu kidea bada, fakturaren jaulkipena eta entrega azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuaren bidez onartutako fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduan aurreikusitakora egokituko da.

**61 septiesdecies artikulua. Inportazio-erregimenean bitartekari gisa jarduteko baldintzak eta betekizunak.**

Operadore batek Espainiako Erresuman bitartekari gisa jardun ahal izateko inportazio-araubidearen ondorioetarako, erregimenaren eskubide eta betebeharrak bere gain hartuz Zergaren Legearen 163 quinvicies.Bi artikuluaren b) letran ezarritako baldintzetan, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Zergaren Legearen 164.Bat.2. artikuluan aipatzen den identifikazio fiskaleko zenbakia edukitzea.

b) Zerga aplikatzen den lurraldean ezarrita egotea.

c) Ogasun Publikoaren aurkako delitu bat edo tributuen arloko arau-hauste larri bat egiteagatik, epai edo administrazio-ebazpen irmo baten bidez, bitarteko gisa jarduteko eskaera aurkeztu aurreko lau urteetan kondenatua edo zehatua ez izatea.

   Baldintza hori betetzat joko da honako pertsona hauetako bat ere ez badago aurreko paragrafoan adierazitako egoeran bere jarduera ekonomikoari dagokionez, eskatzailearen jarduera ekonomikoa barne, hala badagokio:

   a') operadorea,

   b') aduana- eta/edo zerga-gaiez arduratzen den enplegatua edo enplegatuak,

   c') coperadorearen ardura duen edo haren zuzendaritza kontrolatzen duen pertsona edo pertsonak.

   Hala eta guztiz ere, betekizun hori betetzat jo ahal izango da zerga-administrazioak arau-hauste bat garrantzizkoa ez dela uste duenean, lotutako eragiketen kopuruari edo magnitudeari dagokionez, eta eskatzailearen fede onari dagokionez zalantzarik ez duenean.

   c ') tartekian aipatzen den pertsona, operadorea ez dena, hirugarren herrialde batean finkatuta dagoenean edo bertan bizi denean, Zerga Administrazioak irizpidea betetzen den ebaluatu beharko du, eskura dituen erregistroetan eta informazioan oinarrituta.

   Operadoreak lau urte baino gutxiago badaramatza ezarrita, Zerga Administrazioak irizpidea betetzen den ebaluatu beharko du, eskura dituen erregistroetan eta informazioan oinarrituta.

d) Finantza-kaudimena egiaztatutzat joko da operadoreak bere konpromisoak betetzeko aukera ematen dion finantza-maila duenean, dagokion jarduera motaren ezaugarriak behar bezala kontuan hartuta.

Betekizun hori egiaztatutzat joko da eskatzaileak honako baldintza hauek betetzen dituenean:

a') ez dago konkurtso-prozedura batean sartuta;

b') bitartekari gisa jarduteko eskaera aurkeztu aurreko azken lau urteetan, aduana- eta zerga-zorrak ordaintzeko finantza-betebeharrak bete ditu;

c') erakusten du, eskabidea aurkeztu aurreko azken lau urteetarako eskuragarri dauden erregistroetan eta informazioan oinarrituta, nahikoa finantza-gaitasun duela bere betebeharrak betetzeko eta merkataritza-jardueren izaerari eta bolumenari buruzko konpromisoei aurre egiteko, bereziki aktibo garbi negatiborik ez izatea, estali daitezkeenean izan ezik.

Operadoreak lau urte baino gutxiago badaramatza ezarrita, eskura dauden erregistroetan eta informazioan oinarrituta ebaluatuko da finantza-kaudimena.

Operadorea Europar Batasuneko aduana-kodearekin eta haren aplikazio-xedapenekin bat etorriz baimendutako operadore ekonomikoa denean joko da betekizun horiek betetzen dituela.

Zerga-administrazioak bitartekari-izaera ukatu ahal izango du inportazio-araubidearen ondorioetarako, operadoreak ez baditu lehen ezarritako baldintza guztiak betetzen.

## IX. TITULUA
## SUBJEKTU PASIBOEN KONTULARITZAKO BETEKIZUNAK

### 62. artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro-liburuak.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak diren enpresari edo profesionalek honako erregistro-liburuak eduki beharko dituzte:

   a) Emandako fakturen erregistro-liburua.

   b) Jasotako fakturen erregistro-liburua.

   c) Inbertsio ondasunen erregistro-liburua.

   d) Elkarte barruko zenbait eragiketaren erregistro-liburua.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa ez da aplikatuko araubide berezi sinplifikatuei, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari eta baliokidetasun-errekarguari atxikitako jarduerei dagokienez, araubide berezi horiek erregulatzen dituzten arauetan ezarritako salbuespenekin, ezta Zergaren Legearen 5. artikuluko lehenengo paragrafoko e) idatz-zatian aipatzen diren pertsonek noizbehinka garraiobide berriak emateari dagokionez ere.

3. Subjektu pasiboek zergei eta kontularitzari buruz dituzten betekizunak kunplitzeko eduki behar dituzten liburu edo erregistroak, baita liburu edo erregistro informatikoak ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako erabili ahalko dira araubide honetan ezartzen diren betekizunei lotuz gero.

4. Zergaren aplikazio lurraldean kokaturik dagoen establezimendu baten baino gehiagoren jabe den subjektu pasiboak haietako bakoitzean lehenengo idatz-zatian ezarritako erregistro-liburuak eduki ahal izango ditu. Bertan establezimendu horietatik egindako eragiketak idaztohartuko ditu bereizirik, baina liburu horietako laburpen idazpenak zerga-egoitzan eduki behar dituen erregistro-liburu orokorretan ere idaztohartu beharko dira.

5. Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren Zerga Kudeaketako Sailak, egoki iritzitako egiaztapenak egin ondoren:

a) Artikulu honetako lehenengo idatz-zatian aipatutako erregistro-liburuak beste erregistro sistema batzuekin ordezkatzeko baimena eman dezake. Ordezko sistemek subjektu pasiboen antolaketa administratibo eta kontularitzazkoei erantzun beharko diete eta, horrekin batera, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tributu betekizunak kunplitzen direla frogatzeko berme osoa emango dute.

b) Egindako eta jasotako fakturen erregistro liburuan araudiak 63. eta 64. artikuluko 3. edo 4. atalean, hurrenez hurren, adierazpen dituen informazio edo aipamen guztiak ez azaltzea, baita idazpen laburpenak, hurrenez hurren, araudiko artikulu beraren, 4. edo 5. atalean xedatutakoekiko baldintza desberdinetan egitea ere, jarduera sektorearen merkataritza eta administrazio jardunek edo fakturak, kontabilitate frogagiriak nahiz aduanen agiriak egiteko baldintza teknikoek aipamenen edo informazioaren izendapenak zailtzen dituztela antzematen denean.

Baimen horiek edozein unetan ezeztatu ahalko dira.

6. Dena den, aurreko ataletan xedatutakoaz gain, artikulu honetako 1. atalak aipatzen dituen erregistro liburuak Zerga Administrazioaren Estatutako Egoitzari dagokion Egoitza Elektronikoaren bidez eramango dira eta, horretarako, enpresaburuek edo profesionalek eta zergaren beste subjketu pasibo batzuek fakturazio erregistroen hornidura elektronikoa egingo dute. Likidazio aldia hilabete naturalarekin bat etorriko da, Araudi honek 71.3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

   Gainera, zergaren enpresaburuek edo profesionalek eta bestelako subjektu pasiboek, aurreko paragrafoan aipatu ez direnek, honako artikuluetan hurrengo atalek aipatzen dituzten erregistro liburuak eramatea aukera dezakete: 40.a, 1. atala; 47.a, 2. atala; 61.a, 2. atala eta artikulu honetako 1. atala. Arautegi honek 68 bis artikuluan xedatutako baldintzetan Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziari dagokion Egoitza Elektronikoaren bidez egin ahal izango dute.

   Aurreko 4. atalean aurrez ikusten denerako, erregistro liburu bakarrak eramango dira eta zergaren aplikazioko lurraldean kokatuak dauden establezimendu guztien eragiketak idatziko dira.

   Fakturazio erregistroen hornidura elektronikoa Zerga Administrazioaren Estatutako Agentziari dagokion Egoitza Elektronikoaren bidez egingo da. Web zerbitzua ala, bidezkoa bada, inprimaki elektronikoa erabiliko da, hori guztia Ogasun eta Funtzio Publikorako ministroaren aginduak onartutako erregistro eremuekin bat.

**62 bis artikulua. Eragiketen erregistroa.**

1. Enpresaburu edo profesional batek, hala jardunez, interfaze digital bat erabiliz lineako merkatu bat, plataforma bat, atari bat edo antzeko beste bitarteko batzuk erabiliz, enpresaburu edo profesional ez diren pertsonei ondasunak entregatzea edo zerbitzuak ematea errazten duenean, enpresaburu edo profesional gisa jardunez, eta ondasun-emate edo zerbitzu-prestazio horiei dagokienez subjektu pasiboaren izaera ez duenean, eragiketa horien erregistroa egiteko betebeharra izango du.

   Erregistroa behar bezain zehatza izango da, zerga-administrazioak egiaztatu ahal izan dezan zerga behar bezala aitortu den, eta haren edukiak honako hauek jaso beharko ditu:

   a) interfaze elektronikoaren bidez entregatzen edo ematen diren prestazioen hornitzailearen izena, posta-helbidea eta helbide elektronikoa edo webgunea, eta eskuragarri badaude:

      a') Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako identifikazio-zenbakia edo hornitzailearen identifikazio fiskaleko zenbaki nazionala; eta

      b') banku-kontuaren zenbakia edo hornitzailearen kontu birtualaren zenbakia;

b) ondasunen deskribapena, haien balioa, bidalketa edo garraioa iritsi den lekua, entregatzeko unea eta, eskuragarri badaude, eskaera-zenbakia edo transakzio-zenbaki bakarra;

c) zerbitzuen deskribapena, haien balioa, zerbitzua non eta noiz emango den zehazteko informazioa eta, eskuragarri badaude, eskaera-zenbakia edo transakzio-zenbaki bakarra.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako erregistroak bide elektronikoz egon beharko du, aldez aurretik eskatuta, estatu kide interesdunen eskura.

   Erregistroa hamar urtez mantenduko da, eragiketa egin den urtearen amaieratik aurrera.

**62 ter artikulua. Ordainketa-zerbitzuen hornitzaileen erregistroen edukia.**

1. Zergari buruzko Legearen 166 quater.a) artikuluan ezarritako ordainketa-zerbitzuen hornitzaileek egindako erregistroetan informazio hau jaso beharko da:

   a) BIC kodea edo erakundea identifikatzen duen beste edozein kode, inolako zalantzarik gabe ordainketa-zerbitzuen hornitzailea identifikatzen duena; baita haren izena edo sozietatearen izena eta onuradunaren izenean betetzen duen eginkizuna ere;

   b) onuradunaren izena edo izen komertziala, ordainketa-zerbitzuen hornitzailearen erregistroetan jasotakoaren arabera;

   c) halakorik izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako dagoen edozein identifikazio-zenbaki, bai eta onuradunaren identifikazio fiskal nazionaleko beste edozein zenbaki ere;

   d) IBAN zenbakia, edo, zenbaki hori eduki ezean, zalantzarik gabe identifikatzea ahalbidetzen duen eta onuradunaren kokapena ematen duen beste edozein identifikazio-bide;

   e) BIC kodea edo erakundea identifikatzen duen beste edozein kode, zalantzarik gabe identifikatzen duena eta onuradunaren izenean jarduten duen ordainketa-zerbitzuen hornitzailearen kokapena ematen duena, onuradun horrek funtsak ordainketa-konturik eduki gabe jasotzen dituenean;

   f) horrelakorik baldin badago, onuradunaren helbidea edo helbideak, ordainketa-zerbitzuen hornitzailearen erregistroetan jasotakoaren arabera; eta, era berean, eskura badaude onuradunaren posta elektronikoaren edo webguneen helbideak jakinaraziko dira;

   g) Zergaren Legearen 166 quater.a) artikuluan aipatzen diren mugaz gaindiko ordainketen xehetasun guztiak;

   h) g) idatz-zatian aipatzen diren mugaz gaindiko ordainketei dagokienez, ordainketa gisa aitortutako itzulketa guztien xehetasunak.

2. 1. ataleko g) eta h) idatz-zatietan aipatutako informazioak honako datu hauek izango ditu:

   a) ordainketaren edo ordainketaren itzulketaren data eta ordua;

   b) ordainketaren edo ordainketaren itzulketaren zenbatekoa eta dibisa;

   c) onuradunak edo haren izenean jasotako ordainketaren jatorrizko estatu kidea, itzulketaren estatu kidea, hala badagokio, eta ordainketaren edo itzulketaren jatorria edo xedea zehazteko erabilitako informazioa, Zergaren Legearen 166 quinquies artikuluarekin bat;

d) ordainketa zalantzarik gabe identifikatzen duten erreferentzia guztiak;

e) hala badagokio, ordainketa merkatariaren lokal fisikoetan hasi dela jasotzen duen datua.

3. Zergaren Legearen 166 ter artikuluan ezarritako definizioak artikulu honen ondorioetarako ere aplikatuko dira.

4. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak emandako informazioaren tratamendua proportzionaltasun- eta beharrizan-mugei lotuta egingo dela bermatuko du, haren babestu beharreko izaera eta datu pertsonalen beharrezko babesa direla eta. Informazio horren tratamendua datu pertsonalak babesteko araudiarekin bat eta beren datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren pertsona fisikoen babesari buruzko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan ezarritako datuak babesteko Europako ereduaren legezko oinarriei jarraikiz (Datuak Besteko Erregelamendu Orokorra) burutuko da; era berean Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren agintari eskudunek arau-hauste penalak prebenitzeko, ikertzeko, detektatzeko edo epaitzeko edo zehapen penalak betearazteko datu pertsonalak tratatzeari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016ko apirilaren 27ko 2016/680 (EB) Zuzentaraua beteko da (zuzentarau horrek Kontseiluaren 2008/977/JAI Esparru Erabakia indargabetzen du), Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritako terminoetan, eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean aitortutako oinarrizko eskubideak, bereziki datu pertsonalak babesteko eskubidea, errespetatuz eta printzipioak betez.

### 63. artikulua. Emandako fakturen erregistro-liburua.

1. Zergari loturik dauden eragiketetan aritzen diren pertsonek ematen dituzten fakturak eta balio bereko agiriak biltzen dituen erregistro-liburu bat eduki eta bete beharko dute.

   Betebehar berdina izango dute, Balio Erantsiaren gaineko Zergarako enpresaburuak edo profesionalak izan gabe, horren subjektu pasiboak direnean, egingo dituzten fakturei dagokienez. Betebehar berdina izango dute, Balio Erantsiaren gaineko Zergarako enpresaburuak edo profesionalak izan gabe, horren subjektu pasiboak direnek, egiten dituzten fakturen arabera.

2. Idazpenak edo idaztoharrak edozein prozedura egokiz orri berezietan egiteak, ordea, balio izango du, gero zenbakiak jarri eta ondo ordenaturik azaleztatzen badira aurreko idatz-zatian aipatu den liburua haiekin osatzeko.

   Hala eta guztiz ere, Arautegiak 62.6. artikuluan aipatzen dituen pertsona eta erakundeen kasuan, jasotako fakturen erregistro liburua Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziari dagokion Egoitza Elektronikoaren bidez eramango da. Xede horrez, fakturazio erregistroen hornidura elektronikoa burutuko da.

3. Egindako fakturen erregistro liburuan, batetik, egindako fakturak inskribatuko dira eta, bestetik, ondorengoak izendatuko dira: zenbakia, baita, bidezkoa bada, seriea ere, egin izanaren eguna, eragiketen eguna, aurrekoaren desberdina bada, hartzailearen izen-abizenak, sozietatearen izena edo izen osoa nahiz identifikazio fiskaleko zenbakia, eragiketen zerga oinarria, Zergari buruzko Legeak 78. eta 79. artikuluetan xedatutakoarekin bat zehaztua, eta, hala badagokio, aplikatutako zerga tasa, baita, aukeran, «BEZa barne» adierazpena ere, zerga kuota eta eragiketa kutxaren irizpidearen araubide bereziarekin bat egin al den. Hala egin bada, Arautegiak 61 decies artikuluko 1 atalean adierazten dituen aipamenak sartuko dira.

   Zuzentzeko faktura jaulki behar ez denean, emandako fakturen erregistro liburu batean jasoko dira zerga oinarriaren eta kuotaren erregularizazioak edo doikuntzak, hasieran kalkulatutakoak bidaia agentzien araubide bereziari edo ondasun erabilien, arte objektuen,

antzinatasunen eta bildumako objektuen araubide bereziari atxikitako eragiketetan, deskontuen edo eragiketa sortu ondorengo beste inguruabar batzuen ondorioz.

Arautegiak 62.6. artikuluan aipatzen dituen pertsona eta erakundeen kasuan, gainera, honako informazioa erantsiko da:

a) Egindako faktura mota, faktura osoa edo sinplifikatua al den adierazita.

   Ogasun eta Funtzio Publikorako ministerioaren arduradunaren aginduz onartzen diren erregistro elektronikoaren eremuek beste zehaztapen batzuk eranstea eska dezakete faktura zehatzak identifikatu ahal izateko, hala nola, hirugarrenek egindako fakturak eta enpresa jardueran edo profesionalean erabiltzen diren dirua itzultzeko dokumentu elektronikoak, ordainagiriak eta bestelako agiriak identifikatzea. Horiek Erregelamendu horren 9.1.2.b) artikuluan eta azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuaren bidez onartutako fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren 16.1 artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarrian aipatzen dira.

b) Hala badagokio, Arautegiak 70. artikuluan aipatzen duen erregistro zuzenketa al den identifikatzea.

c) Eragiketen deskribapena

d) Zuzentzeko fakturen kasuan, modu horretan identifikatu beharko dira eta zuzendutako fakturarekiko erreferentzia sartuko da edo, hala badagokio, aldatzen diren zehaztapenak.

e) Fakturak lehen egindako faktura sinplifikatuak ordezkatu edo trukatzeko egiten badira, ordezkatzen edo trukatzen den fakturaren erreferentzia sartuko da edo, hala badagokio, ordezkatzen edo trukatzen diren zehaztapenak.

f) Araudiak 51 quater artikuluko eta 61 quinquies artikuluko 2. atalean eta fakturatzeari buruzko betebeharrak arautzen dituen Arautegiak, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak onartutakoak, 6. artikuluko 1. atalean j) hizkian eta l)tik p) hizkietara egiten dituen aipamenak.

g) Erregistratu diren eragiketen likidazio aldia, egindako fakturei dagokiena.

h) Eragiketa balio erantsiaren gaineko zergapean ez dagoela adieraztea.

i) Faktura fakturazioaren betebeharrak arautzen dituen azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuan aurrez ikusitako fakturazioaren arloan baimen baten babesean egin bada, emandako baimenaren erreferentzia erantsiko da.

j) Eragiketei ondasun erabilien, arte objektuen, antigoaleko gauzen eta bilduma objektuen araubide berezia aplikatu behar zaienean, eragiketaren zenbateko guztia izendatuko da.

k) Bidaia agentzien araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketen kasuan, eragiketaren zenbateko osoa izendatuko da.

Ogasun eta Funtzio Publikoaren ministerioaren arduradunak Ministerioaren Aginduaren bidez, aurrekoarekin batera, zerga garrantzia duten informazioak eranstea zehatz dezake. Izan ere, hori zergak aplikatzeko prozedurei buruzko arau erkideak garatzeari eta zerga kudeaketa nahiz ikuskaritza prozedura eta jarduerei buruzko Erregelamendu Orokorrak, uztailaren 27ko 1065/007 Errege Dekretuak onartutakoak, 33. artikulutik 36. artikulura bitartean xedatzen du.

4. Aurreko atalak aipatzen dituen fakturen banakako idatzoharraren ordez laburpen idazpenak erabil daitezke eta honakoak ageriko dira: egindako eguna, zerga tasa bakoitzari dagokion zerga oinarri orokorra, zerga tasak, korrelatiboki zenbatutako fakturen kuota orokorra, data

berdinean eginak badira, horien hasierako eta amaierako zenbakiak eta eragiketak kutxaren irizpidearen araubide bereziarekin bat eginak al diren. Hala eginak badira, Arautegiak 61 decies artikuluko 1. atalean adierazten dituen aipamenak sartu beharko lirateke, betiere, aldi berean, honako baldintzak betetzen badira:

a) Luzatutako fakturetan jasotzailearen identifikazioa manuzkoa ez izatea, fakturazioaren alorreko eginbeharrak araupetu dituen Araudian (azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsia) ezarririk dagoenarekin bat etorriz.

b) Dokumentatutako eragiketen sortzapena hilabete natural berean gertatzea.

Halaber, faktura bera zenbait idazpen korrelatibotan adierazi ahal izango da, faktura horretan zerga-tasa ezberdinei eratxikirik dauden eragiketak jasotzen badira.

5. …

6. Era berean, banaka idatzi beharko dira fakturazioaren alorreko eginbeharrak araupetu dituen Araudiaren, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsi denaren, 15. artikuluan aipatzen diren zuzenketa-fakturak, eta ondoko datu hauek eraso beharko dira faktura horietan: zenbakia, luzatze-data, hornitzailearen identifikazioa, zerga-oinarria, zerga-tasa eta zerga-kuota.

**64. artikulua. Jasotako fakturen erregistro-liburua.**

1. Enpresari edo profesionalek, Balio Erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako, eskuratu edo inportatutako ondasunei eta bere jarduera enpresarial edo profesionalaren garapenean jasotako zerbitzuei dagozkien faktura, kontabilitateko frogagiri eta Aduanen agiri guztiak korrelatiboki zenbakitu beharko dituzte. Numerazio hau serie bananduak erabiliz egin ahal izango da, betiere justifikatzen duten arrazoi objektiboak badaude.

2. Aurreko atalak aipatzen dituen dokumentuak jasotako fakturen Erregistro Liburuan idatziko dira.

   Zehazki, enpresari edo profesionalek egindako Zergari lotutako ondasunen komunitate barneko eskuraketak eragiten dituzten entregei dagozkien fakturak idatzita jasoko dira.

   Era berean, Zergaren Legearen 97. artikuluaren lehen atalaren 4. zenbakiak aipatzen dituen kontabilitateko frogagiriak, egonez gero, edo fakturak ere idatzita jaso beharko dira.

3. Baliagarria izango da, berriz, idazpenak edo idatzoharrak egitea, edozein prozedura egoki erabiliz, orri bereizien gainean; ondoren, zenbatu eta korrelatiboki koadernatuko dira artikulu honetan araututako liburua eratzeko.

   Hala eta guztiz ere, Arautegiak 62.6. artikuluan aipatzen dituen pertsona eta erakundeen kasuan, jasotako fakturen erregistro liburua Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziari dagokion Egoitza Elektronikoaren bidez eramango da. Xede horrez, fakturazio erregistroen hornidura elektronikoa burutuko da.

4. Jasotako fakturen erregistro-liburuan banan-banan idatzi behar dira jasotzen diren fakturak eta, hala denean, aduana-agiriak eta arestion adierazi diren agiri guztiak. Ondokoak adierazi beharko dira: jasotze-zenbakia, luzatze-data, eragiketen burutzapen-data (baldin eta data hori luzatze-datarekin bat ez badator), izen-deiturak, sozietatearen egoitza eta izen osoa eta jasotzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia, eragiketen zerga-oinarria (Zergari buruzko Legearen 78 eta 79. artikuluen arabera ezarririk dagoena) eta, hala denean, zerga-tasa, zerga-kuota eta eragiketa kutxa-irizpidearen araubide bereziarekin bat etorriz burutu denentz; azken kasu honetan Araudi honen 61. artikuluaren (decies) 2. idatz-zatian jasotzen diren aipamenak ere sartu beharko dira.

   Artikulu honen 2. idatz-zatiaren bigarren paragrafoan aipatzen diren fakturen kasuan, Erkidegoaren barruko ondasun-eskuratzeei, horietan dokumentaturik dauden entregak

eragiten dituztenei, dagozkien zerga-kuotak faktura horiei doakien idazpenean kalkulatu eta adierazi beharko dira.

Halaber, Artikulu honen 2. idatz-zatiaren hirugarren paragrafoan aipatzen diren fakturen edo, hala denean, kontabilitateko frogagirien kasuan, horietan dokumentaturik dauden ondasun-entregei edo zerbitzugintzei dagozkien zerga-kuotak faktura edo kontabilitateko frogagiri horiei doakien idazpenean kalkulatu eta adierazi beharko dira.

Arautegiak 62.6. artikuluan aipatzen dituen pertsona eta erakundeen kasuan, gainera, honako informazioa erantsiko da:

a) Fakturan ageri den zenbakia eta, hala badagokio, seriea eta Araudiak 62.6. artikuluan sartzen ez dituenek erabilitako harrera zenbakia ordezkatuko du.

b) Hala badagokio, Arautegiak 70. artikuluan aipatzen duen erregistro zuzenketa al den identifikatzea.

c) Eragiketen deskribapena.

d) Araudiak 61 quinquies artikuluko 2. atalean eta fakturatzeari buruzko betebeharrak arautzen dituen Arautegiak, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak onartutakoak, 6. artikuluko 1. atalean l)tik p) hizkietara egiten dituen aipamenak, erkidegoaren barruko ondasunen erosketa bada.

e) Idatzoharra egiten den likidazioaren denboraldiari dagokion zerga kuota kengarria. Kenkariaren erregularizazioa, bidezkoa bada, Zergari buruko Legeak 105.Lau, 109, 110, 111 eta 112 artikuluetan xedatutakoari jarraiki egingo da, erregistratutako kuota kengarriaren aldaketa eragin gabe.

f) Erregistratu diren eragiketen likidazio aldia, jasotako fakturei dagokiena.

g) Eragiketei ondasun erabilien, arte objektuen, antigoaleko gauzen eta bilduma objektuen araubide berezia aplikatu behar zaienean, eragiketaren zenbateko guztia izendatuko da.

h) Bidaia agentzien araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketen kasuan, eragiketaren zenbateko osoa izendatuko da.

Inportazio eragiketen kasuan, eragiketaren kontabilizazio eguna eta aduana agiriaren zenbakia izendatuko da.

Ogasun eta Funtzio Publikoaren ministroak Ministerioaren Aginduaren bidez, aurrekoarekin batera, zerga-garrantzia duten informazioak eranstea zehatz dezake. Izan ere, hori zergak aplikatzeko prozedurei buruzko arau erkideak garatzeari eta zerga kudeaketa nahiz ikuskaritza prozedura eta jarduerei buruzko arautegi orokorrak, uztailaren 27ko 1065/007 Errege Dekretuak onartutakoak, 33. artikulutik 36. artikulura bitartean xedatzen du.

5. Data berean jasotako fakturekin laburpen idazpen orokorra egin daiteke eta jasotako fakturen hasierako eta amaierako zenbakiak idatziz jasoak geldituko dira, hartzaileak eman ostean, betiere hornitzaile bakarretik badatoz, zerga tasa bakoitzari dagokion zerga oinarriaren batura orokorra, zerga kuota orokorra eta eragiketari kutxaren irizpidearen araubide bereziak eragiten al dion. Erantzuna baiezkoa izanez gero, Araudiak 61 decies artikuluko 2. atalean egiten duen aipamena erantsi beharko da, betiere eragiketa multzoaren zenbateko osoak, balio erantsiaren gaineko zerga kanpo, 6.000 euro gainditzen ez baditu eta bakoitzean dokumentatutako eragiketen zenbatekoak 500 euro gainditzen ez baditu, balio erantsiaren gaineko zerga kanpo.

Faktura bat hainbat idazpen korrelatibotan idaztohartu daiteke, baldin eta zerga-tasa desberdinak aplikatzen zaizkien eragiketak hartzen baditu.

### 65. artikulua. Inbertsio ondasunen erregistro-liburua.

1. Subjektu pasiboek, Zergari buruzko Legearen 107-110 artikuluetan agindutakoaren arabera, inbertsio ondasunengatik egiten diren kenketen erregularizazioa egin behar badute, inbertsio ondasunen erregistro-liburu bat eduki beharko dute, eta araudi honetako 68. artikuluko betekizun formalei lotuko zaie.

2. Liburu horretan subjektu pasiboek eskuratu eta inbertsiotzat jotzen diren ondasunak erregistratuko dira behar bezala bereizirik. Inbertsiotzat jotzen diren ondasunak Zergari buruzko Legearen 108. artikuluan aipatzen dira.

3. Subjektu pasiboek, era berean, eskualdatu diren inbertsio ondasunetako bakoitzari dagozkion faktura eta aduana agiriak zehatz-mehatz identifikatzeko behar diren xehetasunak jarriko dituzte erregistro-liburuan.

4. Ondasunak banan-banan hartu eta bakoitza noiz hasi zen erabiltzen, behin betiko hainbanaketa urtekoa zein duen eta, hala behar bada, bere kenketen urteko erregularizazioa zein den ere idaztohartuko da.

5. Inbertsio ondasunen emateak erregularizazio aldian egiten direnean, eman diren inbertsio ondasunei baja emango zaie erregistro-liburuan, bai egindako fakturen erregistro-liburuan emate hori jasotzen duen idazpenaren erreferentzia, bai emate horregatik egiten den kenketaren erregularizazioa bertan idaztohartuz, Zergari buruzko Legearen 110. artikuluan aipatzen den prozeduraren bidez.

6. Idazpenak edo idaztoharrak edozein prozedura egokiz orri berezietan egiteak balio izango du, gero zenbakiak jarri eta ondo ordenaturik azaleztatzen badira artikulu honetan arautzen den liburua haiekin osatzeko.

   Arautegi honek 62.6. artikuluan aipatzen dituen pertsonen eta erakundeen kasuan, erregistro liburua Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziari dagokion Egoitza Elektronikoaren bitartez eramango da eta fakturazio erregistroek hornidura elektronikoa izango dute. Erregistro guztiak urte natural bakoitzaren azkeneko likidazio aldiari dagokion aurkezpen epearen barruan bidali beharko dira.

   Dena den, subjektu pasiboei Enpresaburuen, Profesionalen eta Atxikitzaileen Erroldan baja ematen bazaie, nahitaez aurkeztu behar duten zergaren azkeneko aitorpen-likidazioari dagokion aurkezpen epean erregistro guztiak eskuratu beharko dituzte, zerga kudeaketa eta ikuskaritzaren jarduerei eta prozedurei eta zergak aplikatzeko prozeduren arau erkideak garatzeari buruzko Araudi Orokorrak, uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuz onartutakoak, 146. artikuluan aurrez ikusitako ofiziozko bajaren ustezkoetan izan ezik. Kasu horietan, aurkezpen epea urte natural bakoitzaren azkeneko likidazio aldia izango da.

### 66. artikulua. Erkidego barneko eragiketa jakin batzuen erregistro liburua..

1. Balio Erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasiboek erregistro liburu bat eraman beharko dute erkidego barneko eragiketa batzuei buruz. Erregistro liburu horretan honako hauek jasoko dira:

   1.a. Ondasunak bidali edo jaso izana zergari buruzko legeko 70. artikuluko lehen idatz zatiko 7. zenbakiko b) letran aipatzen diren aditu txostenak edo lanak egiteko.

   2.a. Zergari buruzko legeko 9. artikuluko 3. zenbakian eta 16. artikuluko 2. zenbakian jasotako ondasun transferentziak eta erkidego barruko ondasun-eskuratzeak. Bi kasuetan, 9. artikuluko 3. zenbaki horretako e), f) eta g) paragrafoetako salbuespenetan sartzen direnak ere jasoko dira.

   3.a. Zergaren Legearen 9 bis artikuluan aipatzen den kontsignan dauden ondasunak saltzeko akordio batean jasotako ondasunak bidaltzea edo jasotzea.

2. Erregistro-liburu horretan honako xehetasunak agertuko dira:

A) Aurreko paragrafoko 1. eta 2. zenbakietan aipatutako eragiketei dagokienez:

1.a. Eragiketa eta eragiketaren eguna.

2.a. Eragiketako ondasunen deskripzioa, eskuraketa faktura edo jabego tituluari, halakorik denean, erreferentzia eginez.

3.a. Eragiketari dagozkion bestelako faktura edo agiriak.

4.a. Hartzailearen edo bidaltzailearen identifikazioa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako identifikazio zenbakia eta sozietatearen izena eta helbidea azalduz.

5.a. Ondasunek jatorria edo jomuga duten Estatu kidea.

6.a. Eragiketak egiteko finkatu den epea, horrelakorik finkatu bada.

B) Aurreko paragrafoko 3. zenbakian aipatutako eragiketei dagokienez:

a) Saltzaileak datu hauek agerrarazi beharko ditu:

1.a. Ondasunak zein estatu kidetatik aurrera jaulki edo garraiatu diren, eta ondasunen bidaltze- edo garraio-data.

2.a. Ondasunen xede den enpresaburuaren edo profesionalaren identifikazio-zenbakia, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako, ondasunak ematen edo garraiatzen zaizkion estatu kideak esleitua.

3.a. Ondasunak zein estatu kideri ematen edo garraiatzen zaizkion, ondasunen gordailuzainaren identifikazio-zenbakia (Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako), aurreko 2. zenbakian aipatutako enpresaburua edo profesionala ez denean, ondasunak zer biltegitan biltegiratzen diren (helbidea) eta ondasunak noiz iristen diren biltegira (data).

4.a. Biltegira iritsi diren ondasunen balioa, deskribapena eta kopurua.

5.a. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako, zergari buruzko Legearen 9 bis artikuluaren hirugarren paragrafoaren bigarren lerrokadaren a') idatz-zatian aipatzen den enpresaburu edo profesionalaren identifikazio-zenbakia, ondasunak hasieran destinatu zitzaizkion enpresaburua edo profesionala ordezten duena.

6.a. Deskribapena, Zergari buruzko Legearen 78. eta 79. artikuluen arabera zehaztutako zerga-oinarria, Zergari buruzko Legearen 9 bis artikuluaren bigarren paragrafoko lehen gidoian adierazitako baldintzetan entregatutako ondasunen zenbatekoa eta aleko prezioa, entrega horren data eta enpresaburu edo profesional eskuratzailearen balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako identifikazio-zenbakia.

7.a. Deskribapena, Zergari buruzko Legearen 78. eta 79. artikuluen arabera zehaztutako zerga-oinarria, Zergari buruzko Legearen 9 bis artikuluaren hirugarren paragrafoaren lehen lerrokadan adierazitako baldintzetan transferitutako ondasunen kantitatea eta prezio unitarioa, ondasunen transferentzia hori eragin zuten baldintzak gertatu ziren data eta zergatik gertatu zen.

8.a. Itzulitako ondasunen deskribapena, kopurua eta balioa, Zergari buruzko Legearen 9 bis artikuluko hirugarren paragrafoko bigarren paragrafoko b') idatz-zatian adierazitako baldintzetan, bai eta itzulketaren data ere.

b) Ondasunen hartzaile den enpresaburuak edo profesionalak eta horren ordezkoek datu hauek jaso beharko dituzte:

1.a. Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan eskualdatzen dituen saltzailearen identifikazio-zenbakia, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

2.a. Haien esku jartzeko bidalitako ondasunen deskribapena eta kopurua.

3.a. Zure eskura jartzeko bidalitako ondasunak biltegira noiz iritsi diren.

4.a. Deskribapena, Zergari buruzko Legearen 78. eta 79. artikuluen arabera zehaztutako zerga-oinarria, eskuratutako ondasunen zenbatekoa eta prezio unitarioa, eta Zergari buruzko Legearen 9 bis artikuluaren bigarren paragrafoaren bigarren gidoian aurreikusitako ondasunen Europar Batasunaren barruko erosketa egiten den data.

5.a. Saltzaileak biltegitik erretiratzen dituen eta haren esku egoteari uzten dioten ondasunen deskribapena eta kopurua, bai eta ondasun horiek noiz erretiratzen diren ere.

6.a. Biltegian suntsitutako edo desagertutako ondasunen deskribapena eta kantitatea, eta ondasunak suntsitu, galdu edo lapurtu diren data.

Hala ere, enpresaburu edo profesional horrek aurreko 1., 2. eta 4. zenbakietan aipatutako datuak jaso beharko ditu, baldin eta ondasunak beste enpresaburu edo profesional bati igortzen edo garraiatzen bazaizkio gordailutzeko.

3. Arautegiak 62.6. artikuluan aipatzen dituen pertsona eta erakundeen kasuan, erregistro liburua Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziari dagokion Egoitza Elektronikoaren bidez eramango da. Idatzi behar den eragiketa bakoitzaren xehetasunezko informazioa elektronikoki hornituko da.

Ogasun Ministerioaren titularrak zehaztuko du erregistro horien identifikazioa, ministerio-agindu bidez.

**67. artikulua. Erregistro agirien edukia.**

Erregistro-liburuek honako datuen berri eman beharko dute zehaztasunez likidazio-aldi guztietan:

1.a. Subjektu pasiboak Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela-eta bere bezeroei eragin dien zenbateko osoa.

2.a. Ondasunak erosi edo inportatzeagatik ala jasotako zerbitzuengatik edo, hala badagoki, norbere kontsumoengatik subjektu pasiboak jasandako zergaren zenbateko osoa eta zerga kuota kengarria.

3.a. Elkarte barruko zenbait eragiketaren erregistro-liburuan agertzen diren eragiketei dagokienez, bertan aipatzen diren ondasunen egoera, Elkarte barruko emate edo eskuraketen sortzapena egiten ez den bitartean.

**68. artikulua. Formari buruzko betekizunak.**

1. Araudi honetan aipatzen diren erregistro-liburu guztiak, edozein prozedura erabilita, argitasun eta zehaztasunez, daten arabera ordenaturik, zurigune, tarte, urradura,

zirriborraketa eta tatxadurarik gabe bete beharko dira. Kontularitzazko idaztoharretan ikusten diren akats edo faltak berehala zuzendu beharko dira.

Erregistroko idaztoharretan balioak pezetatan edo eurotan adieraziko dira, enpresari edo profesionalak egindako aukera ezeztaezinaren arabera. Fakturan erabilitako dibisa edo kontu-unitatea erregistroko idaztoharrak egiteko aukeratu den bera ez denean, bihurtu egin beharko da erregistro liburuetan jartzeko.

2. Aurreko idatz-zatian aipatu diren betekizunak inbertsio ondasunen erregistro-liburuan zuriguneak uztearen kaltetan gabe ulertu behar dira, zurigune horiek behin betiko hainbanaketaren kalkuluak eta egokitzapenak egiteko gordetzen baldin badira.

3. Erregistro-liburuen orrialdeak koerlatiboki zenbakituak egongo dira.

4. Aurreko ataletan xedatutakoa ez da aplikagarria izango Arautegiak 62.6. artikuluan aipatzen dituen pertsona eta erakundeentzat, eurotan balioak adieraztearen betebeharra izan ezik.

**68 bis artikulua. Erregistro liburuak elektronikoki eramateko aukera.**

Araudi honen 62.6. artikuluak aipatutako aukera ekitaldi guztian zehar erabil daiteke, zentsu-aitorpena aurkeztuz gero. Aukera erabili ostean, hasten den lehenengo likidazioaren denboralditik izango du ondorea.

Aukera hurrengo urteetarako luzatutzat joko da, uko egiten ez zaion bitartean.

Erregistro liburuak modu horretan eramateko sistema hautatzen dutenek gutxienez aukera hori erabiltzen den urte naturalean fakturazioaren erregistro hornidurarekin bete beharko dute.

Uko egiteko Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziako organo eskudunari jakinarazi beharko zaio eta, xede horrez, errolda aitorpena aurkeztuko da. Ondorioa izan nahi duen urte naturalerako aurreko urteko azaroan jakinarazi beharko da.

Hileko itzulera erregistroan inskribatuak dauden subjektu pasiboak, Araudiak 30.6. artikuluan xedatutakoa aplikatzeagatik baztertuta gelditzen badira, era berean, erregistro liburuak Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziari dagokion Egoitza Elektronikoaren bidez eramateko baztertuak daude, baztertze akordioa jakinarazi den likidazio aldiaren lehenengo egunetik ondorioekin.

Zergari buruzko Legeak 163 septies artikuluan xedatutakoarekin bat, erakundeen taldeari dagokion araubide berezia aplikatzeari uzten bazaio, hori gertatzen denetik erregistro liburuak Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziari dagokion Egoitza Elektronikoaren bidez eraman behar izanari utziko zaio.

Aurreko bi paragrafoetan xedatutakoa ez da aplikagarria izango, enpresaburuen edo profesionalen likidazio aldia hilekoa bada, Araudiak 71.3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**68 ter artikulua. Erregistro liburuak elektronikoki eraman aurreko denboraldiari buruz eman beharreko informazioa.**

1. Subjektu pasiboak Zerga Agentziaren egoitza elektronikoaren bidez balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak urte naturaleko lehenengo egunetik eramaten hasi ez badira, urte natural berdina kontuan hartuta, hasi aurreko denboraldiko fakturazio-erregistroak bidali beharko dituzte. Erregistroek denboraldi horretan zehar araudi honek 62.6. artikuluan aipatzen dituen pertsona eta erakunde desberdinentzat egindako eragiketen informazioa izango dute, araudi honek 63.3., 644. eta 66.2. artikuluetan xedatutakoaren arabera, erregistro liburuetan idatzi behar badira.

   Informazioa eskuratzean identifikatuko da eragiketak subjektu pasiboa balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Zerga Administrazioko Estatuko Agentziaren egoitza elektronikoaren bidez eraman aurrekoak direla. Horretarako, arautegiaren 63. eta 64.

artikuluak kontuan hartuta, Ogasun ministroaren aginduz xedatzen diren zehaztapen tekniko, prozedura, formatu eta diseinuari erreparatuko zaie.

Denboraldi horri dagozkion fakturazio-erregistroak bidaltzeko epea sartzen den unetik ekitaldi horretako abenduaren 31ra bitartean luzatuko da.

2. Inbertsio-ondasunei buruzko erregistro liburuak, araudiak 65. artikuluan aurrez ikusitakoak, ekitaldi osoko idazpenak izango ditu.

3. 63.3. eta 64.4. artikuluek aipatzen duten gainerako informazioak, zerga-garrantzia duenak, ekitaldi osoko eragiketak izango ditu.

**69. artikulua. Erregistroko idaztoharrak egiteko epeak.**

1. Erregistroetan idaztohartu beharreko eragiketen idazpenak eragiketa horiei dagozkien likidazio eta ordainketak egiten diren unean edo, bestela, borondatezko aldian likidazio eta ordainketa horiek egiteko legezko epea amaitu aurretik egin beharko dira haiei dagozkien erregistro-liburuetan.

2. Alabaina, subjektu pasiboek eragiketaren bat burutu eta fakturarik egiten ez bada, zazpi eguneko epean idaztohartu beharko da eragiketa egin den momentutik edo agiriak eman direnetik kontaturik, epe hori aurreko idatz-zatian esan dena baino txikiagoa baldin bada.

3. Jasotzen diren fakturak jasotzen diren ordenean anotatu beharko dira erregistro-liburuan eta haien kenketa egin behar den likidazio aldiaren barruan.

4. Araudi honetako 66. artikuluaren 1. idatz-zatian aipatzen diren eragiketak zazpi eguneko epean idaztohartu beharko dira ondasun horien bidalketa edo garraioa abiatzen den momentutik kontaturik.

5. Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatzen zaien eta erregistroan eraso behar diren eragiketak Erregistro-Liburu orokor egokietan idatzita egon behar dira, aurreko zenbakietan ezarririk dauden epeetan, eragiketa horiei arestion aipatu den araubide berezia aplikatuko ez balitzaie legez, eragiketen guztirako kobrantzak edo ordainketak edota kobrantza edo ordainketa partzialak gauzatzen diren unean bertan bete beharreko datuak gorabehera.

**69 bis artikulua. Fakturazio erregistroak elektronikoki bidaltzeko epeak.**

1. Arautegiak 62.6. artikuluan aipatzen dituen pertsona eta erakundeen kasuan, fakturazio erregistroen hornidura honako epeetan egingo da:

   a) Egindako fakturen informazioa, faktura egiten denetik lau egun naturaleko epean, hartzaileak edo hirugarrenak egindako fakturak direnean izan ezik, Zergari buruzko Legeak 164.dos artikuluan xedatutakoaren arabera. Bigarren kasuan, epea zortzi egun naturalekoa izango da. Bi ustezkoetan hornidura erregistratu behar den eragiketaren zerga sortu eta hurrengo hilabeteko 16 egun igaro baino lehen egin beharko da. Hala eta guztiz ere, zergapeko eragiketak ez badira, baina faktura egin behar bada, azkeneko epea eragiketa egin zen datarekiko zehaztuko da.

      Zuzentzeko faktura jaulki behar ez denean eta emandako fakturen erregistro liburu batean zerga oinarriaren eta kuotaren erregularizazioak edo doikuntzak jaso behar direnean, hasieran kalkulatutakoak bidaia agentzien araubide bereziari edo ondasun erabilien, arte objektuen, antzinatasunen eta bildumako objektuen araubide bereziari atxikitako eragiketetan, deskontuen edo eragiketa sortu ondorengo beste inguruabar batzuen ondorioz, oharpen horiek erregularizazio edo doikuntza horiek hauteman eta hurrengo hilaren 16a baino lehen erregistratu beharko dira.

   b) Jasotako fakturei dagokien informazioa, lau egun naturaleko epean, fakturaren kontabilitate erregistroa egiten denetik eta, nolanahi ere, eragiketak sartu diren likidazio aldia amaitu eta hurrengo hilabeteko 16 egun igaro baino lehen.

Inportazio eragiketen kasuan, lau egun naturalak agiriaren kontabilitate erregistroa, aduanengatik kuota likidoa ageri duena, gertatzen denetik zenbatuko dira. Nolanahi ere, sartuta dagoen aitorpenaren epea amaitu eta hurrengo hileko 16 egun igaro baino lehen egingo da.

c) Erregelamendu horrek 66.1. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan aipatzen dituen eragiketei buruzko informazioa, lau egun naturalen epean, bidalketa edo garraioa hasi denetik edo, bidezkoa bada, ondasunak jasotzen diren unetik.

   Erregelamendu honetako 66.1 artikuluko 3. zenbakian aipatutako eragiketei buruzko informazioa, ondasunak biltegira iritsi, eskuratzailearen esku jarri edo erregistratu beharreko eragiketa egin eta hurrengo hilaren 16a baino lehen.

d) Egindako eta jasotako zuzentze fakturekiko informazioa, faktura egin edo kontabilitatean erregistratzen den datatik lau egun naturalen buruan, hurrenez hurren.

   Dena den, zuzenketaren ondorioz hasieran kendutako kuota baino zenbateko handiagoa bada, zergari buruzko legeak 114. artikuluko bi atalaren 1 zenbakian xedatutakoarekin bat, epea jasotako fakturen kasuan aurreko b) hizkian aurrez ikusitakoa izango da.

e) Araudiak 9.1.2.B) artikuluan xedatutakoaren arabera, itzulketa-agiri elektronikoari dagokion informazioa bidaiariak jasandako kuota itzultzeko zergaren zuzenketa sartu eta likidazio-denboraldiaren hurrengo hilabeteko 16a baino lehen eskuratu beharko da.

Aurreko a), b), c) eta d) hizkietan aipatzen diren lau edo zortzi egun naturaleko epea zenbatzeko, larunbatak, igandeak eta jaiegun nazionalak baztertuko dira.

2. Eragiketei kutxaren irizpideari buruzko araubide berezia aplikagarria bazaie, informazioa aurreko ataletan zehaztutako epean eskuratu beharko da, eragiketei araubide berezia aplikatuko ez litzaiekeen bezala, eragiketen kobrantza edo ordainketa osoak ala partzialak egitean eskuratu behar diren datuez gain.

   Kobrantza eta ordainketei buruzko informazioa kobrantza edo gastutik zenbatzen hasita lau egun naturaleko epean gauzatuko da.

3. Araudi honek 70. artikuluan aipatzen dituen erregistro zuzenketei dagokienez, zuzenketak jasotzen dituzten fakturazio erregistroak zergadunak akatsa antzeman duen aldia amaitutakoan, hurrengo hilabeteko 16a baino lehen eskuratu beharko dira.

**70. artikulua. Kontularitzazko idaztoharren zuzenketa.**

1. Aurreko artikuluetan xedatutakoa kontuan hartuta, enpresaburuak edo profesionalak erregistroko idatzoharra egitean akats materialen bat izan badu, jakin bezain laster zuzendu beharko du. Zuzenketa idatzohar edo idatzoharren multzoaren bitartez egin beharko da, zuzendu ostean, likidazio aldi bakoitzerako jasandako eta sortutako zerga zehaztu ahal izateko.

   Aurrekoa Arautegiak 62.6 artikuluan aipatzen dituen pertsona eta erakundeentzat aplikagarria izango da, 69 bis artikuluko 3. atalean xedatutakoarekin bat.

2. Inbertsio ondasunak badira, zuzenketak, horiek erosteagatik kenkarien erregularizazioei eragiten dieten horretan, inbertsio ondasunei buruzko erregistro liburuan idatziko dira, aipatzen den ondasunaren idatzoharrarekin batera eta zuzenketa bezala identifikatu beharko da.

# X. TITULUA
# ZERGAREN KUDEAKETA

## LEHEN KAPITULUA
## LIKIDAZIOA ETA ZERGABILKETA

### 71. artikulua. Zergaren likidazioa. Arau orokorrak.

1. Inportazioei buruz ezarritakoa salbu, subjektu pasiboek berek egin beharko dute zerga zorraren zehaztapena hurrengo idatz-zatietan agertzen diren arauei loturiko aitorpen eta likidazioen bidez.

   Enpresari eta profesionalek artikulu honetako 3, 4 eta 5. idatz-zatietan adierazitako aldizkako aitorpen-likidazioak aurkeztu behar dituzte, eta bai 7. idatz-zatian adierazitako urteko aitorpen-laburpena ere, baita kuotarik sortzen ez denean eta jasandako edo ordaindutako kuoten kenketarik egiten ez denean ere.

   Aurreko idatz-zatian ezarritako betekizunak ez ditu subjektu pasiboak behartuko Zergari buruzko Legearen 20 eta 26. artikuluetan aipatzen diren eragiketa salbuetsietan baino aritzen ez badira.

   7. atalak xedatutakoaren arabera, urteko laburpen-aitorpena aurkeztu beharko da, baina subjektu pasiboek ez dute egin beharko, zerga-administrazioak egiaztapen- eta ikerketa-jardueretarako nahiz -prozedurarako informazio nahikoa badu, subjektu pasiboek edo hirugarrenek zerga-obligazioak betetzearen ondorioz.

   Aurreko artikuluan aipatzen den eginbeharrez salbuesteko subjektu pasiboak Ogasun eta Herri Administrazioen ministroaren aginduz zehaztuko dira.

2. Aitorpenak eta likidazioak zuzenean edo erakunde laguntzaileen bidez aurkeztu beharko zaizkio Zerga Administrazioko eskudun organoari.

3. Likidazio-epealdiak egutegiko hiruhilekoarekin bat egingo du. Hala ere, likidazio-epealdi horrek egutegiko hilabetearekin bat egingo du, jarraian adierazitako enpresaburuak edo profesionalak aipatzen badira:

   1.a. Zergari buruzko Legearen 121. artikuluan xedatutakoarekin bat kalkulatuta, operazioen bolumenak urte naturalean 6.010.121,04 euro gainditu dituzten horiek.

   2.a. Zergari buruzko Legearen 121. artikuluko lehen idatz-zatiko bigarren lerroaldean aipatutako enpresa edo lanbide ondareren bat osorik edo zati batean eskuratu dutenak, baldin eta aurreko urtean egin dituzten eragiketa guztien kopuruaren eta ondarearen eskualdatzaileak ondare hori erabiliz urte berean egindako eragiketen kopuruaren batura 6.010.121,04 euro baino handiagoa bada.

   Zenbaki honetan ezarritakoa eskualdaketa egiten den unetik aplikatu ahal izango da, eta ondoreak hori gertatu den epealdia amaitu eta biharamunean sortuko ditu.

   Zergari buruzko legeko 121. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan xedaturikoaren ondorioetarako, enpresa- edo lanbide-ondare baten eskualdatzetzat jotzen da eskualdatzailearen jarduera adar baten edo batzuen ondare elementuak barne hartzen duena, sozietateen gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legeko 76.4. artikuluan jasota dagoenarekin bat, kontuan izan gabe zergari buruzko legeko 7. artikuluko 1. zenbakiaren arabera zergari loturik ez dauden kasuetakoren bat eskualdatzeari aplikagarria zaion edo ez.

   3.a. Erregelamendu honen 30. artikuluan jasotakoak, bere aldeko saldoaren itzulketa likidazio-epealdi bakoitza bukatzean eskatzeko baimendutakoak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa subjektu pasiboen alde itzuli beharreko kuotarik ez dagoenean ere aplikatu ahal izango da.

4.a. Zergari buruzko Legearen IX. tituluaren IX. kapituluan arautu erakunde-taldearen araubide berezia aplikatzen dutenak.

5.a. …

4. Aitorpen-likidazioak ustezko bakoitzerako Ogasun eta Funtzio Publikoaren ministroak zehazten duen eredura moldatu beharko du eta hori osatu beharko da. Horrez gain, hiruhilekoari dagokion likidazio aldia igaro eta hurrengo hilabeteko lehenengo hogei egun naturaleko epean aurkeztuko da.

   Hala ere, urteko azken aldiari dagokion aitorpen-likidazioa urtarrileko lehen hogeita hamar egun naturaletan aurkeztu beharko da.

   Araudi honek 62.6. artikuluko lehenengo paragrafoan aipatzen dituen pertsona eta erakundeei dagozkien aitorpenak-likidazioak hileko likidazio aldiarekiko hurrengo hileko lehenengo hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztu beharko dira. Otsailaren azkeneko egunera arte izango da urtarrilari dagokion aitorpen-likidazioaren kasuan.

   Ogasun eta Funtzio Publikoaren ministroak, arrazoi teknikoen arabera, bide elektronikoa erabiliz aurkez daitezkeen aitorpenetarako epea zabal dezake.

5. Baldin eta subjektu pasiboa konkurtsopean badago, bi aitorpen-likidazio aurkeztu beharko ditu konkurtsopean deklaratu den hiruhilekoko edo hileko likidazio-aldiagatik, aurreko idatz-zatian adierazitako epeetan: bata, adierazpen horren aurretiko zergapeko egitateei buruzkoa; eta bestea, adierazpen horren ondoko zergapeko egitateei buruzkoa

   Kasu honetan, konkurtso-adierazpenaren aurretiko zergapeko egitateei buruzko aitorpen-likidazioak subjektu pasiboaren aldeko saldoa ematen duenean, saldo hori adierazpen horren ondoko zergapeko egitateei buruzko adierazpen-deklarazioan konpentsatu ahal izango da.

   Baldin eta subjektu pasiboak ez badu aurreko paragrafoan aurreikusitako konpentsazioa egiteko aukera, konkurtso-adierazpenaren aurretiko zergapeko egitateei buruzko aitorpen-likidazioak ematen duen bere aldeko saldoa konpentsazioari eta itzulketa eskatzeko eskubideari buruzko arau orokorrei atxikita egongo da. Baldin eta subjektu pasiboak aipatu konpentsazioa egiteko aukera badu, konkurtso-adierazpenaren ondoko zergapeko egitateei buruzko aitorpen-likidazioak ematen duen bere aldeko saldoa, aipatu konpentsazioa egin ondoren, konpentsazioari eta itzulketa eskatzeko eskubideari buruzko arau orokorrei atxikita egongo da.

6. Aitorpen-likidazioa, aurreko paragrafoan aurreikusitako salbuespena izan ezik, bakarra izango da enpresaburu edo profesional bakoitzarentzat, Ogasun eta Herri Administrazio ministroak Zergan ezarritako erregimen berezien ezaugarriak kontuan hartuz ezartzen duena eta Erregelamendu honen bosgarren xedapen osagarrian aurreikusten dena betetzeari utzi gabe

   Hala ere, zerga-administrazioaren organo eskudunak hainbat subjektu pasibori dagozkien aitorpen-likidazioak dokumentu bakar batean batera aurkeztea baimendu ahal izango du, baimen bakoitzean ezartzen diren kasuetan eta betekizunekin.

   Emandako baimenak edozein unetan atzera bota ahal izango dira.

7. Artikulu honetako 3., 4. eta 5. idatz-zatietan aipatzen diren aitorpen-likidazioez gain, subjektu pasiboek urteko aitorpen-laburpen bat egin beharko dute, Ogasun eta Herri Administrazioak ministroaren Aginduak kasu bakoitzerako onartzen dituen lekuan, forman, epeetan eta inprimakietan.

Baterako adierazpen-deklarazioetan sartutako subjektu pasiboek urteko adierazpen-laburpena ere aurkeztu beharko dute, aurreko paragrafoan ezarritako lekuan, forman, epeetan eta inprimakietan.

Atal honetan aurrez ikusitako urteko aitorpen-laburpena ez dute aurkeztu beharko esklusiboki eragiketa salbuetsiak, Zergaren Legearen 20. eta 26. artikuluan xedatzen direnak, egiten dituzten subjektu pasiboek, ezta Ogasun eta Herri Administrazioen ministroaren Aginduak hala zehazten dituen subjektu pasiboek ere, artikulu honen 1. ataleko laugarren paragrafoak aipatzen dituen ustezko berdinetan.

8. .Aldizkakoa ez den aitorpen-likidazio berezia aurkeztu beharko dute, Ogasun eta Herri Administrazio ministroak ezartzen dituen lekuan, forman, epeetan eta inprimakietan:

1.a. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legearen 5. artikuluko bat idatz-zatiaren e) letran aipatzen diren pertsonak, beste estatu kide batera joateko egiten dituzten garraiobide berrien entregengatik.

2.a. Zergari atxikitako garraiobide berrien erkidego barruko erosketak egiten dituztenak, Zergaren Legearen 13. artikuluko 2. zenbakian xedatutakoaren arabera.

3.a. Zergari atxikita dauden erkidego barruko erosketak, garraiobide berriak ez diren ondasunenak, egitean enpresaburu edo profesional gisa jarduten ez duten pertsona juridikoak, bai eta enpresaburuak edo profesionalak aintzat hartzen direnean, Zergaren Legearen 5. artikuluaren lau idatz-zatian xedatutakoari jarraiki.

4.a. Kenkarirako eskubidea sortzen ez duten eragiketak edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezia edo baliokidetasun-errekarguko erregimen berezia aplika dakizkiekeen jarduerak soilik egiten dituzten subjektu pasiboak, zergari atxikitako ondasunen erkidego barruko erosketak egiten dituztenean edo Zergaren Legearen 84. artikuluko bat idatz-zatiaren 2. zenbakian aipatzen diren eragiketen hartzaileak direnean.

5.a. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezia aplika dakiekeen jarduerak soilik egiten dituzten subjektu pasiboak, Zergari atxikita dauden eta salbuetsita ez dauden inbertsio-ondasun higiezinen entregak egiten dituztenean. Entrega horiek egiteagatik, likidazioa egitera eta likidazioa ordaintzera derrigortuta daude, Zergaren Legearen 129. artikuluko bat idatz-zatiaren bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera.

6.a. Esklusiboki baliokidetasun-gainordainaren araubide berezia aplikagarria zaien jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboek Herri Ogasunari bidaiariei ordaindutako kuotak itzultzea eskatzen diotenean eta horiek lege arautzaileak 21. artikuluko 2. zenbakian xedatutakoaren arabera, zerga ordaintzez salbuetsiak dauden ondasunak direnean, baita ondasun higiezinak entregatzeko eragiketak egiten dituztenean eta zergaz salbuetsiak ez daudenean, Zergaren Legearen 84. artikuluak, bat atalak, 2. zenbakiak, e) hizkiak, hirugarren gidoiak aipatutako eragiketak direnean izan ezik.

7.a. Beste edozein pertsona edo erakunde, Ogasun eta Herri Administrazio ministroaren aginduak horrela zehazten diena.

9. Zerga Administrazioak Zerga honengatiko aitorpen-likidazioen aurkezpenean lankidetza soziala gauzatu dezake, autonomia-erkidegoekin eta beste herri-administrazio batzuekin, sektore edo interes sozialetako, lan-sektore edo -interesetako, enpresa-sektore edo –interesetako, edo sektore edo interes profesionaletako erakunde, instituzio eta organismo adierazgarriekin egindako hitzarmenen bidez.

Aurreko paragrafoan aipatutako hitzarmenak alderdi hauei buruzkoak izan daitezke, besteak beste:

1.a. Informazio- eta hedapen-kanpainak.

2.a. Laguntza aitorpen-likidazioak egitean, eta ondo eta egiaz betetzean.

3.a. Aitorpen-likidazioak zerga-administraziora bidaltzea.

4.a. Akatsak zuzentzea, subjektu pasiboen aurretiko baimena lortu ondoren.

5.a. Ofiziozko itzulketen izapidetzearen egoerari buruzko informazioa, subjektu pasiboen aurretiko baimena lortu ondoren.

Zerga Administrazioak beharrezko laguntza emango du, adierazitako jarduketak garatzeko, subjektu pasiboei orokorrean zerbitzu horiek emateari utzi gabe.

Ogasun eta Herri Administrazio ministroaren Aginduaren bidez, ezarriko da zer kasutan eta zer baldintzatan aurkez ditzaketen hitzarmen horiek sinatu dituzten erakundeek baliabide telematikoen bitartez aitorpen-likidazioak, urteko adierazpen-laburpenak edo zerga-araudiak ezarritako beste edozein dokumentu, hirugarrengo pertsonen ordezkaritzan.

Agindu horrek, era berean, aurreikusi ahal izango du zer beste pertsonak edo erakundek izango duten baliabide telematikoen bidezko aurkezpen-sistema hori erabiltzeko aukera, hirugarrengo pertsonen ordezkaritzan.

### 72. artikulua. Zergaren bilketa. Arau orokorrak.

Aitorpen eta likidazioetatik ateratzen diren kuoten sarrerak eta subjektu pasiboaren aldeko itzulketen eskea Ekonomia eta Ogasun ministroak ezartzen dituen inprimakietan, lekuan, moduan eta epeetan egingo dira.

### 73. artikulua. Zergaren likidazioa inportazioetan.

1. Zergari loturik dauden inportazio eragiketak muga zergekin batera edo inportazio eragiketak, salbuespena edo loturarik eza ez balego, likidatu beharko liratekeenean likidatu beharko dira beste tasengatik egin beharreko beste likidazioek horri lotu gabe burutuko direlarik.

   Aurreko paragrafoan sartuak daude eta, beraz, modu berean kitatuko dira 23. artikuluan aipatutako arloan uzten dituzten izakinak edo 24. artikuluan aipatutako erregimenetatik bereizten direnak, biak Zergari buruzko Legean, mugakoen biltegitik desberdina den erregimenaren kasuan izan ezik, betiere merkantziak legearen 18. artikuluko bigarren atalean xedatutakoarekin bat inportatu badira.

2. Ondore horietarako, inportazio eragiketetan aritzen diren subjektu pasiboek kasuari dagokion tributu aitorpena aurkeztu beharko dute aduanan Ekonomia eta Ogasun ministroak onartutako ereduan eta aduana arautegian ezarritako epe eta moduan.

3. Inportazioekiko asimilatutako operazioen kitapena subjektu pasiboak egingo du aitorpen-kitapenetan eta xede horrez Ekonomia eta Ogasun Ministroak zehaztutako ereduarekin bat.

   Inportazioekiko pareka daitezkeen operazioak egiteagatik sortutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak ereduan bertan ken daitezke, Zergari buruzko Legeak VIII. tituluko I. kapituluan xedatutako baldintzekin bat.

   Kitapen-epeak eta –denboraldiak ondoren zehaztutakoak dira:

   a) Zergari buruzko Legeak 19. artikuluko 1.º, 2.º, 3.º eta 4.º paragrafoetan kontuan hartutako operazioak aitorpen-kitapen batean sartuko dira eta subjektu pasiboaren helbide fiskalari dagokion zerga-administrazioaren organo eskudunaren aurrean aurkeztuko da zuzenean edo erakunde kolaboratzaileen bidez hurrengo epeetan:

1.a. Zergari buruzko Legeak 19. artikuluko 1.º, 2.º eta 3.º paragrafoetan xedatutako operazioak direnean, zerga sortu den urte naturalaren hurrengo urtarrilaren lehenengo 30 egunetan.

2.a. Zergari buruzko Legeak 19. artikuluko 4.º paragrafoan xedatutako operazioak direnean, hiruhileko natural bakoitzean sortutakoak badira, araudi honen 71.4. artikuluan aurrez ikusitako epeetan.

b) Zergari buruzko Legearen 19. artikuluko 5.º paragrafoan deskribatutako operazioen kasuan, araudi honek 71.3. artikuluan aipatzen dituen kitapen-denboraldietan egindakoak badira, aitorpen-kitapen batean sartuko dira eta establezimendua, tokia, area edo biltegia kontrolatzeko zerga-administrazio eskudunaren organoaren aurrean aurkeztuko da, zuzenean edo erakunde kolaboratzaileen bidez, araudiak 71.4. artikuluan aipatutako epeetan.

c) Aurreko b) paragrafoaren operazioak aitorpen-kitapen bakarrean zentralizatuak izenda daitezke eta epe eta denboraldi berdinetan aurkeztuko da subjektu pasiboaren helbide fiskalari dagokion zerga-administrazioaren organo eskudunaren aurrean, zuzenean edo erakunde kolaboratzaileen bidez, ondoren adierazten diren kasuetan:

1.a. Inportazioekin berdinetsi beharrekoak izan eta egutegiko aurreko urtean egin diren eragiketen zerga oinarrien batura 1.500.000 eurotik gorakoa denean.

2.a. Interesatuak eskatuta Administrazioak baimena ematen duenean.

### 74. artikulua. Zergaren bilketa inportazioetan.

1. Zerga honi dagozkion eta ondasunak inportatzeko eragiketetan aduanek likidatutako zerga-kuoten bilketa eta ordainketa Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorrean xedatutakoaren arabera egingo dira.

   Hala eta guztiz ere:

   a) Inportatzailea modu horretan jarduten duen enpresaburua edo profesionala denean eta Araudi honen 71.3 artikuluak xedatutakoari jarraiki, hilabete naturalarekin bat datorren likidazio-epea badu, Aduanek likidatutako kuota denboraldiari dagokion aitorpen-likidazioan sartzea aukera dezake. Horretarako, likidazioa jasotzen duen dokumentua izan beharko du. Halakoetan, inportazio-eragiketetan likidatutako kuotak sartzeko epea Araudi honek 72. artikuluan aurrez ikusitakoa izango da. Zergak oso-osorik Estatuko Administrazioan ordaintzen ez dituzten subjektu pasiboen kasuan, Aduanek likidatutako kuota osoa sartuko da Estatuko Administrazioari aurkezten zaion aitorpen-likidazioan. Subjektu pasiboak esklusiboki Foruaren Zerga Administrazioaren aurreko zergadunak badira, oso-osorik Estatuko Administrazioaren aurrean aurkezten duen aitorpen-likidazioan sartuko da, Ogasun ministerioaren titularrak xedatutako ereduan, tokian, moduan eta epeetan.

      Aukera erabiltzeko Zerga Administrazioaren Estatuko Agentzian zentsu aitorpena aurkeztu beharko da ondorea izan behar duen urte naturala hasi baino lehenago, aurreko azaroan eta hurrengo urteetarako luzatutzat joko da, uko egiten ez zaion bitartean edo baztertzen ez den artean.

      Aukera subjektu pasiboak egindako inportazio guztiei buruzkoa izango da, horiek aldizkako aitorpen-likidazioetan sartu behar badira.

      Ukoa Zerga Administrazioaren Estatuko Agentzian organo eskudunari jakinarazita erabil daiteke. Horretarako, dagokion errolda-aitorpena aurkeztuko da. Ondorioa izan nahi duen urte naturala hasi aurretik aurreko azaroan formulatuko da. Ukoak gutxienez hiru urtez izango ditu ondorioak.

Atal honetan aipatutako aukera erabili duten subjektu pasiboei aplikatzetik baztertuko zaie, likidazio-denboraldia hilabete natural batekin bat ez datorrenean.

Baztertzeak hileko aitorpen-likidazioak aurkeztearen betekizuna uzten denetik izango ditu ondorioak.

b) Zergari buruzko Legearen IX. tituluko XI. kapituluko 4. atalean aipatzen diren eragiketak egiten dituzten enpresaburuek edo profesionalek ez badute aukeratzen atal horretan aurreikusitako araubide berezia aplikatzea, zerga aplikatzen den lurraldean inportatzaileen kontura ondasunak aduanan aurkezten dituen pertsonak modalitate berezi bat aukeratu ahal izango du dagokion balio erantsiaren gaineko zerga aitortzeko eta ordaintzeko.

Aukera hori egindakotzat joko da ondasunak Aduanan aurkezten dituen pertsonak modalitate berezia bide telematikoz erabiltzeko asmoa adierazten badu Aduanaren aurrean.

Zergaren Legearen 167 bis artikuluan aurreikusitako modalitate berezi horrek honako hau eskatzen du:

a) Inportatzaileen kontura merkantzia-aurkezlea dela egiaztatzea Aduanaren aurrean, aduana-araudian aurreikusitako moduan.

b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 952/2013 (EB) Erregelamendua osatzen duen Batzordearen 2015eko uztailaren 28ko 2015/2446 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 143 bis artikuluan aipatutako aduana-formalitateen arabera inportatutako merkantzia guztiei buruzko hileko aitorpena aurkeztea, inportatzaileen kontura, Europar Batasuneko Aduana Kodearen xedapen jakin batzuei buruzko garapen-arauekin, Aduana-araudiak xedatzen duen moduan, biresportazioa frogatzen denean edo suntsitzea edo bertan behera uztea erabakitzen denean izan ezik.

c) Aurkeztutako aitorpenean jasotako eragiketen erregistro bat eramatea, modalitate bereziaren arabera. Horretarako, erregistro horrek, hilabete natural bakoitzeko eta bidalketa bakoitzerako, honako informazio hau jaso beharko du:

    a') aurkeztutako inportazio-aitorpenaren identifikazio-zenbakia;

    b') ondasunak Aduanan noiz aurkeztu ziren;

    c') hartzaileak entregatu gabeko edo baztertutako ondasunen bidalketen gaineko biresportazioaren deklarazioaren edo jakinarazpenaren zenbakia, edo, hala badagokio, zerga aplikatzen den lurraldea suntsitu edo bertan behera uzteko frogarena;

    d') bidalketaren identifikazio-zenbakia;

    e') salgaia entregatzeko lekua eta data, eta salgaia entregatzen zaion pertsonaren identifikazio-zenbakia;

    f') ondasunen berezko balioa;

    g') bildutako zergaren zenbatekoa;

    h') zergaren kuotaren diru-sarrera jaso duen pertsonaren identifikazioa, inportatzailea ez bada;

    i') Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 106. artikuluan aurreikusitako moduan, hartzaileak entregatu gabeko edo baztertutako ondasunen bidalketen gaineko zerga ez ordaintzearen froga, bakoitzaren berezko balioa barne;

j') inportazio horren ondorioz sortutako kuotak ordaintzeko erabiltzen den hileko aitorpenaren zenbakiaren identifikazioa.

Erregistroak bide elektronikotik egon beharko du, aldez aurretik eskatuta, Zerga Administrazioaren eskura, eta lau urtez mantenduko da, eragiketa egin den urtearen amaieratik aurrera

2. Bidaiari araubidean, postaletan eta etiketa berdean likidatu diren zorren bilketa eta sarrerak kasuei dagozkien muga zerga likidatuetarako aurreikusitako moduan egingo dira.

3. Aduanak nahikoa berme osa dadin eska dezake kanpoko trafikoaren honako eragiketa hauetan:

   a) Zergadunak betekizun jakin batzuk betetzea salbuespenak edo hobariak aplikatzeko baldintza duten eragiketetan.

   b) Hala egin dadin aholkatzen duten inguruabarrak gertatzen direnean.

   Bermearen helburua izango da zergaren ordainketa ziurtatzea, aplikatu den zerga hobariaren baldintza edo betekizunak betetzen ez badira edo eragiketetan gerta daitezkeen inguruabar bereziek hala eskaturik.

**74 bis artikulua. Autolikidazio zuzentzaileak.**

1. Subjektu pasiboek zerga horren bidez aurkeztutako zuzentzeko autolikidazioak zuzendu, osatu edo aldatu beharko dituzte, autolikidazio zuzentzaile bat aurkeztuta, Ogasun Ministerioko pertsona titularrak onetsitako aitorpen eredua erabilita.

   Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, zergapekoak zuzenketa egiteko duen arrazoia denean lege-mailako, konstituzio-mailako, Europar Batasuneko zuzenbideko edo nazioarteko itun edo hitzarmen bateko aginduen aurretiazko autolikidazioan aplikatutako arauaren balizko urratze baten alegazio arrazoitua, zuzentzeko eskatu ahalko da Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 120.3 artikuluan ezarritako prozeduraren bidez. Uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako tributuak kudeatzeko eta ikuskatzeko eta tributuak aplikatzeko prozeduren arau komunak garatzeko jardueren eta prozeduren Erregelamendu Orokorraren 126.artikulutik 128.artikulura bitartean garatu da prozedura. Arrazoi hori beste arrazoi batzuekin batera gertatzen bada, zergapekoak autolikidazio zuzentzailea aurkeztu beharko du.

   Atal horretan ezarritakoa ez zaio hauei aplikatuko:

   a) Uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuak onetsitako Erregelamendu Orokorraren 129. artikuluan aipatzen diren beste zergapeko batzuei bidegabe jasanarazitako kuoten zuzenketak (Erregelamendu hori tributuak kudeatzeko eta ikuskatzeko eta tributuak aplikatzeko prozeduren arau erkideak garatzeko jarduerei eta prozedurei buruzkoa da).

   b) Zergari buruzko legeko IX. tituluko XI. kapituluan arautako erregimen bereziei atxikitako eragiketei dagozkien kuotak aldatzea.

2. Aurretiazko autolikidazio baten autolikidazio zuzentzailea aurkeztu ahal izango da administrazioak zerga-zorra likidazio bidez zehazteko duen eskubidea edo, hala badagokio, itzulketa eskatzeko eskubidea preskribatu baino lehen. Epez kanpo aurkezten bada, aitorpena garaiz kanpokotzat hartuko da.

3. Autolikidazio zuzentzailean berariaz jasoko dira inguruabar hori, zerga-betebeharra eta dagokion aldia, bai eta aitortu beharreko datu guztiak eta Ogasun Ministerioaren titularrak onetsitako aitorpen-eredua arautzen duen ministro-aginduan ezar daitezkeen beste batzuk ere, bai eta zuzentzeko arrazoiak ere. Ondorio horietarako, aurretik aurkeztutako autolikidazioan jasotako datuak, aldatzen ez direnak, aldatzen direnak eta sartu berriak sartuko dira.

4. Autolikidazio zuzentzaileak aldatu, osatu edo zuzendu ahal izango du aurretik aurkeztutako autolikidazioa. Zehazki:

   a) Egindako zuzenketaren ondorioz ordaindu beharreko zenbatekoa aurreko autolikidazioarena baino handiagoa bada, edo itzuli edo konpentsatu beharreko zenbatekoa lehen autolikidatutakoa baino txikiagoa bada, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 122.2 artikuluan eta hura garatzeko araudian autolikidazio osagarrietarako ezarritako araubidea aplikatuko da.

   b) Aurreko letran jaso ez diren kasuetan, autolikidazio zuzentzailean egindako kalkulutik itzuli beharreko kopuru bat ateratzen bada, autolikidazio zuzentzailea aurkeztearekin batera itzulketa eskatu dela ulertuko da. Itzulketa hori Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 124. artikulutik 127. artikulura bitartean eta hura garatzeko araudian ezarritako prozeduraren araubidearen arabera izapidetuko da, lege horren 120. artikuluaren 3. paragrafoan ezarritakoaren arabera berandutze-interesak ordaintzeko betebeharrari kalterik egin gabe.

      Itzulketa ordaintzeko sei hilabete egongo dira, autolikidazioa aurkezteko arauzko epea bukatzen denean zenbatzen hasita, edo amaitu izan balitz, autolikidazio zuzentzailea aurkezten denetik zenbatzen hasita.

      Aurretiazko autolikidazioa aurkeztean itzulketa eskatu izan balitz eta hori ez balitz egin autolikidazio zuzentzailea aurkeztu baino lehen, autolikidazio zuzentzailea aurkeztean amaitutzat joko litzateke aurretiazko autolikidazioa aurkeztean hasitako prozedura.

   c) Egindako zuzenketaren ondorioz aurretiazko autolikidaziotik ordaindu beharreko zenbatekoa gutxitzen bada eta itzuli beharreko zenbatekoa itzuli behar ez bada, ordaintzeko betebeharrari eutsiko zaio autolikidazio zuzentzailearen ondorioz ordaindu beharreko zenbatekoaren mugaraino.

      Aurretiazko autolikidazioaren ondoriozko zorra geroratuta edo zatikatuta badago, autolikidazio zuzentzailea aurkeztean aldaketa geroratzeko edo zatikatzeko baldintzetan eskatu dela ulertuko da, uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Dirubilketa Erregelamendu Nagusiaren 52. artikuluaren 3. ataleko bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera.

5. Autolikidazio zuzentzaileak ez du ondoriorik izango behin betiko likidazioaren edo behin-behineko likidazioaren bidez erregularizatutako elementuetan, uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako zergak kudeatzeko eta ikuskatzeko eta zergak aplikatzeko prozeduren arau komunak garatzeko jarduerei eta prozedurei buruzko Erregelamendu Orokorraren 126. artikuluaren 2. eta 3. paragrafoetan aipatzen diren baldintzetan, hurrenez hurren.

## II. KAPITULUA
## OFIZIOZKO LIKIDAZIO BEHIN-BEHINEKOA

### 75. artikulua. Aplikazio kasuak.

1. Zerga Administrazioak ofizozko likidazio behin-behinekoak egingo ditu subjektu pasiboak aurreko kapituluan ezarritako moduan Zerga autolikidatzeko beharra betetzen ez badu eta horretarako aitorpen-likidazioa aurkezteko deiari erantzuten ez dionean.

2. Aitorpen-likidazioak aurkeztu behar dituzten subjektu pasiboen barrutietan Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak dauzkan ordezkaritza edo administrazioek aurreko idatz-zatian aipatu diren likidazioak sustatu eta gauzatu egingo dituzte.

3. Ofiziozko likidazio behin-behinekoek subjektu pasiboak ordaindu beharra zuen zerga zorra zein zen zehaztuko dute eta, hala badagokio, zigor espedienteari hasiera emango zaio, abenduaren 18ko 2.631/1985 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera.

### 76. artikulua. Prozedura.

1. Zerga Administrazioak subjektu pasiboari hark arauzko epean egin ez duen aitorpen-likidazioa aurkez zezan eskatzeko jakinarazpena egin eta hogeita hamar egun igaro ondoren, ofiziozko likidazio behin-behinekoa egiteko prozedurari ekin dakioke, epe horretan betekizuna kunplitzen ez badu edo betekizunik kunplitu beharrik ez duela egiaztatzen ez badu.

2. Ofiziozko likidazio behin-behinekoa Zerga Administrazioak dauzkan eta kasu horretan garrantzizkoak diren datu, aurrekari, elementu, zeinu, indize eta moduluetan, Zerga honen araubide erraztuan zenbait sektorerentzat ezarritakoetan bereziki, oinarri harturik egingo da.

3. Subjektu interesatuari espedientearen berri emango zaio hark, hamar eguneko epe luzaezinekoan, bidezko iruditzen zaizkion alegazioak egin ditzan.

4. Ofiziozko likidazio behin-behinekoa subjektu pasiboaren alegazioak hartu ondoren edo izapide hori egiteko epea amaitu eta gero egingo du Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren Ordezkaritza edo Administrazioak.

5. Ebazpena espedienteari erantsiko zaio eta interesatuei jakinaraziko zaie hamar eguneko epean, hura ematen den egunetik zenbaturik.

### 77. artikulua. Ofizozko likidazio behin-behinekoaren ondoreak.

1. Ofiziozko likidazio behin-behinekoak berehalaxe exekutatu ahal izango dira, haien aurka legeek adierazitakoaren arabera aurkeztu daitezkeen erreklamazioen kaltetan gabe.

2. Kapitulu honetan esandakoaren kaltetan gabe, Administrazioak subjektu pasiboen zerga egoera zein den egiazta dezake geroenean eta egin beharreko gertatzen diren likidazio behin betikoak egin ditzake, Zergei buruzko Lege Orokorraren 120. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraiki.

## III. KAPITULUA
## ELKARTE BARRUKO ERAGIKETEN AITORPEN LABUR-BILTZAILEA

### 78. artikulua. Eragiketak laburbiltzeko aitorpena.

Ondasunen erkidego barneko eskura-emate eta eskuratzeei nahiz zerbitzuen erkidego barneko emate eta jasotzeei dagozkien eragiketak laburbiltzeko aitorpena aurkeztu beharko dute enpresari eta profesionalek, kapitulu honetan adierazitako moduan.

### 79. artikulua. Eragiketak laburbiltzeko aitorpena aurkezteko betebeharra.

1. Enpresari eta profesionalek eragiketak laburbiltzeko aitorpena aurkeztu beharko dute, nahiz eta halakoak diren legeari buruzko legeko 5. artikuluko laugarren idatz zatian xedaturikoaren ildotik, eragiketa hauek egiten dituztenean:

   1.a. Beste estatu kide bati zuzendutako ondasun-emateak, Zergari buruzko Legearen 25. artikuluko bat, bi, hiru eta laugarren ataletan xedatutakoaren arabera salbuetsita badaude.

   Eragiketa horien artean sartuta egongo dira zergari buruzko legeko 9. artikuluko 3. zenbakian jasoriko ondasun eskualdatzeak eta, bereziki, ondasunen ondorengo eskura-emateak, haien inportazioa salbuetsirik egon denean zergari buruzko legeko 27. artikuluko 12. zenbakian xedatutakoaren ildotik.

   Honako hauek geratuko dira zenbaki honetan aipatzen diren ondasun eskura-emateetatik kanpo:

a) Zergari buruzko legeko 5. artikuluko lehen idatz zatiko e) letran jasotako pertsonek noizean behin eginiko garraiobide berrien eskura-emateak.

b) Zergaren subjektu pasiboek erkidegoko beste edozein estatutan zergaren ondorioetarako identifikazio zenbakirik esleituta ez duten hartzaileei egiten dizkieten eskura-emateak.

2.a. Zergaren aplikazioko lurraldean zergaren ondorioetarako identifikaturik dauden pertsonek edo erakundeek eginiko zergari lotutako erkidego barneko ondasun-eskuratzeak.

Eragiketa horien artean sartuta egongo dira zergari buruzko 16. artikuluko 2. zenbakian aipatzen diren Europar Batasuneko beste estatu batetik eginiko ondasun-eskualdatzeak eta, bereziki, aldez aurretik Europar Batasuneko beste estatu batetik inportatu diren ondasunen erkidego barneko eskuratzeak, haien inportazioa zergatik salbuetsirik egon denean zergari buruzko legeko 27. artikuluko 12. zenbakian ezarritakoen antzeko baldintzetan.

3.a. Erkidego barneko zerbitzu-emateak.

Arautegi honen ondorioetarako, ondorengo baldintzak biltzen dituzten zerbitzu-emateak jotzen dira erkidegoko barneko zerbitzu-ematetzat:

a) Zerbitzu-emate horiei aplikagarriak zaizkien kokatze arauen arabera, zerbitzuak zergaren aplikazioko lurraldean ez direla ematen ulertzea.

b) Europar Batasuneko beste estatu batean zergari lotuta egotea, eta ez salbuetsirik.

c) Jasotzailea enpresari edo profesionala izatea eta halakotzat jardutea, eta haren ekonomia jardueraren egoitza Europar Batasuneko estatu horretan egotea, edo establezimendu iraunkorra edukitzea, edo, bestela, bere egoitza edo ohiko bizilekua; edo jasotzailea enpresari edo profesional gisa jarduten ez duen pertsona juridikoa izatea, baina zergaren ondorioetarako Europar Batasuneko estatu horrek emandako identifikazio zenbaki bat esleituta edukitzea.

d) Subjektu pasiboa jasotzaile hori izatea.

4.a. Erkidego barneko zerbitzu-jasotzeak.

Erregelamendu honen ondorioetarako, Batasunaren barruko zerbitzu-eskuratzetzat joko dira zerga aplikatzen den lurraldean zerbitzu atxikiak eta salbuetsiak ez direnak, baldin eta enpresaburu edo profesional batek ematen baditu eta baldin eta jarduera ekonomikoaren egoitza edo jarduera horiek eskaintzen dituen establezimendu iraunkorra, edo, halakorik ezean, haren ohiko bizilekua edo egoitza Batasunean badago, baina zerga aplikatzen den lurraldetik kanpo, eta subjektu pasiboa hartzailea bada.

5.a. Zergari buruzko legeko 26. artikuluko hirugarren idatz zatian aipatzen diren erkidego barneko ondasun-eskuratzeen ondorengo eskura-emateak, Espainiako zerga administrazioak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako esleitutako identifikazio zenbaki bat erabiliz Europar Batasuneko beste estatu batean egiten direnean.

2. Ondasunak beste estatu kide batera igortzen edo garraiatzen dituen saltzaileak ere aurkeztu beharko du laburpen-aitorpena, Zergari buruzko Legearen 9 bis artikuluan aipatzen den kontsignako ondasunen salmentarako akordio baten esparruan.

**80. artikulua. Eragiketak laburbiltzeko aitorpenaren edukia.**

1. Eragiketak laburbiltzeko aitorpenak ondorengo informazioa eduki beharko du:

1.a. Ondasunen hornitzaile eta eskuratzaileen eta zerbitzuen emaile eta jasotzaileen identifikazio datuak, bai eta haietako bakoitzarekin eginiko eragiketei dagokien guztizko zerga oinarria ere.

Eragiketen ordaina euroa ez den beste unitate batean ezarri bada, eragiketa horien zerga oinarria adierazi beharko da, sortzapen egunaren erreferentzia erabilita.

2.a. Zergari buruzko legeko 9. artikuluko 3. idatz zatian eta 16. artikuluko 2. idatz zatian jasotako ondasunen eskualdatzeetan, Europar Batasuneko beste estatuan subjektu pasiboari esleitutako identifikazio zenbakia adierazi beharko da.

3.a. Erregelamendu honetako 79. artikuluko 1. ataleko 5. zenbakian aipatzen diren eragiketetan, bereiz jaso beharko dira ondorengo entregak, eta horiei dagokienez honako datu hauek jasoko dira:

a) Eragiketa horiek egiteko enpresari edo profesionalak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako erabiltzen duen identifikazio zenbakia.

b) Bidalketa edo garraioa iristen den Europar Batasuneko estatuak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako esleitutako identifikazio zenbakia, ondorengo eskura-emate horren eskuratzaileak emana.

c) Ondasunen bidalketa edo garraioa iristen den Europar Batasuneko estatuan subjektu pasiboak gauzaturiko eskura-emateen guztizko zenbatekoa, hartzaile bakoitzari dagokionez.

4.a. Ondasun-bidalketen kasuan, Zergari buruzko Legearen 9 bis artikuluan aipatutako kontsignako ondasunak saltzeko akordio baten esparruan, saltzaileak kontsignatu beharko ditu:

a) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako, ondasunak ematen edo garraiatzen zaizkion estatu kideak ondasunak zein enpresabururi edo profesionalari esleitu eta horren identifikazio-zenbakia.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako, enpresaburuaren edo profesionalaren identifikazio-zenbakia, Zergari buruzko Legearen 9 bis artikuluaren hirugarren paragrafoaren bigarren lerrokadaren a') idatz-zatian aipatzen dena, zeinak hasiera batean ondasunak esleitu zitzaizkion enpresaburua edo profesionala ordezten duen, ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan.

c) Kontsignan dauden ondasunak saltzeko akordio baten esparruan beste estatu kide batera jaulkitako edo garraiatutako ondasunen balioaren hasierako zenbateko zenbatetsia.

2. Eragiketak laburbiltzeko aitorpenean zuzendu egin beharko dira hutsegiteak egin direnean edo zergari buruzko legeko 80. artikuluan aipatzen diren egoeren ondoriozko aldaketak gertatu direnean.

Aurreko ataleko 4. zenbakian aurreikusitako kasuan, saltzaileak jakinarazi beharko du aurkeztutako informazioaren edozein aldaketa.

3. Sortu direneko aitorpeneko aldiari dagokion eragiketak laburbiltzeko aitorpenean jaso beharko dira eragiketak.

Aurreko 1. ataleko 4. zenbakiaren kasuan, aipatutako informazioa dagokion laburpen-adierazpenean jasoko da:

– Ondasunen bidalketa- edo garraio-datari buruzko adierazpenaren aldia, a) letran aurreikusitako kasuan;

– Erregelamendu honen 66.B) artikuluaren a) letran aipatzen den erregistro-liburuan ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan, hasiera batean destinatu ziren enpresaburua edo profesionala ordezkatzen duen enpresaburuaren edo profesionalaren identifikazio-datuak jasota dauden deklarazio-aldiari, b) letran aurreikusitako kasuan.

Aurreko 2. atalaren lehenengo lerrokadak aipatzen dituen kasuetan, zuzenketa ondasunen edo zerbitzuen hartzaileari jakinarazi zaion aitorpen-aldiaren laburpen-adierazpenean jasoko da.

**81. artikulua. Eragiketak laburbiltzeko aitorpena aurkezteko toki, modu eta epeak.**

1. Ekonomia eta Ogasun ministroak onartutako tokian, moduan eta eredua erabiliz aurkeztuko da eragiketak laburbiltzeko aitorpena.

2. Aitorpeneko aldia eta eragiketak laburbiltzeko aitorpena aurkezteko epeak ondorengoak dira:

   1.a. Oro har, eragiketak laburbiltzeko aitorpena hilabete natural bakoitzerako aurkeztu beharko da hurrengo hilabeteko lehen hogei egun naturaletan zehar, uztaileko aitorpena izan ezik, hura abuztuan eta iraileko lehen hogei naturaletan zehar aurkeztu ahalko baita.

   2.a. Ez erreferentziako hiruhilekoan ez aurreko lau hiruhileko naturaletan, eragiketak laburbiltzeko aitorpenean jaso beharreko ondasunen eskura-emateen eta egin diren zerbitzu-emateen guztizko zenbateko metatua 50.000 eurotik gorakoa ez denean, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta, eragiketak laburbiltzeko aitorpena hiruhileko horren ondorengo hilabeteko lehen egun naturaletan zehar egin beharko da.

   Baldin hiruhileko bakoitza osatzen duten edozein hilabeteren bukaeran aurreko paragrafoan aipaturiko zenbatekoa gainditzen bada, eragiketak laburbiltzeko aitorpen bat aurkeztu beharko da hiruhileko hori hasi zenetik igarotako hilabeterako edo hilabetetarako, ondorengo hogei egun naturaletan.

3. Artikulu honen 2. idatz-zatiak aipatzen dituen kasu guztietan urteko azken aldiari dagokion laburpen-adierazpena urtarrileko egutegiko lehenengo hogeita hamar eguneko epearen barnean aurkeztu beharko da.

4. …

5. …

## III. BIS KAPITULUA
## ORDAINKETA-ZERBITZUEN HORNITZAILEEK IZANDAKO ERREGISTROEI BURUZKO ADIERAZPENA

**81 bis artikulua. Ordainketa-zerbitzuen hornitzaileek izandako erregistroei buruzko aitorpena aurkezteko betebeharra, epea, forma eta eredua.**

1. Zergaren Legearen 166 quater artikuluan aipatutako ordainketa-zerbitzuen hornitzaileek artikulu horretan aurreikusitakoarekin bat etorriz edukitzera behartuta dauden erregistroei buruzko aitorpena aurkeztu beharko dute.

2. Aitorpen hori dagokion hiruhileko naturalaren hurrengo hilabetea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da.

3. Aipatu den aitorpena Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko titularrak onartutako moduan eta ereduan aurkeztuko da.

## IV. KAPITULUA
## ORDEZKARI FISKALA

### 82. artikulua. Establezimendurik gabeko subjektu pasiboen betebeharrak.

1. Zergari buruzko legeko 164.Bat.7. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta hurrengo 3. idatz zatian ezarritakoaz gain, zergaren aplikazioko lurraldean egoitzarik ez duten subjektu pasiboak behartuta daude pertsona fisiko edo juridiko bat izendatzera haien ordezkaria izan dadin aipaturiko legean eta arautegi honetan ezarritako betebeharrak betetzean. Pertsona fisiko edo juridiko horrek zergaren aplikazioko lurraldean izan behar du egoitza, eta subjektu pasiboak haren berri eman behar dio zerga administrazioari, zergari lotutako eragiketak egin baino lehen.

   Kanarietan, Ceutan edo Melillan, Batasuneko beste estatu kide batean edo elkarri laguntzeko tresnak dituen estatu batean dauden subjektu pasiboei dagokienez, ez da betebehar hori egongo, baldin eta estatu horiek Batasunean ezarrita daudenen antzekoak badira, edo urruneko salmentei aplikatu beharreko araubide berezietara biltzen badira, eta Zergaren Legearen IX. tituluko XI. kapituluan araututako ondasunen barne-entrega eta zerbitzu-prestazio jakin batzuei.

2. Zergaren aplikazio lurraldean establezimendurik ez duten subjektu pasiboek, Zergari buruzko Legearen 23 eta 24. artikuluetan azaldutako eragiketa salbuetsiak soilik egiten badituzte, ez dituzte bete behar lege beraren 164. artikuluan ezarritako erazko betebeharrak.

3. Artikulu honetan xedatutakoak ez dio kalterik egingo Zergaren Legearen 119 bis 1. Lehena artikuluan ezarritakoari.

## V. KAPITULUA
## URRATZE ARINAK

### 83. artikulua. Baliokidetasun errekarguaren araubideaz baliatzen diren subjektu pasiboak.

Baliokidetasun errekarguaren araubide bereziaz baliatzen diren subjektu pasiboek Zergari buruzko Legearen 170. artikuluko bigarren atalaren 1. zenbakian azaldutako urratze arinik ez dute egingo baldin eta manu horretan aipatzen den jakinarazpena egin eta euren zerga-egoitza dagoen lurraldean Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak daukan Ordezkaritza edo Administrazioari aurkezten badiote.

# XEDAPEN ERANTSIAK

### Lehenengo xedapen erantsia. Zenbatespen objektiboari uko egitearen ezeztapena.

1. Salbuespenez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek, 1992. urterako uko egin badiote zenbatespen objektiboaren metodoaren zeinu, indize edo modulukako modalitateari, ukoa ezeztatu egin dezakete 1993. urterako.

2. Era berean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek, 1992. urterako uko egin badiete zenbatespen objektiboaren metodoaren zeinu, indize edo modulukako modalitateari eta araubide berezi erraztuari, ukoa ezeztatu egin dezakete 1993. urterako.

3. Aurreko idatz-zatietan aipatutako ukoak 1993ko otsailean ezeztatu ahal izango dira, horrela xedatu baitu uztailaren 27ko 1.041/1990 Errege Dekretuak, enpresari, profesional eta beste zergadun batzuek zergen ondoreetarako aurkeztu behar dituzten aitorpenak araupetu dituenak.

4. Uste izango da subjektu pasiboek 1992rako uko egin diotela Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiborako metodoaren zeinu, indize edo modulukako

modalitateari edota Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuari, baldin eta urte horretan araubide horietako arau orokorrei jarraituz egin badituzte zatikako ordainketak edo aitorpen-likidazioak.

**Bigarren xedapen erantsia. Baliokidetasun errekarguaren araubide berezia duten txikizkako merkatariei egin beharreko itzulketak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa txikituen arautegi berriaren ondorioz.**

1. Baliokidetasun errekarguaren araubide berezia duten Zergaren subjektu pasiboek 1992ko abenduaren 31n Lege honen arabera tributua tasa txikituan ordaindu behar duten ondasunen azken izakinak baldin badituzte, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta ondasunen eskuraketan jasandako errekarguaren eta ondasun horien emateei aplikatu ahal zaizkienen arteko aldea itzul diezaieten eska dezakete 1993ko urtarrilaren 1etik aurrera, honako baldintzok betez gero:

   1.a. Subjektu pasiboek 1992ko abenduaren 31n zituzten ondasunen zerrenda egingo dute.

   2.a. Zerrendan agertzen diren ondasunen eskuraketa 1992. urtea baino lehen egin denean, ondasun horiek zergadunak beste urte horietan egindako ondasun zerrendetan ere agertzen direla egiaztatu beharko du.

   3.a. Itzulketa egiteko motibo diren ondasun zerrendaratuak direla-eta, haiek eskuratzerakoan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta baliokidetasun errekarguaren eragina jasan zela egiaztatu beharko da.

2. Horrela finkatutako itzulketaren zenbatekotik kenduko da subjektu pasiboak ondasunak eskuratu zituenean jasan zuen Balio Erantsiaren gaineko Zerga edo baliokidetasun errekarguaren eta, 1992ko abenduaren 31n dituen azken izakinetako ondasun horien Zerga edo errekargua 1993an handituz gero, ordaindu beharko lukeenaren arteko aldea.

3. Xedapen honek aipatzen duen eskaera 1993ko otsailean egingo da, Ekonomia eta Ogasun Ministroak onartutako ereduan.

4. Xedapen honetan aurreikusten diren itzulketak egiteko orduan, Zerga Administrazioak baimena eman dezake itzulketarako talde espedienteak izapidetzeko, eskabideen ezaugarriek horrela egitea aholkatzen dutenean.

5. Itzulketa behin-behinekoa izango da, egin ondoren Zerga Ikuskaritzak egiaztatu eta aztertu ahal izango baitu.

**Hirugarren xedapen erantsia. Aitorpen aldiak.**

Zergen arloko arau batzuetan aipamena egiten zaio 30eko 2.028/1985 Errege Dekretuak onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 172. artikuluari. Honako araudi hau indarrean sartuz gero, aipamen horiek 71. artikuluari buruzkoak direla ulertu beharko da.

**Laugarren xedapen erantsia. Indarrean iraungo duten xedapenak.**

Jarraian aipatuko diren xedapenek indarrean iraungo dute:

a) 669/1986 Errege Dekretua, martxoaren 21ekoa, Amerikako Estatu Batuekiko hitzarmenak direla-eta zenbait zerga Balio Erantsiaren gaineko Zergaz ordeztearen norainokoa zehaztu duena, Salbu eta 3. artikuluko 2. ataleko a) letran ezarri dena.

b) 1.617/1990 Errege Dekretua, abenduaren 14koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbait salbuespenen norainokoa zehaztu duena, Europako Espazio Agentzia sortu zuen 1975eko maiatzaren 30eko hitzarmena aplikatuta.

Aipatutako errege-dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoa betez egin beharreko itzulketa-eskaerek hiruhileko natural bakoitzean jasandako kuotei buruzkoak izan beharko dute eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari aurkeztuko zaizkio, bidezko aldia amaitu eta sei hilabeteko epean.

## Bosgarren xedapen erantsia. Derrigorrezko betearazpena.

Nahitaezko betearazpeneko administrazio- eta lege-prozeduretan, Zergaren Legeak seigarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen horietan, enpresaburuak edo profesionalak diren esleipendunek, subjektu pasiboaren izenean eta bere kontura, prozedura haien arabera ondasunak entregatu eta zerbitzuak eskaintzeari dagokionez, faktura egiteko ahalmena izango dute. Horretan eragiketa dokumentatu beharko da. Gainera, Legeak 20. artikuluko bigarren atalean aurrez ikusitako salbuespenei uko egiteko gaitasuna izango dute. Era berean, egindako fakturan zergaren kuota jasanaraz dezakete, baita aitorpen-likidazioa aurkeztu eta zergaren zenbatekoa ordaindu ere, Zergaren Legeak 84.bat.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, ondasunak entregatu eta zerbitzuak eskaintzean subjektu pasiboa hartzailea denean izan ezik.

Prozeduratan honako arauak aplikagarriak izango dira:

1.a. Idatziz agertu behar da adjudikaziodunak ahalmen horiek egikaritzen dituela. Prozedura aurrera daraman epai edo administrazio organoari aurkeztu behar zaio idazkia, adjudikazioaren zenbatekoa ordaintzeaz batera edo ordaindu aurretik.

Idazki horretan agertarazi egingo da, bidezkoa izanez gero, Araudi honen 8. artikuluan ezarri diren betekizunak betetzen direla higiezinekiko eragiketen salbuespenari uko egiteko eta ukoa egikaritzeko.

Adjudikaziodunak ahalmen horiek egikaritu dituela jakinarazi behar dio eragiketengatik zerga ordaindu behar duen subjektu pasiboari edo haren ordezkariei. Horretarako, epai edo administrazio organoari aurkeztutako idazkiaren kopia bidaliko dio, idazkia aurkeztu eta zazpi eguneko epean. Bidaltzea ez da nahitaezkoa izango, ondasunak entregatu eta zerbitzuak eskaintzean esleipenduna subjektu pasiboa bada, Zergaren Legeak 84.bat.2. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Adjudikaziodunak ahalmen hori egikarituz gero, subjektu pasiboak edo haren ordezkariek ezingo diete uko egin Zergari buruzko Legearen 20. artikuluko Bi idatz-zatian ezarritako salbuespenei, eta ez dute fakturarik egingo eragiketa dokumentatzeko, ez eragiketa hori euren aitorpen-likidazioetan sartu, ezta haren ondorioz sortutako zerga ordaindu ere.

2.a. Eragiketa dokumentatzen duen faktura fakturazioaren eginbeharrak arautzen dituen Araudiak, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuaren bitartez onartutakoak, 11. artikuluan xedatutako epean igorri beharko da eta sortze-data esleipen-dekretuan emandakoa izango da.

Adjudikaziodunak egingo du faktura hori. Bertan, fakturaren emaile gisa, betearazpenaren xede diren ondasun edo zerbitzuen jabe den subjektu pasiboa agertuko da, eta eragiketaren hartzaile gisa, adjudikazioduna bera.

Faktura horiek zenbaki-sail berezia izango dute.

Adjudikaziodunak fakturaren kopia bidaliko dio zergaren subjektu pasiboari edo haren ordezkariari, zazpi eguneko epean, faktura ematen duen egunetik hasita, eta beretzat gordeko du jatorrizko faktura.

3.a. Adjudikaziodunak eragiketaren emaitzako kuotaren aitorpena eta sarrera egingo ditu. Horretarako, aitorpen-likidazio berezia aurkeztuko du, unean unekoa, Araudi honen 71. artikuluko 8. idatz-zatian araupetu diren horietarikoa.

Adjudikaziodunak subjektu pasiboari edo haren ordezkariari aitorpen-likidazioaren kopia bidaliko dio, egindako sarreraren balidazioa ageri duena, zazpi eguneko epean, sarrera egiten duen egunetik hasita, eta beretzat gordeko du jatorrizko aitorpen-likidazioa.

Ez da aurrekoa aplikatuko, ondasunak entregatu eta zerbitzuak eskaintzean esleipenduna subjektu pasiboa bada, Zergaren Legeak 84.bat.2. artikuluan xedatutakoarekin bat.

4.a. Ezinezkoa gertatzen bada ahalmenaren egikaritzaren berriematea, fakturaren kopia edota aitorpen-likidazioaren kopia goiko 1go., 2gn. eta 3gn. arauetan adierazi den bezala subjektu pasiboari edo haren ordezkariei bidaltzea, eta ezintasunaren arrazoia adjudikaziodunari ezin egotzi bazaio, agiri horiek Zerga Administrazioaren Estatu Agentziari bidaliko zaizkio, zazpi eguneko epean, ezintasunaren arrazoia jasorik geratzen den egunetik hasita, eta inguruabar hori azalduko zaio.

**Seigarren xedapen gehigarria. Tasa eta prezio zehatzak kudatzeko betebeharra, Administrazioak egindako eragiketen kontraprestazioa eratzen dutenak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren mendekoak.**

1. Zergadunek edo zergadunaren ordezkoek, bai eta legez kontraprestazioak eratzen dituzten tasak edo prezioak biltzeko borondatezko epean daudenek ere, dela titularraren kontura dela zerbitzuarenen edo jarduera publikoaren emakidadunaren kontura, eragiketa Balio Erantsiaren gaineko Zergaren mende dagoenean, ondoko betebeharren mende geratuko dira:

   a) Tasaren zergadunaren edo zerbitzuaren edota jardueraren erabiltzailearen nahiz jasotzailearen eragiketa hori zamatzen duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa eskatzea.

   b) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 88. artikuluan aipatutako eragiketari lotutako faktura luzatzea, subjektu pasiboaren izenean eta kontura. Betebehar hori fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua ezarritakoaren arabera beteko da. Zernahi gisaz, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren Zerga Kudeaketa Sailak betebehar hori betetzeko formula erraztuak baimendu ahal izango ditu.

   c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren gaineko subjektu pasiboari aurreko a) paragrafoan ezarritakoa aplikatzeagatik jasotako zenbatekoa ordaintzea, kasuan kasuko tasa edo prezioa ordaintzeko ezarritako moduan eta epeetan.

2. Aurreko atalean ezarritako kasuetan, zerbitzuaren edo jardueraren erabiltzaileek edo jasotzaileek kasuan kasuko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aldaketa jasan beharko dute.

**Zazpigarren xedapen gehigarria. Araudi-aipamena.**

“Erkidegoa” eta “Europar Erkidegoa” terminoak, Araudi honetan jasotzen direnak, “Batasunari” buruzkoak direla ulertuko da, “Europar Erkideen” edo “EEEren” terminoak “Europar Batasunaren” termino bezala ulertuko dira eta “komunitarioa” nahiz “komunitarioak” “Batasunari” buruzkoak izango dira.

**Zortzigarren xedapen gehigarria. Inportazioarekiko balio erantsiaren gaineko zergari buruzko kuotak epe betearazlean biltzea.**

Subjektu pasiboek balio erantsiaren gaineko zergari buruzko araudiak 74.1. artikuluan aurrez ikusten den diru-sarrera geroratzeko sistema aukeratu badute, inportazioekiko balio erantsiaren gaineko zergaren kuotei dagokienez, epe betearazlea aitorpen-likidazioa sartzeko epea amaitu eta hurrengo egunean hasiko da. Hori likidatutako kuotei eta subjektu pasiboak horretan sartu ez dituenei buruzkoa izango da. Xede horrez, aitorpen-likidazioan izendatutako kuotak likidazio bakoitzerako dataren arabera likidatutako kuotekin bat datozela ulertuko da. Nolanahi ere, denboraldiari dagokion datarik zaharrenetik hasiko da.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lehen xedapen iragankorra. Hainbat subjektu pasibok aitorpen-likidazioa batera egiteko baimena.**

Araudi honen 71. artikuluko 5. idatz-zatiko bigarren lerroaldean xedatutakoa dela-eta, urriaren 30eko 2.028/1985 Errege Dekretuak onetsitako Zergari buruzko Araudiaren 172. artikuluko 5. zenbakian ezarritakoaren itzalpean Zerga Administrazioak emandako baimenek indarrean iraungo dute 1993ko urtarrilaren 1etik aurrera.

**Bigarren xedapen iragankorra. 1993. urtea baino lehen egindako ondasun ematea.**

Araudi honetako 81. artikuluko 3. atalaren 2. zenbakian adierazitakoaren ondoreetarako, 1992an eta jomuga beste estatu kideak izanda egin ziren ondasun esportazioak zergaren ondoreetatik salbuetsita daudela ulertuko da 1993ko ekitaldian.

**Hirugarren xedapen iragankorra. 2017 ekitaldian araubide erraztuari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezia aplikatzeko mugak.**

36. artikuluko 1. zenbakian b) letrako a`) paragrafoan eta f) letran; eta 43. artikuluko 2. zenbakiko b) eta c) letretan aipatzen den 150.000 euroko kopurua 2017ko ekitaldian 250.000 eurokoa izango da.

**Laugarren xedapen iragankorra. Ezohiko baja hileko itzulketa erregistroan eta 2017an zehar ezohiko moduan uko egitea erakundeen taldeko araubide berezia aplikatzeari.**

1. Araudi honen 30. artikuluan araututa dagoen hileko itzulketa erregistroan izena emanda dauden subjektu pasiboek bertan bajan emateko eskatu ahal izango dute.

   Zergei buruzko Legearen IX. tituluko IX. kapituluan araututako araubide bereziko erakundeen taldearen barne dauden erakundeei dagokienez, baja-eskaera erakunde nagusiak aurkeztu beharko du eta araubide berezia aplikatzen duten taldeko erakunde guztiak adierazi beharko ditu.

2. Zergei buruzko Legearen IX. tituluko IX. kapituluan araututako araubide bereziko erakundeen taldearen araubidea aplikatzen duten erakundeek araubide berezi hori aplikatzeari uko egiteko aukera izango dute.

3. Aurreko ataletan zehaztu diren baja-eskaera eta uko egitea 2017ko ekainaren 15era arte gauzatu ahal izango dira, eta ondorioak urte honetako uztailaren 1etik aurrerakoak izango dira.

**Bosgarren xedapen iragankorra. 2017rako sinplifikatutako araudiari atxikita dauden subjektu pasiboek Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren egoitza elektronikoaren bitartez erregistro-liburuak eramateko aukera izango dute.**

Hala ere, Araudi honen 62.6 eta 68 bis artikuluetan aurreikusitakoa kontuan hartuz, araubide sinplifikatuari atxikitako subjektu pasiboek ez dute izango 2017rako ondorioekin Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren egoitza elektronikoaren bitartez erregistro-liburuak eramateko aukerarik.

**Seigarren xedapen iragankorra. 2018. ekitaldian bidaiarien araubidean ondasunak ematean salbuespena aplikatzeko prozedura.**

2018. ekitaldian bidaiarien araubidean ondasunak entregatzean salbuespena aplikatzeko prozeduraren barruan faktura erabili daiteke 9. artikuluko 1. atalaren 2. zenbakiko b) hizkian aipatzen den dokumentu elektronikoaren ordez.